Itxaro Borda

%100 basque

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2001 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2001eko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

We made a promise we swore we'd always remember
No retreat baby no surrender
Like soldiers in the winter night with a vow to defend
No retreat baby no surrender

SPRINGSTEEN

Tu pourrais être un grand écrivain,
mais tu ne seras jamais qu'un petit farceur...

BALZAC

Euskaldunek munduan
Ez dugu parerik

ZALDUBI

Nobela honetan agertzen diren pertsonaia, leku eta gertakariak oro asmatuzkoak dira, eta irakurleak errealitatearekiko antz zerbait kausitzen baldin badu, idazleak zin dagi borondatez kanpokoa dela.

Maule 2000 - Baiona 2001

Bide handiak zailtasun izpirik ez du,
baina ez da hautatu behar. Amodio eta gorrototik
aska zaitez, orduan agertuko baitzaizu bidea
bere argitasun betean.

Luzaz berant oheratu naiz, haspiturak kateztatu Marcel gaixo hura ez bezala. Hara, ene gaurko ipuina, literatura tradizio finko, ohoretsu eta unibertsalean kokatzen dudala, perpaus soil baten bidez. Beraz, luzaz berant oheratu naiz diot, ez axolakeriaz hainbatetan, bilkuraz bilkura gauak pasaturik, batez ere ezezko ihardespenen ahoskatzen ez dakidalako. Ene inguruan zenbait izugarri abilak dira: Bai erantzun dezakete ozenki, eta Ez egin. Gutxiagotan ordea alderantziz, nahiz eta gure artean faltsu anitz baden, txoria eho eta eskua gordeka ari dena. Ez dut nehoiz trebezia hori ukan, beti hein bat gogoz kontra zorri-zaku itxurako elkarte eta ekintzetan leporaino sartu naizelako, urak daroatzan haritz erraldoietarik haizeak hautsi eta erori abartxoen antzera.

Ez dezaket hargatik erran, gaueko ibilaldi-ihesaldi horiek gozoak ez zirenik: tentsio handiko uneak bizitzen genituen, eta, ardura, aparkaleku abandonatu, anonimo eta zurpail argituetan trukatu hitz ahulek gure izpirituak garbitzen zituzten, itsas aldetik mehatxuz zetozen eurien gisa. Funtsean, batzarretara heltzeko ilunpe haietan usu euri zaparradak pairatzen genituen bide etengabearen haraindian. Loa kausi ezinez, geure buruari maiz eskatzen genion: nola iraun horrela? Suizidio iragarria, planifikatua, homeopatikoa eta patetikoa zen. Eta aho zokoan josirik zebilkigun gasna klikatuaren gustu minberan aurkitzen genukeen ihardespen existentzialaren zati bat.

Oheratu baino lehen, eri artean bihikatu etxe-gasna xerra fin baten irenstea, ogi poxi batez lagundurik, ohitura sakratua bilakatua zitzaidan. Goizeko edozein tenoretan. Non-nahitik itzultzean. Eta aldi oroz egiaztatzen zen gasnaren mirakulua, bilkuran zehar irudiz lasai ihardukitzearen saria bide zen, kristauentzat, herstura eta dolore frankoren lehia zerua zen manera sinple eta errebesean. Itxaropen bat. Muga hel eta

gaindi ezina. Lehia saindua. Pentsatzean berean, berregituratze ideologikoak aktibaraziz bihotza uxkail zezakeena. Sariarena alderantziz ere irakurtzen ahal zen bistan dena: astoa aitzinarazten zuen zaldalea izan zitekeen. Kontsolatzen nintzen, neurri batean, bi zangotakoak salbu, astoak abere maitagarriak zirela sinetsiz.

Gasnaren jabetasun psikologikoak bazuen oinarri sozio-kultural indartsua. Urre zuria trumilka ekoizten zen Euskal Herrian. Ikusten ziren, autoko faroen menpean, gaueko horma haboroxienetan, gasna sal-markak %100 BASQUE moldatzen gintuela deiadarkatzen zuten afixak. Beste gasnategi handiak espazio publizitarioak erosten zituen, *Basque de Caractère* omen zen gasnaren goraipatzeko, mesfidanta, biolentoa eta naturak goastatu produktua zela alegia, euskaldunak garen bezala. Azken hilabeteetan ohartu nintzen harriturik bazela ardi gasna mota bat *Qui Parle Basque*, molekuletan benetako taraka-taraka mintzaira hegaldaraziz. Nola deklinatzen zen gasna izugarri horren nortasun agiria? Europako sanotasun neurriei egokitzen zena? Frantziako konstituzioaren bigarren artikuluaz zer erran? Zi-

rudienez, euskaraduntasuna ukatzen zitzaigun garaiotan, merkatuaren sigi-saga zirristatsuen artetik gasnak zekarren gure izatearen hondar zigilu zilegia.

Horixe ohorea! Sakoneko egoera baten erakusle propioa! Normalean, irakurle, zuhaurk frogatu ahal izan duzunez, basque hitzaren ahoskatzeak bi ondorio baditu: lehena, irriño trufaria, gorakoia, lurra larruari sobera lotua daukanaren ahalkearen ikurra; bigarrena aldiz haserre gorria, minoritate –beti kanpotik etorria!– ekile baten bekaizkeria, izpiritu hertsikeria, burugabekeria, bortizkeria, atzerakoikeria etengabe salatzearren. Bi jarrera horien erdian, planeta honetako kideen gisa «jendeki» bizitzerik ez geneukala argi zegoen, edozein ordutan estereotipo finkoei moldatzea eskatzen zitzaigulako: artzain moduko basa ona edo goi mailako terrorista trebea. Korronte nahasiek ahazmen osoaren eta gaztigurik karioenaren arteko uretan itoarazten gintuzten. Gasna ote zen gure salbatze eremu bakarra jadanik?

Dioten «euskal gatazkaren» muina bihurtua zen gasna, eta partikulazki ardi gasnaren ingu-

ruan eramaten ziren eztabaidak, borrokak eta aterabideak. Esnearen prezioaren apaltzea, haragiaren kutsadura, erremedioen gastuak, hobekuntza genetiko sailak, euskararen galtzea baino zarata handiagoarekin, deitoratzeko manifestaldiak antolatzen ziren, letxeria okupazioak, gehienek irratien bidez hurbiletik segitzen genituenak. Tokian tokiko arrazen –ederrak baina agorrak...– eta animaleko errapeak zituzten nonbaitetik ekarri azienden aldekoak eta aurkakoak ere, lakonikoki, aharratzen ziren Herriko Plazetan, erreboteak odolez ttakatzeraino, mahaietan patxaran botilen hutsak baizik ez zituelarik kalapitariak bereizten, eta mozkorrak hondarrak baketzen. Errateko zuhurki, euskalduntasunarenaz aparte, gasnak biltzen zituela bere mami zuriaren leunean, hemen gaindiko arazo politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta psikologikoak batera.

Ez zuen jagoitik balio teoria politikoak itsumandoka orraztatzeak: gasnarik gabe genbiltzan egun eta gauetan, euskaldunak galduak ginen purki. Doloreak jasaten ikasiak ginen, panpox izateko bezala euskaldun jarduteko isilik sufritu

behar baitzen baiki, frustrazioengatik irauten, hurbilduko zitzaigun askatasun goiztiria arte esperatzen, baina ezin genuen bazkari edo auhari bat buka gasna ments. Tragedia honek ez zuen bururik ez buztanik. Bizkitartean, otorduan bospasei gasna xerra mehe, hain mehar non zirudien alde bat bakarrik ez zutela, uste zenuen aste batentzat aserik zinela, libertate mikatzaren aitzin-gela gelberetan sartua, hots! Mana sakratua haginetan errauts: gasnak bere gutxitasunean, sosegatzen eta soleitzen zintuen, bekatuaren ildoetan barna suntsitzera utzi gabe.

Pontault Combault eskualdeko ogi zelai usaintsuetan Guermantesko kondesaren atzetik, tarrapataka ibiltzen zen Marcel gaixoaren antzera hasi dut nostalgiaz eta bakardade gastronomikoz hantu ipuin hau, Sarako elizako prediku aulkian, jende beldurtu eta plegatuen aurrean oihuka, bekatuari erdeinu eta uxaka bere denbora pasatzen zuen Axular itzalbakoaren moldean finitzeko. Gasnak idazkera manatzen dit, aldizka, herritar eta mundutar. Gasna, naka-naka irenstean, edozein sukalde ilunetan, lur azaleko nomada guztiekin, ahataraka haurridetzen naiz.

Ene debalde izaerak munduko debalde guztiak juntatzen dituenean, inutiltasunaren unibertsaltasunaren ateak jotzen ditut. Eta horrek merezi du Axular eta Prousten hizpideen ezkontzea, ez?

Bidetik txotx baten neurriaz urruntzea, lurra eta zerua urratzen dituen zulo sakonean lerratzea bezala da. Ez izan ezeren alde edo kontra, bidea harrapatu nahi baldin baduzu behintzat.

Aitortu beharra daukat oraino, ipuin sail honen abiatzeko perpausaren zizelkatzen eta ohitura unibertsalean kokatzen nekezia erraldoiak eduki nituela: lehenbizikoz irakurle, amodio arazoez gain, zinezko duda literarioek larrantzi ninduten. Tom Woolfen hitzak erabiliz halatan lan hau sutan sortuko zen: «Los Angelesko naba, mojave basamortutik zetorren haize bero batek erraztatzen zuen, 1962ko agorrilaren 5 hura egun bihurtu aitzin, Brentwoodeko Marilyn Monroeren etxea gerizatzen zuten eukaliptus gorakoien puntak inarrosiz. Carl Sandburg poetak oparitu zion txirrin zaharra entzuten zen ilunean kantari. Bestelako herotsak, arraroagoak, eraman zituen haizeak gauaren hegaletan: oihuak, hausten ziren kristal hotsak. Auzoek histeriaz jo emazte garrasiari baten orroak errepikatu zituzten: «Hil-

tzaileak! Hiltzaile alaenak! Zoriontsu zarete hor, hilik datzalako?»». Tentsioz bete sarrera eredu hau ere gustukoa nuen noski, nolabait Hollywoodeko urrezko lastotxoen herrokan urtzen zuelako ahuleziaz eta erreferentzia eskasaz hanpatu ene ekin-molde larrutua: banuen zerbaiten premia alajainkoa!

Hollywood eta Marilynen aipamenek, izar ihintzez busti pentoka eztietara eramaten ninduten, haurtzaro osoan zaintzen nituen artaldeengana laburki erranik. Bidez bide oroitzen naiz, hara Perecen imitatzera lerratzen naizela bat-batean, Borda kaskoan artzain nengoela, irratia aldamenean, Eve Ruggierik Marilyn Monroeren «suizidioaren» misterioa kontatzen zidala, purpura koloreko arropaz janzteko ohitura zuten star horiek goraipatuz. Orduko associated press agentziako agiria berriz irakurtzen baldin banuen, irratiko ahotsak eta azienda ñapurren marrakak jagoitik belarrian oihar, galbidean erratu «emazteki» baten biografia nire nezakeen: «Biloak hori eta eder, Marilyn Monroe, Hollywoodeko bizitza kitzikagarriaren ikur eraginkorra, tragikoki hil izan da igandean. Ohean, etzanik atzeman

dute, biluzik. Menturaz bere buruaz beste egin du. Hogeita hamasei urte zituen. Starra, zain beheraldian aspaldi honetan, eskuetan zetxekion telefonoaren besagiari. Hurbilean, lo-gailu hoditxoak». XX. mendean hiltzeko elementu erakargarrienak agiri motzean kausitzen nituelako, urrutizkina, lexomil eta *Herria* astekariko azalpen nekrologikoen aierua halaber, idazkiak erabat berazten ninduen.

Gauez ibiltari nenbilenetan, bilkuraz bilkura zehazkiago, Norma Jean anderea ardura neukan gogoaren zirikari, Emile Zola bera asmatzera ausartuko ez zen haren bizipen sufritua: abandonatu haurra, Gladys «ama» deitzea debekatzen ziotena, bederatzi urtetan Murray Kinnel aktoreak bortxatu zuena, umezurztegiz umezurztegi hartze-familiaka erabilia, Di Maggio eta Arthur Millerren emazte baliatua, JF eta Bob Kennedy anaien amante purtzilikatua, ondorioz CIA eta KGBk kontrolatua. *Miserableak* nobelako Cosette edo Rougon Maquartarrak, Marilynen aldean ontsa galanki bizi ziren, frantses literaturaren tradizioak alderantzizkoa erakutsiagatik. Noiztenka ar-

diak auzoko larre aberatsagoetara ihes joan arren, ez ginen gaizki gu ere.

Eve Ruggieriren botz herrestaria buruan, barda arratsean adibidez, zerbitzu sekretuekiko egiazko beldurra nabaritzen nuen, bihurgune bakoitzean, mehatxua senti nezakeelako. Massive Attack taldearen zinta behatzen nuen eta ilunak bazterrak belzten zituen bitartean, musikak antsia hazten zidan. Marilynen azken arrats apaleko gertakariak, kronologikoki eta mentalki zerrendatzen nituen: hiru gizon hurbildu zitzaizkion etxera, gerora ikerketak haietarik bat Bob zela baieztatuko zuela. Beste biak? Gerla hotzaren minean nor izan zitezkeen? Pentsamenduaren latzaz eta musikaren indar zaplastatzaileaz zainak daldaraka susmatzen nituen: bat-batean saihetsean norbaitekin hitz egiteko gutizia bermatu zitzaidan. Eta nehor ez.

Detektibe eta zientzia-fikzioko nobela sobera irakurri nuen, trenetan edo geltokietan aiduru denbora gehiegi pasatu nuelako ene bizitzan: halaz, arrazoia arazoz betea neukala nihaurk, bidean, Hollywooden ekoitzi film frankotan miretsi estraterrestra baten gurutzatzea espero nuen la-

saiki, salbatua izateko gisan; baina zerbitzu sekretuetako agenteen agerpenak uste dut, horma gogor utziko nindukeela. Banekien bai, guztien joan-etorriak eta telefono lineak «kontrolpean» zeudela, ene solasek interes pilixkarik ez eta neureak salbu noski. Sekula memoria galtzen baldin bagenuen, itsuan xehetasun metatzen zihardutenek, galdatuz gero, ibilera askoren edukiak zein norabideak eskaintzen ahalko zizkiguten. Estatua bezain paranoikoak bihurtzen ari ginen eta horrek intimitatearen haria hausten zigun, aldi berean gerizatzen gintuen boterearen «hegats» mutuak arranguratzen gintuela. Izenik hartzen ez zuen burdinazko teilatu sozio-politikoak hein batean, nomada izatera behartzen gintuen, munduko kideekiko lotura bilakatzera, irabaztearen eta galtzearen arteko eremu hutsetako automata psikotiko oso, etxe eta amodiorik gabe, ardien atzetik lehen, pentoka tzar batetik malda samurragoetara terrentan genbiltzan garaian bezala.

Bidearen buruan ene sukaldera heldu orduko, irratia piztu nuen eta berehala ikasi Eskoziako laborategi batean sortu Dolly hura zendu

zela. Berriak, iragan bidaia dorpea zela kausa, izuz harrapatu ninduen: gaizki maitatu Marilyn haren eta anitz gozatu Dolly klonatuaren bitarteko xenda non zegoen? Itxuraz naturalak ez ziren izakiak parez pare epaitzen zituena herioaren dailuak? Zertarako hatsa hartzen nuen oraino hala balitz? Jainkoaren gaztiguaren seinalea ote zen? Jainko bat bazen halatan? Dollyren aita biologikoaren penak «inarrosi» ninduen, kontuan hartuz gaur egungo bioteknologia goraipatua herenegungo artzain bakartien ardifiliarako ohitura sexualen urrats berdinetarik zihoala. Gasna ahoratzen nuela arraposki, Norma Jeanen ohorea zaintzen saiatu nintzen, honen bularrak, ezpainak, sabelpeak, azpiak, ipurdi mazelak eta zango-sagarrak ez zirela nehoiz silik(l)onatuak izan erantsiz nirekiko.

Uste duzu irakurle, astotik mandora eramaten zaitudala, baina ez da hala: hitzak odoletan, larru-has dauzkat eta den mendreneko haize firfira beroak zauriak zornategi, irekitzen dizkit. Angustiak kateztatzen nau eta horixe zitzaidan gau hartan gertatu, antsiak hondarrean abandonatu ninduen arte. Mirail baten aitzinean plantatu nin-

tzen, ikusten nuenaz gohain, galdezka hargatik: zergatik ez zen Roslin Institutuko laborategian, ardiaren ordez, behi bat klonatu? Hinduistak izan bagina segur asko, metenpsikosirik gabe, idi zainart bat biderkatu zen! Baina judeo-kristauak ginen oinarrian, eta ardia gure eskualdeetan sakratua zen: fededun bakoitza marrakari bakun gisa kontsideratzen zen, artaldeak fedea bermatzen zuela, artzain onaren zuzendaritzapean, gure borroka guztien egituren piramideak irudikatuz. Bibliako Abraham patriarkak, Isaak bere semearen partez, mendi gain hartan altxatu aldarean, Jahveri eskaini zion erreformako ahariaren sakrifizioaren historia errepikatzen zen, Marilyn, Dolly edo Itziarren itxurarekin. Irratian ziotenaren arabera, klonatze teknika jendeetara hedatuko zuten denbora labur barne. «Claudia Schifer klona dezatela, baina ez Chevènement» marmaratuz oheratu nintzen.

Goizeko hirurak eta hamalauko Lapsus Tempo delakoak bristadan iratzarrarazi ninduen. Zabalik utziak nituen leihoetarik ganbaran buhaka haize epelegia sartzen zela ohartu nintzen. Bat-batean lotsak ninderoan: etxe zolan, urru-

nean itorik bezala, haur negarrak hauteman nituen, aztalkada astunak eskaileretan gora igotzen eta antsiak bereganatu ninduen. Bazetozen. Eskapatzerik ez neukan. Zenbat ziren? Lau? Bat? Hiru? Bost? Zazpi?

Gasna mater neurea.

(Zi)klona mentalak.

Alde edo aurka izatearen gatazka,
hara arimaren egiazko eritasuna!
Gauzen erran nahi barnakorra ezagutzen ez baldin baduzu,
zure izpirituaren baketzen akituko zara debaldetan.

Zazpi haurreko familiakoak gara, hippy aroan Euskal Herrian anitz entzuten eta kantatzen zen abestiaren antzekoa. Gure aita ordea, ez zen arotza, baizik eta nekazaria, batera heldu baita azkenean, ongi pentsatzen jarri eta. Guraso bakoitzaren aldetik zazpi ziren. Aitzineko txaboletan berriz ere zazpi. Bigarren milurtearen bezperan zazpiehun kideko tribua osatzen genuen, erdiak lapurtarrak, laurdena nafarrak eta gaineratikoak ipar zein hego amerikarrak. Biarnes eta menturaz gipuzkoar odola darigu zainetan halaber. Bizkaia, aipatu gabe noski Araba, agian urrunegi geratzen zen vasconum limes hain guretik, gurutzamendu genetiko aberasgarrien obratzeko. Hargatik, ez dut erraten gertatu ez zenik: genetika, jende izpiritua baino askoz irekiago baita, beharrik! Azaltzekoa dut bururatze-

ko, tribu horren bi herenak Erreformaren mendean Joana erreginaren zerbitzari leialak izan zirela.

Tribua moldatzen dugula azpimarratzen dut, mundu zibilizatu honek antolaketa sozial hori preseski gaitzesten duenean, tribalizazioa erranahi negatiboaz apainduz: globalizatzen gaituen kontsumo gizartearen aurka doa irudiz tribua, hautsia, anitza, ele lauduna, purruskatua, gustu ezberdinen artean beti urratua. Bitxiki supermerkatua da guretzat tribuen ezabaketa obratzen duen toki sinbolikoena; erosketak eta erosketa ahalak kontsumo gizarte arraren kide moldatzen gaitu eta galduak suertatzen gara bat-batean: garaipen erraldoia. Karriota betetzen da, mukurutzen astean behin, eta pagatzeko orduan herrokan jartzen, karta bankarioa eskuan nixtan, ahalaz agerian: eguerdiko bazkarian zer kozina kezka bakartzat daukan jendearen erdian, tribukideen arrotz izaera usna daiteke. Ezaugarrien higatzeak eskizofreniko bihurtzeko arriskuan jartzen gaitu. Duela ez aspaldi adibidez, supermerkatuko gasnategian nengoen zerbitzari andereren aiduru, hoberenetik manatzeko prest; lerro-

buruan egonagatik, frantses puru eta eder batean mintzo zen gizon heldu berria zerbitzatu zuen, xuxurlatuz eni, ezpainak ximur:

–Zaude, badut jende hemen!

Gaitzitu erre nintzen, lehentasuna alde neukalako eta gasna euskaraz eskatzeagatik, tribuaren hari hautsiaren ondorioz neure kontsumitzaile eskubideaz ere desjabetua izan nintzelako. Burua ahalkez plegaturik gero, jende ez nintzenez ba galdezka, ttume-ttumea gasna puska hartu nion, isilik eta mutu, goraintziak etxera ozenik ahoskatu gabean. Kexuaren arintzeko psikoanalista on baten beharra neukala kolpatzen nuen nirekiko, etsia. Eman nuen denbora alabaina, bilo frisatu berriez harro zegoen emaztea, santsana eta bere nortasunaz ni bezain ahalke zela ulertzeko eta frantses egoki haren aitzinean baliatzen ninduela, ihalozka eroaten ninduen arkaismoaren lohitik atera zela frogatzeko. Norbera baino inutilagoen premia bada beti.

Erresumin izpirik ez daukat ordea, tribua osatzen genuela ardika, ardi deizten eta amarekin gasna ontzen iragan uneez gogoratzen naizela-

rik, batez ere demagun supermerkatuan suertatuak erlatibizatzeko. Etxe gehienetan bezala gurean, ardi lanak haurren gain ziren: eskolara joan aitzin eta eskolatik landa, ardika abiatzen ginen, oinez edo bizikletaz, txokolate kankaileko ogitartekoak irentsirik. Han hara... Usu zedarrietara! Zenbaitetan, aroa eder zenean, anaia edo ahizpa txikiak gurekin etortzen ziren, eta malkarretan gora huxtuka, meno no no no oihuka genbiltzala, haien zango irudiz ahulen ibilera ikusgarri zitzaigun. Taka-taka, marmarka eta pentoka erditan jadanik negarrez nahiz hasperenka: noiz helduak gara?

Ardiak esnetzen zirenean, neguko euri egun laburretan haien bila joatea hunkigarrien zitzaidan: ile kizkur luzeak lokaztuak zituzten gaixo kabalek, marrakek auhenen ozena zuten eta ardien urrin mikatza, euriarenarekin nahasten zen bideetan, hatsa haien ahoetarik lurrinduz. Urteak aurreratzean, zedarrietara iristean abiltzen ginen: zakur erdi basa, igortzen genuen ardien biltzera; patar zolatik oihu egiten genien, eta bulta handiaren buruan, ardiak jausten ziren tarrapataka, bata bestearen ondotik, gure deiei

ihardetsiz bezain zakur psikopatak izuarazirik. Anartean, lurrean ttottotzen ginen, historiako kurtsoak ikasten, badakizu «nos ancêtres les gaulois...» marmaran, ipurdiak karroindatu arte. Nehork alabaina ez zuen sekula gure erako artzainik ikusi, ardika ibilki irratia edo liburu bat eskuan. Auzoek trufa merke zutela eranstekoa dut. Arrazoiekin.

Ardiak bidean lerroan zebiltzan gero, autoen pasaiak trabatuz eta pentze irekietan, belar berdez asetzeko, edo kartierreko arditegietan korbeetan behera dilindatzen zen soro idor nasaiaz bazkatzeko, trumilka sartuz. Are laster gehiago egiten genuen orduan, gure ardi ñapur mehakoila gosetien handik jalgitzeko, alorren jabeak ohartu baino lehen. Artzain higatzen ginen garaietan, ardiak ardura auzoen funtsetan atxikitzen genituela sala dezaket egun, lasterka, jostatzen, idazten, irakurtzen edo ametsetan galtzen ginelako. Fama txarreko artzainak ginen argiki, ardiekin hola, inguratzen gintuzten jendeekin nola, larderia eskasekoak oroz bat. Aita, Pierresekin mintzatu zelakoan goizeko mezatik landa,

angelusaren tenoreko zazpiak, ardurenean erasialdi galanta bildurik ginen.

Eskolako lanetan hasi aitzin, ardiak deizten genituen; batek kortean begiratzen zituen, xehela zabal eta herts, beste batek ileetarik tinkatzen, beste bi kuxkurturik lurrean, kotxua ardien zangopean pausaturik, ari zirela zirrizti-zarrazta melodikoan deizten. Ardi errape laburretan lerratzen, eskuak agudo akitzen zitzaizkigun, baina esnearen xirripak kotxuaren bazter metalikoa jotzen zuelarik sortzen zen musika zinez eder kausitzen genuen, haguntsua eta bakarretan, kakailaz hanpatua. Basakiro, gutariko zenbaiten ontziak erorarazteraino ardiak ostikoka ari ziren. Ardia ñapurra izateaz gain, arras neurastenikoa ere bazela froga nezakeen.

Gaur egungo arrazak nolakoak diren ez dakit ordea: deiztegietan kokatzen dira xume-xumeki, muturraren pean zaldalea ketan sentitzen duten ber. Manex motakoek, hobekuntza genetikoa dela medio, errapeak handiagoak dituztela entzuna dut nonbait eta makina zurrungatsuz deizten ahal direla. Aitzinamenduak behar du naski guztien zerbitzuko. Mendeko ardien bilakaera

bera bizi izan dugu: bakardadearen edo desohorearen beldurrak kateztaturik, saldoan goaz lanera, supermerkatuetara, bilkuretara, alde bateko zein besteko pentsamendu bakunetik kanpoko gogoeta propiorik ez daukagu, eta beti, dena birindika aurtikitzeko jaidurak menperatzen ditugu. Fedeak, lehiak edo etxeratzean gauaren minean irensten dugun gasna zatiak lobotomiaren ondorioak eztitzen dizkigu.

Ez naiz «indar basatiaren» nostalgikoa. Alderantziz. Badakit Indarra gure artean dagoela, gure harremanen berme, gure aditzen mutuarazle, ahulezia gaitzesten dugun garaiotan: nola uka hori? Hala eta guztiz ere, maiz, begiak irekirik eta zorigaitzez non-nahi jaukitzen zaidan basamortu gutiziaren eta haurtzaroan nintzen artzain ameslariaren oroitza nigan josirik susma ditzaket; mundua kudeatzen duen indar itsua, besterik da bistan dena. Egoera horretan naizelarik, aski dut bide ertz bateko pentze aberatsetan artalde bat alhan ikustea, baketzeko; orduan, orlegia zuriz ttittatzen duten ardiak ortzaiz eta leihor urrun desiragarri zaizkit. Askapen mugak. Balizko gero mehatxatuaren iragarleak.

Gehiago dena, ohartu gabetarik kasik, ardiak mila bider eta hamar mila moldez jartzen ditut potretetan, familiako argazkiak hartzen dituda-nean; borobilean daudela euri bezpera sapa eta gohatsuetan, nahiz lurraren azalean desordena-tuki ereinak, zenbait bakarka beren bildots sortu berri bustiaz segituak, ardiak zoom baliosaz ga-tibatzen ditut. Ni baino Izpiritu jakintsuago batek hor «sakrifiziorako tirria hilgarriaren» ikurra aurki lezake, beharbada beste arazorik ere. Bego... Eta noizbait hegoalde haizetsuko mor-tuetan nabilela, galtzarpa sorbaldan zintzilik da-ramaten artzainen inmaterialitate hurbilak, za-kurra saihetsean, makila eskuan, bost edo seiehun ardiko saldoak zaintzen mirets ditzaket, bihotza hunkiduraz apur. Ikuskizun horren al-dean, Hollywooden asmatu aurrekontu animale-ko ekoizpenik ez dezaket estima: halatan ez dut oraino ulertzen zergatik behar den Ryan solda-dua absolutuki salbatu!

Tribuagatik ez dut ikasi.

Bideak ez du deus eskasik, espazio zabala
bezain itzalgabekoa da, ezer ez da hartarik kanpo geratzen.
Gauzak onartzen edo ezeztatzen ditugunean,
ez gara behar bezalakoak.

Barda arratsean kanpoan nintzen, hegoak egunaren barnean elurrak sakonegi ferekaturik, hotz buhatzen zuela, ene gorputzeko hezur sukartsu guztiak daldararaziz. Aspaldikoan gurutzatua ez nuen kide baten autoan nenbilen, eri nintzela errepikatzen.

–Jakin behar da nork bere buruaren gerizatzen!

–Bai, baina besterik ezin denean... –eten nuen solasaldia, eztulka eta ahotsa apalik, asteko hirugarren elkialdia neukala ordukoa oroituz.

Ez nion aitortu naski, sukarrak, marrantak eta zintzurreko minak baino gehiago kolpatzen eta lehertzen ninduela, inguruan nabaritzen eta molde berezi batez, ene txandan, jasaten nuen herra arruntak.

Gau hartan, uretan errauts urtu erremedioak hurrupaturik, hozkailuaren atea bulkatu gabe, oheratu nintzen. Ez zena bada etsipengarria hein horretara heltzea? Zena zela, biharamuna lanean eta bitxiki, etxean garbiketa egiten gastatu nuen, pausa une batean *Egunkaria* bipiltzean harritzeko iragarkia kausitu arte: «AROBERRI batasunarekin ongi hiltzen ikasiko duzu; ikasgaiak edozein adinetan har daitezke eta zure herrian zentro bat badago! Dei iezaguzu laster...» Herioaren tentazioa bigarren larrutzat kontsideratzen nuen egoeran bide hobeagorik aurkituko nuena? Iragarkiak heriotik bizirik ateratako jende batzuen argazkiak agertzen zituen eta arrapizturik zoriontsu zeuden zirudienez Jean Pierre, Elisabeth eta Cheyenne. Gaizki bulta saihestuz, irri sarkastiko batez askatu nintzen, bi urtzain oparoz izparringiaren orrialdea mikrobio ttanttaz ziliportatuz: atxix!

Erratza bertan utzirik, egiaz garbiketa ez zitzaidan batere laket, astebururako ahalezko ideia horren partekatzeko, Mairos alegerari telefonatu nion lanera.

–Erran Mairos, benturaz, ez huke hiltzen ikasi nahi?

–Hik gaua airean iragan dun oraino –asmatu zuen zuzen, mentsa eta salbaia nintzela erantsiz.

Ez nintzen durduzatu, bezperako gorroto zamaz hustu behar nuelako lehen baino lehen.

–Hirian ikastaldia antolatzen diten, eta ontsa lukeen biak joaten bagina hara. Berrehun libera asteburua; merke, ez? Bi egun oso. Arratsean ostatuz ostatuko ibilaldia biribilkatuko dinagu, eta izpirituz lasaiturik itzuliko!

–Azken aldian –hasperenkatu zuen erresumin Mairosek– energia kosmikoz hantzera abiatu eta sexu-ihalozka ederraren erdian harrapatuak izan gaitun. Mesfidatzen naun hire xede intergalaktikoez, baina banatorren baiki.

–Ez ote zaunan gustatu –zirrikan ninderraion, aditz trinkoez abusatuz– aitzinetik eta gibeletik energia lekedatsuz uhinka hantua izatea?

–Partikulazki gibeletik, pentsatzen ahal dun! Itxuraz hiri ez bata ez bestea, xoxola halakoa!

Mihiari isilunea zilegitu zion. Segitu zuen:

–Baietz eman itzan izenak! Gonbitatzen naunalakoan, ez baitut bestela gogo izpirik bizi naizeno hiltzen ikasteko.

Edozein lekutako mateletan mila pot pausaturen nizkiola, oihukatuz agurtu nuen Mairos, larunbaterako hitzordua finkaturik, eta urtzain! Aroberri elkartera deitu nuen jarraian, bi tokiren erreserbatzeko: ahots melengarekiko andre batek hartu eta onartu zuen ene demanda, lotura intimoak sortzearren gaua taldean iragatekoa zela gogor azpimarratuz. Ez nion deus ere erranen Mairosi, egiazki tristatuko zelakoan. Bizkitartean biek, ondare bihiken antzera, xume eta purruskatsu, zentasunaren baheetarik isuriz soilik izaten ikasiko genukeen.

Hozkailua ireki eta gasna xerra bat brast! ebaki nuen, gormandiza hutsez, zainen jabaltzeko segurki eta behingoz zoriontsu. Hiru eztul gordin. Garai hartan irautekotan energia berezi bila genbiltzan: arratsalde zientifikoetarik landako gaualdiak, ez dakit nongo mahabarrataren mantrak errepikatuz higatzen genituen, zangoak, besoak eta gaineratikoak zintzilik, iturriak eta indar ezezkorrak agortu arte. Futxo bidenabar nahi

nieke euskaltzain jaun-andere txit agurgarriei eskaera zehatza luzatu: zuen junta hurbil batean, alu pitilin setio egoera saio horientzat euskal ele polit bat asma zenezakete? Haragizko lausenguentzat, erran gabe doa, neologismo bat edo ajeak ito erdarakada lizun bustiak onets nitzakeela.

Huts handiak daude gure hiztegietan desiraren lurrutsa ahoskatzeko nahikundea tente altxatzen zaigunean. Alabaina, Azkue, Landa, Lafitte eta Casenaveren hiztegiak, halaber Sarasolaren *Orotarikoa* deritzona, miazkatu ditut anitzetan, debaldetan. Hitzak ez dira falta noski, baina direnak itsusiak kausitzen ditut, eta ez baldin badugu gertakari sentsual horien izendatzeko solas positiborik atzematen, mundu kosmikoaren plazer linguistikoaren zurrunbiloetarik baztertuak izatea arriskatzen dugu. Pentsatzen dut halatan Bourdieurekin batera alorrak alor direlako, Iparraldean, ardi hazkuntza eta euskal kultura biak uztarturik eratu zen Hizkuntza Kontseilu berriaren lehen zeregin urgentea, sexuaren ele baikorrak euskaraz bideratzea litekeela, diru publikoa erabiliz bistan dena, Estatu erraldoi eta maitaga-

rri baten herritar garenaz gain, zor zaiguna alainan!

Kontsiderazio filologikoetan murgildurik nintzela, telefonoak jo zuen. Mairos zen preseski, haguna ezpainetan behera zeriola, azken asteburuko oroitzapenak zerrendatzen zizkidala. Ez zuen kezka linguistikorik hark eta hatsanka zen.

–Bazekin gehien estimatu nuena zer zen? Egurra nola, gogortu zakil bat ipurdi zulotik barrandan, eta euri ondorengo oihan zola bezain mardoa zen ahoa, ene aluan milikari: uhar nindunan ni ere.

–Mairos, uste duna, eguerdia, hire fantasmen herrokatzeko ordurik egokiena dela? Bazkaldu eta gasnaren jaten ari naun, kafea berotzen jarririk.

–Hik dunan sexu harreman bakarra gasnarekin delako arras konplexatua haiz. Esbadi hadi amiñi bat. Akelarretan, irudiz herabe, hegian egoten haiz, gin-kas edaten, mozkortu arte. Relax!

–...

–Beno! Larunbatean hirekin heldu naizela berresteko zunan! Txao.

Mairosen oharrak gaitzitu ninduen; eta bai konplexa nintzen, beste jendeek bezala konplexatua, ez gehiago, ez gutxiago. Hargatik, nonbait egia hutsaren aditzea ez zitzaidan eder: bakoitzak eraikitzen zuen bere aterpe bizigarria, onargarri zitzaizkion gezurrak teila gisa erabiliz. Norbaitek aski zion etxeari ostiko bat ematea, halako segurtasun ezaren sail ezezagunean behera lerratzen hasteko. Gasna puska, zakar ontzira aurtiki nuen haserrez, behin-betiko zilborheste latza suerta zitekeen keinu bortitza marraztuz: gauez ibiltzea laket zitzaidan, karrika ilunetan maita nezakeen gizonaren edo emaztearen usainetik eta isilik segitzea, egunerokotasunak asmatzea, amodiotan ere ene haragizko existentzia ukatuarengatik espazio-ez mineraletan larrua jotzea.

Zernahi ikas aitzakiaz aldiz, aztalkatzen genituen sexuaren hipermerkatu argituetan, bitrinetan, xerrent beha geratzen nintzen: ekintzaren aldaera eta tresna guztiak entseatu ondoren, ordainlekura heltzean, nork baino nork orgasmo intziri erraldoiena eta entzungarriena botaz lehiatzen ziren. Atsegina, erreusitzearen seinale zen.

Mairos orduan, azala daldaraka, ur malguak ate orotarik isurtzen zitzaizkiola, ostatura hurbiltzen zen eta musu bat pausatzen zidan, gin-kasaren hormak karroindatu neure ezpainetan.

–Berriz ere mila esker! Ezkondu beharko genikeen...

–Bai zera!

Sigi-sagaka bere zeldara bazihoan gero, aingeru irriñoak begitartea apaintzen ziola. Handik laster, haren urratsetarik abiatzen nintzen, energia atomikoz bitxiki errendaturik ni ere. Formakuntza egunetara joatean, hiri erdietako ostatuz ostatuzko kalbarioak debekatuak zitzaizkigunean, alkoholaren menpeko izpirituaren amore ematea bilatzen nuen. Anitz gauza balios ikertzen genituen hargatik: makrame ehuten, Zen egoten, G puntuaren lokalizatzen, tindatzen, tantrak pairatzen, estraterrestren keinu hiperbolikoen irakurtzen, trikotatzen eta josten, pastetxak adelatzen, elkarteen alde juridikoen sakontzen eta zergak ez ordaintzeko baliatzen, diruaren baztertzen, telegarraioaren eta DVDaren teknikak ikertzen, WAP erabiltzen, gorputz lesbiana aztertzen, self-defense saileko irakaspe-

nak praktikatzen, goiztiriak filmatzen, txinatar medikuntzako jin eta janekin moldatzen, Bibliaz eta ekumenismoaz jabetzen eta zizken aurka borrokatzen besteak beste. Larunbatean, zentzen...

Lasaitu nintzen eta zakar ontzian hauts zegoen gasna zatiaren eskuratzeko tentazioa eduki nuen. Garbitasuna lehen zela eta pentsatzea zein ez-pentsatzea atzeratzea erabaki nuen, bizitzako une bakoitza herio txiki ugariz azpiltzen zela sinestera heldua nintzelako. Hilotz ibiltariak ginen egia erran eta zenbaitetan usteltzearen urrin zizkolatsuak azalean zintzilik genbiltzan. Artean argiki lo eskasez eta mafrundi nengoen.

Klask ontsa bizitzeko bidean.

Atxix!

Ez ibili kausaren menpe dagoen mundu jasailearen gibeletik; gertakariak baztertzen dituen Hutsean ez gal denborarik. Bakunean, izpiritua bakean baldin badago, binakako ikusmolde horiek berez desagertzen dira.

Ezin loak har eta, gauez anitz bidaiatzeko suerte handia neukala aitor dezaket jadanik: Euskal Herri osoa Gasna Bideaz zeharkatua zen garai haietan biderik hoberena zen etxeratzeko, botere publikoek euskalduntasunaren zigilua zekarren urrakoa erabilgarri eta egoki izateko gisan bereziki zaintzen zutelako. Gasnaren Bidea zeritzona gure kulturaren ardatza zen dudarik gabe. Zeruan, Txina aldera behatuz, ikus zitezkeen konstelazioen zapartek hazi argitasunetarik soa lurreratzean, erdara soilaren hizki zuriaz idatzi eta larrazken kolorea zeukaten seinale hunkigarri haiek agertzen zitzaizkidan. Eta nik Bidea baliatzen nuen bere hedadurarik handienean bistan dena, Saratik Atarratzeraino, Oskaxen gaindi pasatuz.

Bilkurak ardurenean gogorrak baldin baziren, are neketsuagoak naski Euskal Herriko xendak, bihurgunez bihurgune, basurdeak, azkonarrak, orkatzak, hontzak eta kahakak, zaldiak eta ardi saldoak ustekabean gurutzatzeko arriskua zegoelako. Bakarretan kaputxaz gorde iragarki-kolatzaileak, lema hormatu marrazkilariak edo polizia armatu kontrolak harrapatzen nituen eta ziuntan urruntzen nintzen. Bat-batean, behialako batzarraren zailtasunak ahanzten ziren, Gasnaren Bideak eskain zitzakeen gertakariei adi geratzeko: kontuz hi! Eta oraino, xantza banuela sinets nezakeen, autoaren ezinaz eta kabalen errekontuekin batera, ez zitzaidala sasietan trebes har malats moldeko estraterrestra larderiatsuz hanpatu aireko bietan supersonikorik jaukitzen. Pentsa ezazu irakurle ene orduko izua! Estraterrestrak ere, eztiak maite nituen.

Behin hola, bidean nintzela, uda mineko galerna ari zela kanpoan, beribilez etxerakoan, ametsetako lukainketan zintzilik, bi zamari, bata zuria eta bestea beltza, agertu zitzaizkidan faroen eremuan. Preseski, Tamerlanen anker ospea handitu zuten abere horiez ari nintzen murmuzi-

kan, noizbait, misterioz bastatu ipuin bat idaztekoa nuela, abesti bat, nobela bat zergatik ez, gaia zabala zenaz gain, dena horrelako istorioa zozo bidearen irensteko, eta hor hara, ingurada latzean, bi zaldiek ene buru muina inarrosten zutela! Gelditu nintzen. Beso zainak ximikatu eta begiak torratu nituen: zaldien itxurak zirauen! Egiazkoak ziren. Alta, txikitatik, gasnaz, artoz eta leiendaz aserik agerindea zela baimentzeko prest nintzen, Mari jainkoa ziztu bizian, munduaren hegitik hegira eroaten zuen behor zurpail haren mirestea espero nuelako sekretuki. Haragizko zaldi errebelatuen ordez, Mari atzeman baldin banuen, ene gauerokotasun zarpaileko zilarrezko unea zatekeela diotsut benetan. Bego horretan.

Mari eta Morgan izeneko lurraren zinezko jabeen ildotik, bila eta bila, gauak gauari, ahari kankailak aharrausika baztertzen, navajo jendeen Benedikazioarena bezain mistikoa zen Gasnaren Bidetik aitzina beharra nintzen. Zenbaitek Graal boteretsua xerkatzen zuten, nik aldiz abere mitikoen ikuskizun arras primitiboa, nintzen bezalakoa funtsean. Gehienetan, ardi ma-

rrakez eta ipularretan eraiki lekuan lekuko uzta saltegi hutsen presentziaz kontsolatzen nintzela aitor dut. Ez nuen hargatik etsitzeko arrazoirik, haurtzaroko sutondo zokoetan entzunik neukalako, herritar bakarrek, ur karroinduaren ezpondetan, goizalde arrosa batez, andere zuria, bere urrezko orrazeaz ile apaintzen kukuzkatu zutela; egiaz bazukeen aspaldi, ezen gaur egun andere zurien partez, ibaiak zikinkeriaz, urde pizorrez eta hondar industrialez mukurutuak baitaude.

Gasna eta ardiak bake zerbaiten ereduak zirela erran dut nonbait, eta uste dut, gaueko auto-delirio paranoikoak salbu, produits fermiers horien erosleei eskaintzeko altxatuak diren bideetako txabolek halaber, menia molde bat ekartzen digutela udatiarren sasoia hurbiltzen zaigularik. Alabaina, gazte ginenean, turismoaz bizitzeko ideia bera, euskaldun jatorrarentzat bekatua zen, beniala baino gehiago, mortala; bekatuaren kontzientzia ahultzen zihoan heinean, mortaletan mortalena. Halatan, ikastolaren alde luzatzen ziren berrehun metroko edangi miragarrietan bizkarrez bermatuz genioen goraki:

–Turismoa ezin da izan gure herriaren garapen sail bakarra!

–Ez horixe! Sala dezagun *Dena Turismoa* egokitzen diguten politika arbuiagarri hau!

–Nahi duzue beste kalimotxo zarratada bat?

–Bota!

Hesteak kiribilkatzen zituen edaria manatzen genuen, harro, solasean oraino, «gure ekinaz» korrontearen aurka gindoazela azpimarratuz. Hautetsiek eta hauen mutilek errepikatzen ziguten orduan, ahoak eman ahala, Euskal Herria ez zela nasaiki sustatu eta apurren moltsen onerako metodikoki planifikatu Turismorik Gabe Bizitzen Ahal. Kuia buru, tripa handi, bixar moxtun gizon ospetsuek gero, ezpainak irekitzen zituzten, gazia eta azukrea biltzen zuten petits fours eztien arraposki zintzurreratzeko, arrada bete ricard basoari fermuki zetxezkiola. Gizon haien edari estimatua hurrupatzearen eta nehoiz sekula deusetara helduko ez ginen gure oinarrizko militante nahasketa likitsen sabeleratzeko ohitura zakarraren arteko arroila, kolonialismoz azpatua zen. Egiaz, garai hartan, Seaskaren sostenguzko atorra bat baizik ez genuen saltzeko.

Gauzak agudo aldatu ziren Kamarada! Halatan saltxitxak, haragi karioak, xingar azpiak, errietak, txorizoak, lukainkak, tripotxak, pateak, ezti-ontziak, arrautzak, antzara- eta ahate-gibelak, oilaskoak, xinaurri erreximentak, zizareak kintalka, matahamiak, gurinak, gaztanbera eta gasnak metatzen zitzaizkigun, Herri Urratseko kamiseta ugariez gain, erosteko ahalmen finkatua zuten jendeei «oparitzeko». Ondorioz turismoaren kontzeptua eraldatu zen eta bakea izenpetu genuen udarekin, nahiz eta kontzientzien baketzeko literatur edo kultura obra batzuetan turismoa gogor eta gordinki salatzen jarraitzen genuen: arrotz erdaldunen diru trukean zerbitzatzea prostituzioaren parekoa zela agertzen zen; sakelak arditez beteak eduki arren, euskaldunak eskuak beti garbi atxikitzearen ilusioa bere desiratzen zuen.

Behialako edangi edo büveta izugarri haietan gurutzatzen eta mintzatzen genituen asko plantatzen ziren hogei urte beranduago, gauez huts zeuden bide hegietan jazartzen zitzaizkigun saltoki prekarioen itzalpean edozer saltzen, uda mineko euli beltzen zurrunga lagun. Politikariek,

gureek barne, H delakoa azken modan ahoskatuz, Herriarentzat jagoitik garapen globala eta globalizantearen premia proposatzen zuten, petits foursez asetzen segituz bistan dena: bideak zuzentzen, bihurguneak ezabatzen, seinale elebidunak orokortzen eta dirulaguntzak banatzen, demagun, esnea gasna zezaketen nekazariei. Euskal «gizarteko» sektore gehienak, horrela hitz egiten genuen engoitik, biltzen ziren batasunik leunenean, lanerako eta prentsan agertzeko.

–Nahi duzue Kultura diruzta dezagun?

–Ba bai –ihardesten genien–, ordu da ba!

–Petrolioaren prezioa apalaraziko dugu ondorioz...

–Ontsa da, erranen diogu.

Salmenta mahai ekiztatu batean, gasnaren perfekzioaren miresteko suertea noizbait agitzen baldin bazitzaigun, gaitzesten genuen aitzineko kolonialismoaren apaindurak, ekonomiak, politikak eta ikerketa zientifikoaren aitzakiak josten zituela argi zen. Erakundeek eta instituzioek ordaindu chargé de mission parrasta bat pasatu zen gure lurretarik, hizkuntza zakar eta handikapanteena zeukan kultura horrekin zer asma az-

tertzeko. Zaharretan zaharrenak elkarrizketatzen zituzten, eguneroko kultur ekoizleak, erabakitzaileak eta kudeatzaileak.

–Euskal kulturaren ardatza laborantza da –zioten guztiek aho batez–, partikulazki artzaintza, avec la langue basque qui lui confère une certaine authenticité, si ce n'est une authencité certaine...

Baina mintzairak eman zezakeen autentizitateak ez zuen nehola ere unibertsaltasuna ekidin behar eta euskal kultura euskararik gabe plazaratzen ahal zela ondorioztatzea erdietsi zuten jakintsuek, beso zainartak, ginarretako doloreen eta esku ahurretako katx odoltsuen beldurrik eza zen ber. Harri batez bi zozo ehoz, hautetsiei nahikoa zitzaien laborantzaren subentzionatzea, Herriarekin eta Jainkoarekin bakean jarduteko.

Halatan, garapen orokor orekatuaren ideiak ekarri gintuen turismoarekiko gure harremanen berrikustera, gasna metak, mutzitu baino lehen, saltzea helburu: kalitatea goresten genuen, mundializazioaren aurka derrigorrez borrokatu beharra, turismo abila eta pragmatikoa, uztail agorriletan, neguan ate hertsian IK pintada zeka-

rren txabola ederki hornituak eskainiz. Gasnaren kultura neo-liberalismo basatian finkatzen zen funtsean, gasna hoberenen txapelketak antolatuz eta labela biltzeko hil arteko lehiak muntatuz: geurean geureena zen pentsamendu bakun horrek ere bere sareetan harrapatzen gintuen, lizunki. Eta noski, zehaztu turista inteligente horientzat, aitatxi-amatxi ezinduak xoko batean ezarriz, hauen erretretaren sosarekin alabaina, etxaldeetan, gite ruralak irekitzen ziren, ferme auberge eta camping à la ferme anitz. Xaharrek gazteen sendiak zazpigarren belaunaldiraino madarika zitzaketen, baina dirua isurtzen zen, kontzientzia lasai eta produktu berriak ezagutaraziz.

Zer litzateke Euskal Herria Gasnarikan gabe?

Erretzen, berotzen eta hazten gintuen.

Ekintza gelditzen eta jasana mugitzen den
aldi berean, jasatea ekinago baizik ez da.
Mugimenduan edo jabalean geldo,
nola dasta Batasuna?

Bilkura biharamun lo hordi batez, gasna ninia zela eta viceversa entzun nuen, nik dakita zenbat unibertsitateetan irakasle honoris causa zebilen euskal ikerlariaren ahotik. Serioski mintzo zen. Ikasleak inguruan zoraturik zetxezkion. Paleolitiko politeko euskaldun zaharrek eta orduko berriek halaber, umeak gasnatik zetozelako ustea zeukaten omen. Saiatuko naiz berebiziko garrantzia duen informazio honen zehazten. Demagun, gizona eta emaztea, koltxoiaren pean juntatzen direla. Lehenagoko apezen metafora arinetan barna lerratzen naiz ohartzeke, zerbait onik bazuketen dudarik ez! Demagun, gizonak zakila eta barrabilak hanturik, emaztearen alu bustiaren zokoaren zokoan aterpea bilatuz, sabelera botatzen duen haziak intziri eta karkaraz dabilen arrautza bakartia amainatzen duela. Ha-

raitzineko sinesteetan, arrautzaren partez, esnea zegoen, irakin gabea, deitzi berriaren hagunez desiragarri. Esne ezti kutixiatuari, bere hiru zulotako txistuaz, arrak orrantza xortak eransten zizkion. Kimikaz baizik esplika ez daitekeen nahasketa horretarik, esnea gasnatzen zen eta bederatzi hilabeteren buruan haurra, gasna bezain samur, sortzen.

Jakintsua, miresgarritzat jotzen zituen bere eskuei faszinaturik begira, eleka ari zela, egoera ulertzen nuela iruditu zitzaidan: endelegatzen nuen adibidez zergatik gasna puska baten amoreagatik, gutariko askok beren aita eta amak eho zitzaketen edo haien mahaietako gasna entrebalekoa baino ez zelako auzoak erdeinuka apalets, fedeari bortizki uko egiten zaion manera berdinean. Behatzaileetan ziren erdaldun batzuk ezpainak harriduraz erdi zabalik zeuden.

–Ah ces basques –zioten puri-purian–. Quel monde! Qu’en pensez-vous ma chère?

–Ils sont capables de tout: du meilleur comme du pire. Et là c’est le meilleur je crois...

–Extraooordinaires –hanpurusa askatuz, begiak borobiltzen zitzaizkien, etxearen eta gasnaren arteko loturak goraipatzen aditzean.

Haurrak, zioen irakasleak, gasna ume bilduxeak alabaina, sehaska hotzetan sartzen ziren eta sutondoan burdinazko sareen gainean trebes, kerrena plast, itxindu gorriei eskainiak, idortzen jartzen, zilbor haria moztu bezain laster. Kanpoan hormak zuri zeuden goizetan, egiazko haurrak jaikitzen zirenean, sutara hurbiltzen ziren, gauean koteratu gazura zipoetan plistiplasta jauzika. Jakintsuak bereari ekiten ziola, gure haurtzaroko gertakariak zerabilzkidan gogoan: Hunkidura Kuttunen mugetan murgiltzen nintzen.

Euskal Literaturaren urrezko orrialdeak haur hotz aroko oroitzapen idatziz beteak direla kontuan edukiz, baten Pentze Gorria, bestearen Aihen Ahula eta azkenaren Amodio Urdin Paregabeak zerrendatzea aski da halatan, uste dut, adinean zohitzen noan heinean alor horretako kolko erraustuaren inarrostea zilegi zaidala eni ere. Neure memoria ez da ordea, usain eta harreman onez betetzen, ardi kakailaz hanpatu

gasnatzeko esnez eta hezur-klaska ozenez osatu artalde mehakoilez baino. Eskerrak gainerako idazleen hitzak anitzez ere «zibilizatuagoak» direla, dena bezperetako intsentsu urrin eta amarekiko maitasun sutsu: ez dira pagano basatiak eta ikastoletako haurrek horien perpausetan errespetuaren eta sanotasunaren derrigorrezko etsenplua hartuko dute nasaiki. Euskara ez dakit, baina molde horretako literatura oparoarekin Euskal Herria salbatua dela dirudit: iragana ahalik oneskien duplika dezagun, tradizioari den mendreneko ñabardura erorik ekarri gabe. Hemeretzigarren mendeko klona ideologikoak izatearekin aski zaigu azkenean.

Deitzi eta tarrapataka sukaldera garraiatu esnea furneoaren plaka beroaren gainean pausatzen zen. Gatzagia botatzen zitzaion, koilaratara bat eskas, eta uzten zen, haurrek eskolako lanak egin bitartean, kailatzera, burburaka eta ketan. Biderkatze-taula madarikatuak ikastean, bata edo bestea, amaren errabiarazteko, ontziaren ondotik pasatzen zen, jostari, gogortzen ari zen esnean behatza sartuz eta zuloak eginez. Ez dezaket erran orduan, Europako Laborantza El-

karteko arau higienikoak oro segurtatuak zirenik. Ez naiz fida. Badakit, apatz handitik irazki batean hedatu oihal mehar baten bidez, esnea ferblankazko pertzera iragaten zela. Noizbehinka jinen zen gasnari gustuaren emateko oihal hura asunez ihaurgaitzen zen. Oihalaren zolan gero zernahi kausi zitekeen: kaka pikor beltz biribilak, ardi ilatxak, eta deizteko unean, ilunetik argirako ibilaldian kalit harrapatu ulutxak.

Oren baten buruan, esnea ekaitua zen eta pasta hartan zilarrezko koilara zutik egon zitekeen. Ore hura genuen eskuz xehakatzen, purruxkatzen, errausten, gazuraren mendetik askatzen. Biderkatze-taulak gogoan iltzaturik, gauza seriosagoetara plegatzen ginen: gazura oretik bereizten zuen amak eta has gintezkeen gasnaren biltzen. Gaitzeko indarra behar zen zimitzaren barnean, ore mokor gotor haien kokatzeko, zapatzeko, tapalakaldi bakoitzean are gazur gehiago isurtzen zela. Ekinaren ekinaz eta esku ahurretako minaz, mirakuluz bezala, bi gasna borobil berde agertzen ziren. «Egiazko Opari» horiek zituen amak ostera, gau aldirako, supazterrean plantatzen, burdinetan berme, la-

ratzean biharamuneko ur bero tupina dilindan zegoela. Gazura, berriz irakinarazten zen, gatzagiz hornitzen, bigarren gasnaren moldatzeko, edo sinpleki, zakurren orugu zalapartatsuen artean, beti gose eta kurrinka zeuden bargo eta ahardi zaharrei eskaintzen.

Eta une hartan, nolabait biderkatze-taulak baino zohardiagoak ziren ene oroitzapen xoxoloek behialako jakintsuaren errana gurutzatzen zuten, irri bidetik delirio sardoniko horien atzean, egia zerbait izan zitekeela sinesteraino. Badakizu orduan gai franko aipatu zirela, antropologia, biodinamika, filosofia, pintura eta bistan dena, sortzearen misterioari zegokion azken aurkikuntza hau. Lehen aldia zen, gutxi ateratzen nintzelako agian, gisa horretako gauzak entzuten nituela: harritu eta lasaitu nintzen. Nornahiren etxeko mahaian gasna agertzen zaidan oroz, mekanikoki harrapatzen ninduen janiza erraldoiaren oinarriak non zeuden ulertu nuen: barrabarra hitz eginez gasna martzilikatzen nuen aldietan, nire erro nazkagarriak nituen agerian edo gordean atzematen, nire erroak eta nire filiazio biologiko zehatza.

Ninia gasnatik eta gasna ninitik. Betidanik gasnaren lortzea desafioa izan da; aberastasun mistiko horren ekoizpena lander guztien menpe egon da, lehen baiki, oraindik eiki. Kasu eskasez, eman dezagun, gasna itzul eta mindu daiteke, halaber hautsez edo harrez emoka, nahiz eta gasna-jale aristokratikoentzat harrekilako gasna, zintzurrean behera gargailaka abere molkoak lerratzen zaizkiola mustetan mustena den. Ez dezagun ahantz gasnaren antzeko niniak izan baldin bagara noizbait, laster batean gure haragia, eta haragiaren arteko hutsuneak betetzen dituen arima har gotorrez iraitziko zaigula, kaosetik kaoserako bidea, lurpeko izaki anemiko zurpailen lerroen balantzaren kulunkak zedarrituko digun bitartean.

Artzainek, bi film errodatu eta etxolaren ondoko mugarri zibernetikoa eguneratu artean, kaiolarretan, bortüko oletan eta borda erdi erorietan gasnak, haurren antza gerizatzen zituzten, beren izerdi eta isuri ezberdin gorpuztuak bailiran. Gasna-ninia kultura autentikoa zen, esportatzea merezi zuen bakarra. Harro izateko arrazoi on bat bederen ematen zigun. Urrunetik

gentozen autentizitate bila: ezpainetan ez baina, aditza hor zegoen bizi-bizia eta pilpiran, jangarri. Jakinez gainera, artzainek, haizeek erraztatu zelai goretako aterpeetan gasnak amodioz egiten zituztela, maitasun horren errautsak sabeleratzen genituen anorexia linguistikoak jotako kideok: itxuratzea aski zen, hitzaren libratzeko. Sutondoan elekari, anitzetan kantari, so kliska tximistatsu batez gerizatzen zituzten borobil zuri hazi berriak. Imajinatzen nituen ondorioz, egunean bietan, olaren hegaspeko taula luzeko aire zorrotzean, gasna bakoitzaren inguratzen, gazitzen eta esku-ahur lerdenaz garbitzen, maiatz bukaerako haize karroindatuak lagun.

Zati hau hasterakoan mintzaldian ederki aritu zen antropologoaren solasek, gauaren minean, gasna puska baten jateko gogoa piztu zidaten. Amaren sabeletik artzainaren olako aixolberako bidean, euskaldunak zinezko kanibalak ginela errepikatzen nuen: zer genuen guhauren ninien horrela ahoa beteka klikatzeko? Denbora kontatua zitzaiguna? Freud gure artean egon bailitzan, batere maleziarik gabe segurki, gasnaren funtsean eramaten genituen transfer guztiak

aztertuko zituzkeen, non ez zen hura berdinki gasna sobera irentsiz mutu geratuko!

Kronosek baino ez zituen bere haur propioak irensten.

Eta Kronos zatarra gure aurka zegoen.

Baldin eta Bidearen osotasuna ulertzen ez badugu,
mugimenduak edo jabalak hutsegitera garamatzate.
Gertakariari urruntzen baldin bazatzaizkio,
honek itotzen zaitu; hutsa bilatzen baldin baduzu,
gertakariari bizkarrez zagozkio.

Joanes Balantsun osagarri handiko artzaina zen. Maiatz hondarretan, astoaren kalixtroak mukuru beterik, bortura abiatzen zen, ardiak aitzinean, zintzarriak zohargi airean, hiriak eta herriak zeharkatuz. Begien bazka hanpurusa zen, ederragoa oraino, denek Balantsun deitzen genuena kantan entzuteko aukera paregabea, edukitzen zenean. Dagoeneko bazterretan badira gizonaren ahots argiaz eta honek berak ondu abestien uhargiaz oroitzen direnak!

Auzoek, errientak eta apezak nola ez, txikitxikitandik ezagutzen zuten Balantsunen dohaina. Apezak partikulazki, horrelako botzak Jainkoaren laudatzeko balio zuela iritzirik, Balantsunen etxekoak balakatu zituen, mutiko koxkorraren Larresoroko seminariora igorrarazteko. Ordea,

zazpi haurreko familia hartan jadanik lau apezgai baziren, eta bi neska, zaharrenak, Angeluko Servantes de Marieren komentuan sartuak. Balantsunen aitak, errotik fededuna izanagatik, semearen beharra zeukan artzaingorako, egoera ikusiz agian Jainkoak baino gehiago. Halatan, bere talentu guztiekin, mutikoa, ardiekin, kantuan bezainbat trebatu zen.

Bigarren gerla denboran, Alemanian gatibu egon zen, gune librean bazebilen okupazio armadako buruzagiekin aitak akort eta apart egiten zuela, premian gasnak, ogi zakuak eta oilasko panpoxak Fritz anitzei oparituz. Balantsunek aitaren tratuez ez zuen nehoiz ezer jakin eta Stalag IV B hartan nola, hala erresistente fama erdietsi zuen Liberazio biharamunean. Ez zuten segur Balantsunen etxean mendekuz biloak mozteko emazterik, eta aita aspaldian kasko pelatua zen. Zena zela stalagean, presuner lagunak herriminez hantu abestiekin loriaturik uzten zituen Joanesek, hainbat non pribazioak, ondoko aterpe hertsietarik zetozen haragi erre usainak eta zaindarien bortizkeriak ahanztea lortzen zuten. Etxegorri bikarioak ez zuen Balantsun go-

gotik galdu haatik, Eskualzaleen Biltzarreko bazkarietara gonbidatu zuelako aldi oroz, gerla bukatzerakoan. Bortuan edo arditegian ez zegoenean, Balantsun publiko aurrean zen, eskuak gerrian, zango bat zuzen eta bestea plegaturik, txapela buruan trebes, Euskal Herriaren eta Euskararen amodioz zartatzeraino hanpatu testuak eskaintzen. Tradizionalak –odolaren, arrazaren eta izenaren garbitasunaren ideologia lehen jartzen zutenak– eta moderno zaleak –gerla ondoko Hegoaldeko errefuxiatuek ekarri kultura herrikoiaren maitasuna txertatua zeukatenak– konformismo berdinaz zoratzen zituen.

Germaine ostatu batean gurutzatu zuen eta hutsik kometitu gabe, harekin ezkondu zen Balantsun Jainkoaren fedean, nola ez, lau apez familian ukanki. Biek bost haur altxatu zituzten, enfin biek, Balantsun, arrakasta handia zeukalako ez zen usu etxean, lana Germaineren gomendioan egon zela erratea egokiago litzateke naski. Osaba apezak igandeetan, arratsaldeko bezperak emanik, sortetxera etortzen ziren, haurrei Biblia Sainduko istorio harrigarriak kontatzera, beren apez esku xuri potoloak txirikordan eta ez-

painak makur, bekatorosen magma ahalkegarria hoztearren miserikordia deituz. Sanson eta Dalilaren pasartea mahairatzen zenean, gasna irensten zuten apezek, behatz gotorrak gerezi konfitura ontzian deblauki sartuz. Aita ausentearen partez, Balantsunen bost ondokoek lau aita kanoniko zeuzkaten: ez ziren galduko.

Osagarri handiko izanagatik, noizbait hil zen Balantsun, bihotzekoak emanik, supituki, publikoaren agurtzeko astirik gabe. Euskal Herriaren alde batetik bestera dolorezko auhenak hedatu ziren. Lurraldearen sei hegaletarik, kultur munduko Ospetsuak etorri ziren Balantsunen ehorzketara, prentsa idatzia, ahozkoa eta telebistako kamera bat segitu zen hilerriaren erraztatzen. Etxegorri bikario ohiak, ez hain aspaldi kalonje izendatuak egin zuen predikua, herriko haur koruak, artzain-artistak moldatu kanta deiadarkatzen zuela.

–Zuk utzitako tokia nork beteko du? Zure sanotasunaren lehiaz dabil mundu hau eta partikulazki, Heskual Herria. Atxiki dezagun *heskualdun* odola garbi, eta hor gazteei mintzo naiz, hobe duzue hilik, kanpoko usaia likitsek kutsaturik

baino, zioen kalonjeak goraki, haur mukuzu baten maxtikatzeko pasta borobil arrosak, aho artean zartatzean, hausten zuela elizan hedatu zen geroarekiko beldurrezko isiltasun dorpea.

Hil eta hurrengo urtean, herriko plazan, gerlan bizia lapurtu zitzaien herritarren oroitarriaren parean, Balantsunen plomuzko itxura estreinatu zuten «poesiaren eta herriaren maitale sutsuek». Ospetsuek meza, mintzaldiak eta Herriko Etxearen kontu adelatu bazkaria zeuzkaten egitarauan. Plomuki hartan Balantsun agertzen zen, bildotsa bizkarrean zeramala, labrit xakurra saihetsean eta galtzarpa hutsalak sorbaldan. Tailuaren oinetan, urrezko hizki analfabetoz idatzia «Oi heskuarra gal es dadilla etchetan» irakur zitekeen, bere kantarik famatuenaren errepika. Germaine gaixoak, omenaldiz omenaldi, etengabe, senar zenaren dolua zekarren, negarrez hipaka, Xarlorekin bizitzen jarria zen arren. Baina hau sekretua zen.

Osagarri handiko artzainen memoria ez zen erraz ezabatzen gure herrian. Bi hamarkadaren buruan, egiazko omenaldiaren garaia jin zitzaion. Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Biltzarra,

Euskararen Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Euskara Zerbitzuak, denak oro bildu ziren Balantsunek merezi zuen Euskal ekitaldi erraldoiaren euskaldunki antolatzeko, noizbehinka euskaraz, partehartzailearen arabera. Ospetsuak, nor bere ordezkariaren bidez, Balantsunen bost haurretarik herrian gasna egiten geratu azken semearekin juntatu ziren, ekitaldiaren harat-honatak finkatzearren. Germainek, are gutxiago Xarlok, ez zuten iunfa izugarriko besta hau ezagutuko: bakea dela haiekin.

Henry semea aitaz harro zegoen, askotan *heskualdunak*, espainolak anitz, aitaren fama estakuruz, baserrira trumilka zetozkiolako gasnaren erostera. Euskal Elkarteen Ordezkaria, euskaldun berria bera, harritu zen, Henry lehen aldikoz gurutzatu zuenean: gizon helduak ez zuen tutik ulertzen arbasoen hitzekin ari zitzaiolarik.

–Je pige’pas là: qu’est-ce que tu dis? Parle-moi français...

–Mais ton père disait...

–Ouais mon papa était un fantastique chanteur.

–Il écrivait qu’il ne fallait pas laisser le basque se perdre dans les maisons!

–Chez les autres bien sûr! Nos parents ils nous parlaient en français pour ne pas que nous soyons handicapés à l’école.

Gau eskoletan euskara xarmanki ikasi zuenak ez zuen nahikoa belarririk, hautematen zuenaren bereganatzeko, liseritzeko eta ondorioz ihardukitzeko. Mundu hori ez zuen nehoiz endelegatuko. Hargatik deus ez bailitzan, Henryk gero esplikatzen zion, lau haurrideek, handikapik jasan gabe, situazio politak erdietsi zituztela, estatuko funtzio publiko ezberdinetan, zein jendarmerian, zein irakaskuntzan, zein erizaintzan. Haietarik bat mediku bihurtu zen eta etxeko semeak agertzen zuen eran, Balantsun Parisera joan zen, alabaren tesi-irakurketaren behatzera, txapela eskuan, larruari josi bortuko ardi-usainak Sorbonako anfiteatroa betetzen zuela. Bihotzen operatzeko teknika modernoez ari zen Françoise alaba. Ezteiez geroztik, ez zen nehoiz hain fier sentitu, Balantsun. Txaloen artean, aurkezpena bururatzean Françoise hurbildu zitzaion.

–Gaixo aita... Zerbait konpreitu’uxia?

–Ez duxu araiz lohikeriarik erran!

–Etxitela inketa...

–Ba’uxia ezkontzeko ideiarik?

Balantsunen azken perpausak alaba ahoa bete hortz utzi zuen, erabat zintzilik, kanpaineta-ko jende horiek eztei aberatsen obsesionea kas-koan iltzaturik zeramatelako erdi kexu. Henry irriz ari zen, itsas ertzeko arrain malgu eta zur-pail bilakatu Euskal Elkarteen Ordezkariaren se-sitzeaz ohartu gabe. Haserrea bermatzen lagun-du zuen mutiko desesperatuak eta Balantsunen semeak ulertu ez zezakeen ziuntan atera zen ba-serri hartarik, gasna mahai gainean ahantziz; hori bazen zinezko afruntua.

Hiri nagusirako bidean, Ordezkaria autoan pentsatzen ari zen; Balantsunen kantuak oro biga bostetan txunditurik entzun zituela gogora-tzen zuen. Egia bere latzean pairatu eta «Euska-ra etxean baino auzoan» erabiltzera deitzen zuten euskaltzale belaunaldiak madarikatu zi-tuen. Ordezkari xifrituari, gohaina zerion kope-tan behera. Elkarteko Buruzagi Handiari erreali-tatea aipatuko zion klarki:

–Jaun Agurgarria, nola omendu horrelako gizon bat? Ez zien bere haurrei euskara irakatsi!

–Eta zer? Uste duzu bakarra den ala? –ihardetsiko zion Jaun Agurgarriak, hainbeste inozentziaz nardaturik–. Eta gehiengoak alderantziz sinesten baldin badu, ez dugu noskiren noskiz bestelako bertsiorik zabalduko. Balantsun Balantsun da, leienda bat, eta aski zaigu, ereduak premiazkoak dira, perfekta ez izan arren, komertzioak iraun dezan. Horrela da eta kito!

Erran gabe doa, Euskal Elkarteen Ordezkaria ez zela Balantsunen omenaldian egon, baina ezagutu zuen egoeraren berririk ere ez zuen eman. Isilik geratu zen, minaren samina heste bihurrietan hausnarrean hutsaren bola lekedatsua zeramala goiti eta beheiti. Han nintzen ni, hamar mila anonimoren gisa famak erakarria: hautetsien mintzaldien ondotik, aitor dut, Henryren erdarazkoak inarrosi ninduela. Euskararen geroa marrazten zuen, euskararenganako funtsezko amodio errepikaezina, paleolitiko arotik zetorkigun hizkuntzak ikastola neolitikoaren aterpea baino gehiago merezi zuela, euskaldun zintzoarentzat «publiko» hitza naski disgustua-

ren ortzadarrean «emazte publikoaren» kontzeptuarekin ezkontzen zela preseski «publiko» bilakatzear zeuden ikastoletan zela euskara hilarazten eta etxean bezain, nehon ez hobeki, blablabla etengabea, biba Frantzia, biba Errepublika oihuka bukatu zuen arte.

Horrelako *heskualdunekin*, nioen haserre hitsaren mugetan, garen indigena autotektonikoekin ez bezala, Errepublika bera pikutara zihoakeen, kontrarioa sinesten zutelarik alta. Errepublikak ez zuela etxekoi nostalgiko horien beharrik errepikatzen nuen, kexuaren haguna ezpainetan behera zeridala. Adinaren errespetua salbu «Hauxe Pixtoleta!» huxtukatu nuen eta kultural killer plantaz aperitifa zerbitzatzen zen guneetarik urrundu nintzen.

Gasna suerte hau ez zitzaidan laket.

Hitz eginago, geroa aipatzenago eta bideari hainbestez urruntzen zaio. Mintzaldi eta pentsamendu guztia ezabatu ondoren ez dago joan ez gaitezkeen lekurik.

Gauez ibiltzen naizenean, batez ere lainoak bere oihal laztanaz bazterrak troxatzen dituelarik, gasnategiko argiak ortzaizean jaukitzen zaizkit, oldarroi, menperatzaile, beldurgarri. Ke industriala, kondentsazioaren emaitza eztiarekin nahasten da, eta hain zuzen leku hartan, errabiaz pizten zait gogoa. Alabaina, esnearen biltzeko eta begiratzeko metalezko egoitza erraldoien gainetik altxatzen dira bizpahiru tximinia mehe, mundua zurrupatuko balute bezala. Orduan, lotsatzen naiz, esnearen molekula salbaietarik, zerbait piztia haziko eta nire oherainoko bidaia luzea tragikoki hautsiko duelako menturaz hordi. Baina beste aldetik, horrelako urrako harrigarri baten aiduru nagoela onartzekoa dut, errealitatearen urrakoa desiratuz funtsean.

Egiaren aitortzeko ez dut esperantza galtzen: lautadaren minean misterioski pausatu altzairu zilarrezko fabrika horien maldatik noizbait bilkuratik etxerakoan, izaki malguren baten ez ustezko ezagutza eginen dut, bestela zertarako balioko lukete bidaiek? Esnetegi handiaren saihetsetik pasatzean behin, bidean ametsetarik nenbilela, gorrotoaz husten agian, ipularretik bat-batean bi argi-iturri borobil miretsi nituen. Arrasta zapatuz brau! autoaren lasterra mendratu nuen: galaxiekiko hunkigunean itotzeko gerturik neukan odola! Kotxetik jaitsi eta argi xirrixtari buruz abiatzean, laino artetik marraka motelak entzun nituen; halaz, izaki estralurtarrak harrapatzeko partez, hotzak gatibatu ardi saldo baten ileen menean nengoen, nihaur ere daldaraka. Ondikotz halabeharrez, ikaragarriko topaketa geroratu nuen.

Abendua hilabete egokia da, ardi esnearen prezioaren eztabaidatzeko eta negoziaketa nekeen bermatzeko, sasoia datorkienean, laborariek hazten dituzten «borroken» hedatzeko, hots! Esnetegiak hor daude, hanpurus, gauez ene izuarazteko, baina laborariak ez dituzte den

mendrenik ere gibelatzen. Jakin dut goizean irratia hautematean, enpresek urre zuriaren ekoizle penatuei ardi esne pintak duela bederatzi urteko prezioan pagatuko dizkietela. Hauxe barbaritatea! Lo eskasez, lanera joan aitzin, irratian artzain bat kexu azaltzen da.

–Gure esnearekin egiten dituzten gasnak biziki ontsa saltzen dira, tira ederra dutelako, eta guri esnea ez digute pagatu nahi; ez gara bada debaldetan ariko: nor ari da lanean kitorik mende honetan?

Alabaina. Baiki. Eiki. Gizonak esplikatzen zuen, esnetegiak proposatu zien 5,90 liberako heinetik ez zuela kantitzeko xederik. Laborariek aldiz, aho batez, 6 libera eskatzen zuten, enpresetako nagusiak bizkitartean, aldekoak zituzten sindikatuekin bazter solasetan zinpurtzen zirela. Laborariak irratian, hitz gogorrak zerabiltzan, indarrez sustatuak, irabazteaz ordea ez hain segur, neure lankide zenbaitek zuhurtziaz oihukatzen zidatenaren arabera omen «ezin zelako finkatu ordenaren aurka joan!». Laborariek esnetegiak okupatzen zituztenean ordea, zernahi gerta zitekeen.

Garai haietan, ilunak eguna kateztatzen zuenean, haurrak ikastolara eramateko orduan preseski, esnetegietako burdina berdezko hesiak animaleko banderola batez apaindurik agertzen zitzaizkigun: esnea esne! aski da! Esku ahur dudakorrez tindatu idazkiak, beltzez jantzi gizon troparen galdeak azaltzen zituen, lau koloretan, nonbait aditz baten erdian spray delakoa agortu bailitzan. Esnetegiaren ateetako isiltasun determinatuak gintuen urtero harritzen, irratiek zabaltzen zituzten berriek, kazetari berezia Kosovoko mugetarik zuzenean ari izanez ez zitzaigun bitxiago agertuko: ehun bat laborarik letxeria okupatzen dute, esnearen prezioaren aipatzeko eta labela errespetatua izan dadin eskatzeko. Azalpen gehiago behar zena?

Borroka guztiak, euskal herri suharrak apaltasunera derrigortzen baikaitu hondarrean diot ene uste apalez, laborantzan edo lantegietan, ele gutxikoak ziren eta aski zen ildo horretan sartzen zirenen begien hondoen jotzea, zeinen indartsua zen deus ere galtzekorik ez zutenen tema eta kemena jakiteko. Bazter inarrosleak eta saloietako iraultzaileak ere trenpu txarrean

uzten zituzten. Bonet zapal eta palto lodiz beztitu artzainek, ekialdetik lehen iraiztura arrosak begimentzean, esnetegiaren saihetsean atzeman buxka eta egur ezpalak metatzen zituzten, pipariak briketa brauki sakelatik ateratzen zuela, ingurua itxura zezakeen hondarki puloari su emateko gisan. Laborariak, karrika hegian punpa eta jauzika hasten ziren, besoak atzoko haizeeihera zaharren antzera itzulikatuz. Sute asmatu berritik bezain segur kea zerien ahoetarik.

Laborari-idazkariak orduan, gauaren hutsalean etxeko izkiriatzeko makina traketsean, Olivetti bat izan zitekeen erromantikoa egiteko, ondu agiriaren mila kopia palto petarik jalgitzen zituzten eta karrika haietarik, lanera zihoazenei eskutik eskura banatzen. Pentsatzekoa zen, bestela ekintzak ez zukeen funtsik, langile haiei traba zerbait jasanarazten zietela, premiazkoa zeukaten denbora murriztuz batez ere. Halatan, bakarrak uuuufff! Etsituka heltzen ziren lantokira hatsanka.

–Ces paysans alors! Font chier!

–Que fait le gouvernement? Ils nous prennent en otages!

–Ensilage, pâturage, sabotage, papotage: sans ambage... –jarraitzen zuen letania baten batek irriz, lepoko girgilak, urre eta zilar batera, zaratatsu erakusten zituztenen estralurtar aurpegietara so, auxilik txotxona errateko maneran.

Noski, langileok, esnetegien politika ekonomikoarekin bat gentozela! Alabaina ekoizleari esnea ahalik merkeen erosten baldin bazitzaion, kontsumitzaileak gasnaren gainean demagun, supermerkatura iristean zentimo apurrak irabazten zituen, gasnarik hoberena eskuratuz bidenabar. Ekonomian oinarritu merkatuaren legeen mekanismoak barneratuak genituen ordukoz, gasnagintzan bistakoa zenez, literaturgintzan halaber, telebista eta prentsa espezializatuaren kausaz. Gutariko gehienak, Bercy edo Moncloako edozein ekonomiako ministro bezain erraz mintza gintezkeen, globoak globalizatuz eta auzoarentzat partikulazki, aurrekontu epaiketa drastikoak gomendatuz adibidez.

Eta gasnatzeko hartzen zuten esnea, merkatuaren legearen arabera ordaintzea tokatzen zitzaien enpresei: nola egin bestela? Aterabide bakuna zen, pentsamenduaren irudikoa. Gauez ibil-

tzean nioen marmarka, lege mota hori guztiek pairatzen genuela, gorputzak eta begitarteak erasiaz eta larderiaz zimurdikatzen zizkigunean, lanetik kanpo etxeetan egotera behartzen gintuelarik, ekonomia alderdikoi usaineko klaseak jasaten, Chazal eta Okrent andereen ezpain lizunetarik, emankizun bakoitza gure bizitzen antzera, konpetizio eta errentagarritasun iturri bihurtua zenean.

Abenduan, esnetegien okupazioekin batera, justuki Ossau-Iraty sor-markaren erreklama ikus genezakeen telebistan, Pirinioetako goiztiriko argi zirrintak urdin-zohargi, ardiak lerro-lerro bortu marretan gora, artzaina buru, xakurra aldamenean sotilki xanpaka, Oldarra abesbatzaren kanta erraldoia lagun; artzain bera zen naski, trakatik ezagun, une honetan hiriko esnetegiaren trabatzen zebilena.

Nire amets estragasnatarra.

Erroetara itzul zaitez: zentzua erdietsiko duzu; irudipenen atzetik egizu laster eta printzipiotik urrunduko zara. Mundu honetako gauzen hutsala gaindi dezakegu, baldin eta une labur batez, soa geronen barnerantza bideratzen badugu.

Ardia kabala estimatua da. Esnea, haragia, ilea, bildotsak, larrua, guztiak ditu salgarri. Gauza bera erran daiteke, bistan dena, urdeaz eta ostrukaz, Euskal Herriko beste bi abere suerte nagusiez. Ni baino idazle handi eta sariztatuagorik hurbiletik eta arrakastaz interesatu zaionez gero, ez dut hemen behirik, are gutxiago euskal behi erorik aipatuko. Erantsi nahi nuke ordea, ardiarekin arazo bat gertatzen ahal dela: haragiak gustu eta urrin berezia du, bortitza, pentoka malkarretako belar zekenarena, dalan-dalan xenda lohizuetarik ibiltzen denarena, maitatua eta aldi berean gorrotatua. Jaten dugun oroz, haragi horri Rabelais ospetsuak, Bordeleko bere erietxeko gaixoei, gosearen zorrozteko eta

hauen arimen baketzeko Panurgioren ardien ipuineko gurin malgua dario.

Haur nintzenean ez zitzaidan ardikia laket eta luzaz mokofinarena egiten nuen denek errabiaz ahoratzen zuten hezur-kankail edo xungoaren aitzinean, Aiherrako zikiro besta batean, arrailduraren arrailduraz, oharkabean lau kostalet errerik irentsi nituen arte. Orduko ene mutillaguna begia zulo so zegokidan.

–Badakizu zer martzilikatzen duzun?

–Ontsa ona da oizu! –ihardetsi nion, ardoa hurrupatuz, zintzurrean behera akuilatzen nituen zitzi puskak hortzekin xehakatuz.

Garai haietan, edanaren gainera, jateaz bost axola neukan eta mintzatzekotan nahiago nuen Herria Sakonki Aldatuko Zuen Iraultza Armatuaren Funtsaren Funtsaz eztabaidatu. Mutil xifritua begira zegokidala ikustean hargatik, inkietatu nintzen.

–Zer da hormonaz hazi oilaskoa ala?

–Ardikia da, zozoa!

Eta guztia bota nuen, disgustuz eta errabiaz mahaiaren erdira, artean, apezak eta bereterrak ziliportatuz. Erraz ulertuko duzu irakurle, gisa

horretako intzidente diplomatikoaren ondotik, alabaina euskaltzale suharrek ez dute goiti egiten, batez ere Jainkoaren zerbitzarien papora, mutilak ene zorrien hazkaokatzen bakarrik abandonatu ninduela.

Hor baina, haritik eta gaiaren haragitik urruntzen naiz. Zenbaitetan gaitzeko sakrifizioak onartzekoak direla agertzeko gogoa nuen soilik, bilkura biharamun etenetan, demagun haurrek ardikiaren jatea onets dezaten. Halako batean, ez dakit zein estrenaren ondotik konjeladorean atxiki xungo xerra mehe haien eguerdiko berotzea erabaki nuen. Urrina barreiatu nuen zartaginean, baratxuriak bipildu eta arraposki moztu. Egunkari-hostoz estali kozina-mahaira Ezpeletako piper gorri errautsa eta zoko batean neuzkan Ventoux maldako gozagarriak atera nituen. Olioa eztiki burbuilaka ari zen eta atorra arrabiraturik, Herri Urratsen erosi taulierraitzinekoa soinean, suaren parean plantatu nintzen, deblauki, deliberatuki eta kuraiez beterik, goizaren erdia Maiteren sukalde arauen liburuaren bila debalde higatu nuela ahanzten saiatuz.

Bizkitartean haurra eskolako lanetan zebilen, musika katean Spice Girl taldearen hondar diskoa behatuz. Uste nuen lasaitasun zerbaitez baliatzea: auteferfutro! Mel B eta Mel C xoxolek ene sukaldari gisako kontzentrazioa zalantzan jartzen zutela begi-bistakoa zen. Orduan Aiherrako gertakariaz gogoratu nintzen eta zin egin nuen, nire baitan, ez niola haurrari horrelakorik nehoiz kontatuko: sekretua hobiaren zolaren zolara eramanen nuen. Bat-batean, xungo pezak zartaginean amultsuki pausatzen ari nintzela, joan-jin soila aski zuten, haurra jauzika saihetsean landatu zitzaidan, zartagin zaharren oreka landerrean ezarriz. Kexatu nintzaion:

–Zer duxu hola ahuntza bezala punpaka!

–Ez niz ahuntza ama! Isilik! Zer jaten dugu?

–Ardikia...

Beuuuurk barnakor eta etsia eskapatu zitzaion, bihotzaren barne-barnetik. Alde bakar batetik erre taloaren antzera negarrez hipaka hasi zen.

–Ez dut maite! Ez dut janen!

–Alo haurra, biziki ona da eta –segitu nuen larderiatsuago, baina debaldetan– janen duxu

eta kito! Ardikia metaka badut eta hozkailua hustu behar noizbait!

–Ez dut janen –errepikatzen zidan tematsu, kasko-gogor eta une hartan zinez mainontzi.

Ene laneko kideen moldean behar niona munduko gosetea aipatu, Somaliako portuetara mendebalde aberatsak kargoak mukuru betez igorri zituen irrisa mutzituak zenbatu edo globalizazioa salatzeko, behatz ttitila plegatuz esku bakarraz Jose Bovek desmunta zezakeen MacDo jatetxera joateaz mehatxatu? Jabalduko zirena Europako ume goastatu kapritxo horiek? Ez nekien zer egin. Zena zela, zartagineko zitzi sanoaren joan-jina bukatzean, haurra mahaian jarrarazi nuen briu-brau eta azietaren parean, kopeta apal eta begiak malkoz heze paratu zen.

Plast urguilutsuaz xungoak azietan ozenarazi nituen, usain, gurin eta baratxuri. Ardiki peza erraldoia naka-naka irensteari ekin nion, deus ez bailitzan, haurrak triste jarraitzen zuen bitartean. Bihotza beratu zitzaidan eta murmuratu nion:

–Ardiki poxi hau jaten baldin baduxu, zapata pare berri bat erosiko dautxut, Peko Arrüako

dendarik munttoenean. Askiko dituxu gehien gustatzen zauzkitxunak hautatzea!

Erran nuena erran baldin banuen erran nuen baiki: aditzez pobre geratu nintzen bat-batean. Handik minutu eskasean, haurrak platera garbi-garbia zeukan, urina ogi puxinkaz bildua eta emeki enearen xahutzen ari nintzela, garaipen keinuka ari zitzaidan.

–Zapatak erosiko ditugu orduan? Maite dituztanak?

–Bai, baina ez dugu halako presarik...

–Sarri sarri da. Badakit nolakoa xiren ama: hitz eman eta gero ez duxu hitza atxikitzen...

–Pentsa! Ni horrelakoa?

«Hitza Hitz» euskaldun zuhurren elea eramaten zuen ezpainetan eta ordu haietan, Oihenartetik Garaterenganainoko balizko erran zahar biltzaileak oro madarikatzen nituen. Ustezko altxorra ikastoletan irakasten zuten gainera: hertsi bedi xedera. Pentsatu nuen zuzendariarekin arazo txiki horretaz ahoan bilorik gabe mintzatzekoa nintzela, lehen baino lehen. Harrapatua nintzen. Lanetik landa, oski-dendara makurtuko genituen urratsak, ondikotz halabeharrez.

Egun hartan bigarren aldikoz haserretu nintzaion, karrikaren erdian, zapata pare sinple baten aukeratzen izugarriko denbora hartzen eta magazineko emazte adindua bortxatzen zuelako lurretik lau metrotan zeuden ataletaraino igotzera, zurubi zalantzakorrak erabiliz, bere zango meheekin, zain odoluriak agerian, daldaraka. Pena nuen andrearentzat, hargatik saldu nahian agian, hau ez zen etsitzen eta burua haurrarengana beheratzen zuela, amultsuki zioen zapata bereziak aldi oroz erakutsiz:

–Eta hauek maite tutxia? Entseazkitxu...

–Ez.

Gustukoak ez zituen zapata pareak bazter batean metatzen miresten nituen etsirik: aztal luzeak, apalak, beltzak eta zuriak, modernoak eta kirola moldekoak. Desesperatzekoa bazen. Haurra ene kexuaz ohartu zen.

–Aski xinatan ez ardikirik janaraztea!

–Hara! Mendekua! Har ezaxu pare bat, edozein, eta agudo goazen hemendik! Ahalkizungarriak gara! –zehaztu nion gogor belarri zulora, hira itxinduak gordetzen saiatuz eta ika-mika sugarrak nigan itzaliz.

Asea nintzen eta jakin izan baldin banuen, nihaurek sabeleratuko nuen ardiki puska madarikatua oro, egin nuen xantaia zozo horretan galtzeko partez. Hargatik xantaia guztiak noizbait ordaintzen zirela argi neukan, andere saltzailea «eta hauek?», «eta hauek?» leloki ahoskatzen hautematen nuen artean. Hondarrean, emaztea bere zurubitik jaitsi zen erranez:

–Ez dakit zer maite duxun. Etxit besterik...

Besotik tiratu nuen haurra. Begitartea berriro bustirik zeukan, burua apal eta ezer gabe ateratzen ginela, bitrinan, bat-batean, pare zoragarria ikusi zuen, gure aiduru bezala.

–Horiek nahi ditut –oihukatu zuen haurrak punpean.

Azkenean, tratua bristi-brasta egin genuen, emazteak aspaldian pasatua zuelako dendaren zerratzeko ordua: jadanik bietan deitua zion senarrak noiz etxeratzen zen eskatzeko, nardaturik ihardesten ziola bazuela jendea oraino. Ene aldetik, nazkatua eta errabiatua nintzen, bilkuretarik landa nola, hala debaldeko tentsioz betea, moltsa erabat arindua, haur mukuzuari ardikirik

ez niola sekula gehiago eskainiko fermuki zin egina.

Lasaitzearren.

Mundua aldakor iruditzen baldin bazaigu,
gure ikusmolde faltsuengatik da.
Ez da Egia bilatzearen beharrik;
aski da ikusmolde faltsuen ezabatzea.

Noizean behin Paul Austerren nobeletako pertsonaia sentitzen naiz, bilkurara abiatzeko autoa hartzetik etxera heltzean jaten dudan gasna xerraraino, irratian Manauen tribuko kanta entzun bitartean. Zuhaitz enborretan behera urak lehiatzen ikustea, beribil eroek kolpez eho eta bidean hilotz luze dagoen azeri gaixoa, elge biluzietarik datozkidan ardi marraka elkor bezain txukunak, belar lehor usain goiztiarrak apiril hastapenetan, hutsaren eta gauaren jabetasuna, nahiz bukolikoak izan denak dira elementu narratiboak, oraiko euskal literaturaren ezagutzaile bereziek dioten bezala. Bideko une horiek bizitzako momentu oso partikulartzat dauzkat oroz bat. Ene gauak zuen egunak baino ederragoak dira! oihukatzeko gogoa dut, lanetik kanpoko bazter-ekintzetan denbora sobera galtzen dudala lepora-

tzen didaten kolegei. Eta egia da gaua dastatu gabe ezin nukeela iraun. Paul Austerren pertsonaien antzera, ustea halakoxea dut behintzat.

Ordea, ordu txikietan ohe hotzean sartzen naizelarik, gasna irentsi ondoan, bakarretan malko lehiaz eta auhenez betetzen zait gogoa.

–Pott(otta) bat nahi nuke... –pentsatzen hasten naiz eta loak hartzea zail bihurtzen zait.

Orduan, gasna martzilikatzearen %100 euskaldun moldatu ene izateaz biluzten naiz eta metropoli erraldoietako karrika hegietako kabina telefonikoetan aterpetzen naiz, iluna jaisten den ber, euri zeharrak kabinako bitrak kolpatzen dituela. Desiraz eta antsiaz, bezperako urrats zoroen errepikatzera Lili Marlen deitzen dut: ibili, auhaldu, metroaren zerragia metalikoak klaskan herstear daudela, doi-doia salbaturik lurpetik atera lasterka eta hatsanka, bideo pornografikoak ematen dituzten ostatuetan bizpahiru garagardo hurrupatu eta Zubi Berrien gainetik eskuz esku pasatu, autoak desafiatuz kaleak sigi-sagaz trebeska eta noctanbus hartzera abia presaka, bertan delako lanera joateko tenorea.

Irakurle maitea, honainoko istorioa gustatzen ez baldin bazaizu, liburua abandonatzen eta SIVOM anitzek ordaindu zakartegietara botatzen ahal duzu: ulertuko dut. Hau, Euskal Herri honetako gizon eta emazte idazleen literaturatik biziki urrun dagoela erraten duzu etsirik; gurean bikoteak edo hirukoteak nahikoa normalizatuak agertzen zaizkizulako, hizkuntzaren eran, estandarrak, gizon eta emazte protagonistak ez direla nehoiz «bururaino» joaten, eskerrak, amodioaren irudipenarekin anitzez aski zaielako etab. Lan honek aldiz ez du zuen gustuko Herriaren itxura onik ematen; hargatik idazlearen obsesioek ez dizute desira basatirik ere pizten! Egia osoa zor dizut hala ere, eta ez dut neure burua justifikatzen: bikote eta kezka burges euskaldun jatorrak zituzten pertsonaiak sortzen nituen garai batean, baina exilioak aldatu ninduen eta gaur egun Lili Marlenen bulardi beltza baino ez daukat eredu. Nonbait bi edo trisexuala izan behar duket eta izkiriatzen dudanak hautatu ezineko kinka hori pairatzen du segur aski.

Lili Marlenek ez zuen lagunik, ez gizon, ez emazte. Garai hartan, lau toki sinboliko ezberdi-

netan bizi nintzenez, erro sentimentalik gabekoa nintzatekeen, nehork ez ninduen espreski maitatzen eta desertu horretan nirauen, nomada, aire kutsatua usnatzen, gerizarik gabe eta harreman arriskutsuen menpe. Gauez ez nuen lorik egiten ahal eta hura goizetan ez zen lanean ari. Konpainia ona antolatu genuen halatan, hiriaren axola eskasaren inarrosteko eta igandeetan Du Bellay Plazan masai gudarien seme-alaben miresten astiaren galtzeko. Igandeetan hain zuzen ere, jaikitzen ginenean, arratsalde minean, ardikia jaten genuen. Tizi-Ouzoutik etorri Tahar haragi saltzailea behin harritu nuen, urdekia eskatu nionean.

–Ez dut, emaztekia! Harategiz engainatzen zira. Guk ez dugu urdekirik saltzen.

–Tanpis, barkatu –ihardetsi nion, bat-batean ene hutsaz ohartuz–. Orduan emadazu duzunetik –ahalke nintzen.

Ondoko zazpi asteetan Lili Marlen nitaz burlatu zen, arrazoiekin.

Tekno klubetara joaten ginen frankotan, musikaz eta gainerako ekaiez horditzera. Ekialdetik sartaldera hiria aztalkatzen genuen gero, eleka,

maiz isilik, iraganbidea, bakardade metatuen pean hazi maitasun beharraren eremuen urrakoa bailitzan. Harrigarria zen zinez. Ez nuen nehoiz zehatz konprenitu, gizon zalea nintzela bizkitartean, arrunta hots, zergatik eta nola aurkitu ginen Lili eta biok, ohean, bata bestearen besoetan gatibu, elkarri musuka. Halako raid urbano batetik berant etxeratu ginen eta lanera lehiatu aitzineko bi orduak larruak larruari pasatu genituen. Lilik, zorrogabetuak zeuzkan bularretan jarri zizkidan eskuak eta gidatzen ninduela ahurrak bere sabelean, sabeleko fruitua Jesus! galdu zitzaizkidan. Haren titi puntekin jostatzen ari nintzela, biluzi nintzen eta Liliren behatzak nabaritu nituen handik laster pottottan kilikari. Gure lehen musu maitekorra trukatu genuen, ezpainak ezpainei, mihiak mihimenaren moldean txirikordatuak eta irri lainoaz. Mutu.

Olio usain goibela zerion metroaren hestesailetan urtzeko ordua hurbildu zitzaidan. Lili Marlen ohean abandonatu nuen, bihotza apurturik: ez nuen laneratzea biziki maite, are gutxiago goiz hartan pentsatzen ahal den maneran. Tiketa hartu nion emaztea agurtu nuen behingoz eta

haren ile horailak atzera bultzatuz ihardetsi zidan. Gurutzatzen nituen begitarte akituak eder kausitzen nituen eta nioen, edozein amodio itxura aldatzailea zela, bikote bat elkarri erasiaka hauteman nuen arte.

–Mentsa zara ala? Nahi duzu gure umea gal dezadan?

–Ez, horrelakorik ez.

–Goazen etxera orduan. Aspertua naiz.

–Kafea har dezagun bederen.

–Burutik eri zara. Mutiko tristea! –ahoskatzen zuela neskak, garraio publikoaren herots luzeak haien solasaren haria ebaki zidan eta bagoiaren aixolbean kokatu nintzen, Lili Marlenen gorputzaren harpeen magalean bezala.

Maitatzea aski balitz mundua kanbia genezakeen, ez? Honakoa zen oskorri ilun hartako ene lehen oharra, ezpainak, gainekoak zein beherekoak, desiraz hantzen nabaritzen nituela, bereizte uneko eleen eresia nirekiko errepikatuz:

–Amodioa eginen dinagu ez, sarri?

–Ageriko nola naizen.

–Ez didan, arauz, buruan min dunala erranen? –erantzun nion eztiki, haren dudazko jokoa,

telebistako telefilmetan hainbatetan ikusiarekin ironikoki, erkatuz.

Otsaileko goiz hartan elurra ari zen kanpoan, lohitzen lurrean, eta iruditu zitzaidan orduan harremanaren mineraltasun urdina zekarrela metroaren barne-barneraino.

Biharamunean, hitz eman moldean, txinatar jatetxe batean afaldu ginen, sakez horditu, zerbitzariak lekutzeko momentua zela kopetaz seinalatu arte. Ipar haizeek erraztatu abenida jaitsi genuen arraposki, gorputzez eratxiki eta josirik, polizien J7ak huxtuka eta huxtuan zebiltzala larderiatsu, kefiez apaindu langile isil apurren ertzetik pasatuz, larrua diru alde saltzeaz beste bizibiderik ez zeukaten ekialdeko neskatxen saihetsetik suge trebeen antzera lerratuz, so bakarraz kliska eta kliska ari ziren neonezko Asiako denda zein ostatu entseinak miretsiz. Hotzagatik, haragiaren berotasuna isurtzen zitzaigun zainetan, zorion ote? Ohe estaliaren pean kukutu orduko, egunean zehar hanpatu desira lehertu zen, sinesgaitz: hitzik gabe eta sakonki maitatu ginen, aurre eta atze iritziak baztertuz.

Argi zirrinta altxatu zenean, Lili Marlenek KoFiTaxi enpresari deitu zion, amari telefonatu ondoan: ez nion nik sekula amaz aipamen bakar bat ere entzun, baina bale, gezurra zirudiena irentsi nuen, gaurkoan gasna egiten dudan era berean, turik gabe. Etxe zolatik lau tuta kolpe haserreturen oihartzunak jin zitzaizkigun eta karrikan, musuen hagunaz bereizi ginen, taxi txoferraren begi-keinuen benedikazioarekin. Ez nekien zer pentsa. Ene exilio-bideak ahitu artean, anitzetan kalaka eta balakatu ginen.

Dagoeneko ez ditut metroak oinezkatzen, baizik eta ilunabarra jaukitzen zaidala, kilometroak, Paul Austerren nobeletako pertsonaien maneran autoaz, zainak kiskailtzen dizkidaten bilkuretara joateko eta handik su gosez itzultzeko. Hargatik, zenbaitetan, ilargia zeru zohargian beteegia agertzen denean edo haize hego epelegiengatik, ezin erran, Lili Marlenen bulardi erronden oroitzak opari sentimental zaizkit. Gasna are indar gehiagorekin hortz artean purruxkatzen dut eta diot:

–Pott(otta) bat nahi dut.

Aldion ez dut baldintzarik erabiltzen.

Noski.

Ez atxikimendurik eman binako ikusmoldeei:
begira zaitez kartsuki haien jarraitzetik.
Baiaren edo Ezaren den mendreneko herexarik baldin bada,
izpiritua zailtasun dedalo batean galtzen da.

Lau miliar ardi baino gehiago kontatu ditut barda bilkuratik landa, logaitz nintzela, Testamentu Zaharreko, Itun Berriko, Apostoluen Aktetako eta Jondone Joanesen Apokalipsiko orrialdeen lur hutsetan. Bibliako ardiak ez dakit gureen irudikoak zirenez, baina argi da Abraham, Melkisede, Isaak, Jakob, Noe, Matusalem edo Moises haien zaintzera ez zirela erraz heltzen: beti artzain bila eta ezinbestean, bat, trebea etorriko zela iragartzen. Ordea, zer edo zer berri eskatzen zitzaienean, jeremiada handitan, burua inarrosten zuten ihardetsiz: ez baitakigu noiz jinen den, gau hartan artizarra zeruan usaian baino dirdiratsuago dateke, artean ardiak eraman itzazue basamortu idorretan barna, bat sakrifika bazko oroz Hitzaren izenean eta prest egon zaitezte adiskideak!

Sortu zen azkenean, hogei mila patriarka artzainen lana bakarrik egingo zuena. Ameslari erraldoia, uraren gainean aharrausika ibil zitekeena, bostehun ogi eta antxoa xerra soilekin hamar jende ase zitzakeena, edo alderantziz ez naiz gogoratzen, jotzen zutenean matela batean bestea eskaintzen zuena, hilak berpizten, farisauekin alaiki solastatzen eta gorputza saltzen zuten emazteekin geroaren kartak irakurtzeko juntatzen zena. Barruki tzar batean jaio zen, Eguberriz, eta gaztarotik munduaren hegitik hegira lelo berdina, ahoak eman ahala, oihukatzen zuen.

–Ni naiz denen artzaina, ardientzat bizia ematen duena!

–Bakea emak mutikoa –erraten zioten asperturik, labrit tte tte tteka Sinaiko desertuan ardiak biltzen saiatzen ziren patriarka zaharkituek–. Isil hadi! Bildotsak izuaraziko dizkiguk hik!

Hargatik behiala iragarritakoaren egiaztatzea mirakulua zen; profetak berak etsitzen hasiak ziren engoitik, zenbatu lau miliar ardi haiek nahastear zeudelako. Marraka ozenez barreiatzen ziren Galilea edo Judeako bideetan, Atenastik,

Alexandriatik nahiz Erromatik hurbildu marmolezko jainkoen adoratzen, diskriminaziorik gabe. Gaur egun bezala funtsean, pitonisa pulpos eta ausarten bestaburuetarik kanpo zeuden palestinarrak, beren ahuntz mehakoilekin, Zisjordania eta Gazako ordoki okupatuetan barna. Ekialdeko gaietan naizeno, aitortzekoa dut, nehon eta nehoiz ez zela hitz eman gure salbatzera etorriko zen Clinton izenekorik, are gutxiago Roswellgo estralurtarraren jaukitzerik!

Jesusen parabolak behatzen ditut nik ere, noiztenka igandeetan mezara noanean, urtean bizpahiru ehorzketaz eta eztei bakarraz betetzen dut ene zerrenda, eta jainko deiei marrakaz erantzuteko gutizia hazten zait, auzoko emazteen ahotsak imitatuz. Oraiko artzainek ez naute beldurtzen, lehenagokoek aldiz daldaraka atxikitzen gintuzten, batez ere misione garaietan. Animaleko trakako apez batez oroitzen naiz: haurrak bata bestearen kontra metatzen ginen ikaraz, gizonaren botzak ardiak, fede-bideak eta bekatuak deiadarka madarikatzen zituela. Itzala gure gainera makurtzen zen eta sotanaren hegalek, elizako ezko argiak gordetzen zizkigutela,

arras galdua ginelako irudia geneukan. Hezurrak kliski-klaska, hortzak banbaka, esku ahurrak heze eta haragiak daldarez zebilzkigun, atzealdeko jargietako emazteei halaber, amironatu berri zituzten mantelina brodatu beltzen gerizan. «Ni naiz artzain ona» orroatzen zuen baina ez genion hitzik ere sinesten. Gure bihotzetakoak ez ziren, alabaina, hain basak.

Prediku latzaren ondotik, meza-bide lohitsuan zehar etxeratzen ginen ilunpean, gaurkoan nola, hala den mendreneko kahaka uhuluak edo baten aztalak lehertzen zuen abar idorraren kraskakoak lotsa gorriz itotzen gintuela. Mendi muinoaren bizkarrean agertzen zen azeria gure desbideratzeko jauzi egin zezakeen deabrua zena? Tentazioari amore emanez gero infernua segur genuen. Afaldurik, ohe hotzeko manta urrien pean sartu arte ez geneukan sosegurik. Noski hautatzekotan, misionestak xeheki plantatu infernua orduan, etxeko ohe baino anitzez beroagoa suerta zitzaigukeen!

Mendearen bukaerarako infernuak, paradisuak, ardiak eta artzainak desagertu ziren, elizak hustu eta apez larderiadunak xuhurtu. Bibliako

lau miliar ahari arkarak merkatuan sartu ziren, Garaziko ekoizleen salmentak ustekabean trabatuz: prezioak supituki apaldu ziren eta nehor ez zen Bekatuaren salatzera deliberatzen. Egoeraren arrazionalki esplikatzeko Espainiako ardiaren falta zela erraten zen. Gure bakearen kalterako maiz, ardiak eta artzain dibinoak gatazkatzen ziren. Eri potoloak altxatuz, kontuz, apezek *Dohatsu Bihotz Garbiak* kantatzen eta kantarazten zuten, telebistako kamera anitzen aitzinean: enekin ez dagoena, ene aurka dago, azpimarratzeko maneran. Eiki.

Bizkitartean parabolak dio Artzain Onak ez duela lehiaketarik hazten bere ardien erdian; ehun ardietarik bat galtzen duenean, gainerako laurogeita hemeretziak baino garrantzitsuagoa zaionez, haren bila abiatzen da tiroa bezala, errabiaz, ezpain izkinetarik tua zirristan dariola, naba eta holtzetan behera, bere biziaren perilik handienean. Ardi kolpatua soinean bordara hurbiltzen delarik, begiak zilar, adiskideak eta auzoak gonbidatzen ditu: bozkaria zaitezte, errebelatua zen ardia kausitu dudalako. Lepoko zaina zehatz ebakiz eta larru azal artean buhatuz, ahari

zaharra hiltzen dute, odol putzua itun arraberritua bailitzan, eta alegrantzian auharitzen dira guztiak elkarrekin, zeruan argizagia gora dela, bi botzetan abestuz. Ardi galduaren pare gara, baina ez zaigu artzain amultsurik bila etortzen.

Gaueko ihesaldietan pentsamendua hegaldatzen zaigu, batean Biblian eta bestean *Odisea*-n txertatzen. Pagano erreen fama daukagu bidenabar. Abandonu sentimenduak agian eramaten gaitu gureak ez diren lurraldeetan ihes. Jakin beharko genuen alta, papoa bortizki ukabilkadaz astinduz, komunio egunean, apezaren eresiei ihardesten geniela, orain huts honen obszenitatea iragartzen zitzaigula:

–Deabruari!

–Uko egiten diot.

–Bekatuari!

–Uko egiten diot.

–Haragiari!

–Uko egiten diot –eta marmara saila, Kaliforniako hirien zerrenda zirudien saindu sanoen letaniarekin bururatzen genuen:

–Santa Monica!

–Otoitz egizu guretzat.

–Santa Barbara!

–Otoitz egizu guretzat.

–San Bernardino!

–Otoitz egizu guretzat.

–San Antonio!

–Otoitz egizu guretzat.

Saindu bakar batek ez zuen «guretzat» behatza mugitu eta jainkoarekiko bitartekari lana bere gain hartu: hamasei miliar axuri herabeontzat, bakartasuna zama dorpeegia zen eramateko.

Bourdieu izanen ote da hirugarren milurteko artzaina?

Aintza zeruak.

Binakotik sortzen baldin bada Batasunaren itxura,
Batasun mota horri ez zatzaizkiola lotu.
Bata gatibatu gabe, izpiritua biltzen denean,
hamar mila gauzak kaltegabeko bihurtzen dira.

Bakarretan, bilkuretarik etxerakoan, goizeko ez dakit zein tenoretan, hozkailua ireki eta ez dudalarik gasna pilixkarik aurkitzen, biharamunetan umore txarrez iratzartzen naiz. Balio ote du jaiki nadin? Diot gauak karrikak oraino gatibatzen dituenean. Eta ohetik altxatzen naiz, makina herdoildu baten gisa. Egoera horretan, errabiak eta animaleko antsiak bihotza hantzen didala, egunak pasa ditzaket lan edo «borroka» kideekin hitzik trukatu gabe. Gohaina hazterainoko paranoia. Orduan nire izana zein izenak gorrotatzen eta murruak arrasatzen ditut, burua apal, hatsa labur eta begiak altzairu.

Izan-mineko garaietan, oso inutil eta funts bako sentitzen naiz. Laguntza eske edonoren deitzeko gutiziaz nagoenean, haren denbora preziosoa ebastearen beldurrez, norbait hura

trabatuko baizik ez dudala iruditzen zait eta ezizatean urtzen naiz salbaiki, nekez eraikia erraz xitxifrikatuz. Pentsatzen dut hor, *Egunkaria*-ko edo *Sud Ouest*-eko horoskopoek zenbaitetan iragartzen duten bizitza aldaketa errausle baten premia dudala, zapartatze erraldoia, mila puskatako suntsiketa, barreiaketa latza, gertakari baten desira hots, lanaren eta bilkuren monotonia haustearren. Ondorioz, eguneko betekizunak derrigorrezkoak izanagatik, auhena jabaldu artean, nehor ez dut gehiago helatzen, telefonoari ez diot ihardesten. Orokorki bisean bis gurutzatzen ditudanei ere ez diet «gaizki izana» aipatzen, nahikoa ezezkorra naizela beraiek ohartzen direla hargatik.

Horrelako batean, zainetan nintzela, ezagun bat nitaz oroitu zen eta hirian «poesia errezitaldi» bat zegoela, hara elkarrekin bideratzea gomendatu zidan, olerkarien hitzen estimatzeko egoeran ez baldin banintzen bederen bizpalau garagardo edanen genituela erantsiz. Axola gutxi nuen eta bakearen izenean, baiezko motelaz erantzun nion. Telefonoan agertu zidanez, deklamatuko zutenak, hitzak ardi marrakaz mu-

kurutzen zituzten «artzain poetak» ziren eta niretzat ez zen beharbada hain seinale ona. Azken urteotan, hiri goraipatuak ez zukeen sosik ekartzen eta hirira orduko edozeinen ametsa baserrira bizitzera joatea zenez, Euskal Herriak moderno itxura ezabatzen zuen kultura alorrean, laborari eta artzainen ikurrak erabiliz, hobetsiz eta kanpoan zein barnean kulturaren gailurtzat joz. Kantariek, poetek, artistek eta oroz bat sortzaileek mugimendu horretan, arraiki parte hartzen zuten, diru publikoak euskaradunen irudi arkaikoa garatzen laguntzen zuelako. «Euskal touch» zelakoa, minoria pribatu batentzat absolutuki zaintzekoa zen, gasnaz bezainbat zaharkeriaz kartzelatu liburuak ekoiztearren, gainerako jendearen euskal edo erdal hizkuntzarekiko biluzte ekintzak justifikatzeko. Isiltasun berriaren urmaelean erran gabe zihoan, euskaltzaleak, sobera laster gizendu zamo arrainen antzera, harroki igerika zebiltzala, ur azalera hatsartzera sekula atera beharrik gabe.

«Artzain-poetak» behatzekoak genituen arrats hartan, irakurketa gelara heldu ginenean intsentsu usainak ninduen harrapatu, bortitz.

Sartu orduko salmoak oihukatzeko gogoa nigan zanpatu nuen, mendi eta haran berde argazkiz edertua zen gunean hedatzen zen ardi zintzarri ozenetan bermatuz. Txukun grabatu kobreen dilin-dalan etengabean, jendeak menturatzen ziren eta giroa jadanik dastatua zuenez, lagunarekin hitz egiten hasten.

–Gaurkoa ederra izanen da!

–Bai hala uste dut –zioen batek bere kanibal karkasa inarrosiz–, goi mailako poesia entzunen dugu! Joanes Katsun hauteman nuen behin, ikaragarria zen: ahots bat, horma!

–Eta behingoz hau hiriko antzoki nagusian eskaintzen dela. Ordu da gure Herri Kultura onartzen dutela froga dezaten!

–Nor duzu hori? –eskatzen zion baten batek, eriaz erakusten ninduela; eta lagunak ez zuen aski elerik ene aurkezteko:

–Barnealdetik heldu da –espantuz ari zen–. Poesia maite du eta egiazko indigena da!

«Indigena» solasa ahoskatzean kidearen ezpainak plegatzen ziren eta neure zinezkotasun markaren azpimarratzeko «Euskaraz badaki» gehitzen zuen:

–A baia? Autentikoa da beraz?

–Euskaraz gain besterik ba ote daki? –irri lodi eta gurintsuz lehertu ziren biak, hogei mende astunetan arraileria hobeagorik nehoiz izan ez bailitzan.

Nire autoktono papera planttan eta sanoki bete nuen, isilik geratuz. Karkazail diskretu bakoitzean urrezko hortzak agerian uzten zituzten emazte biziki ederrak gelara lerratzen miresten nituen, banaka, larrazken aireko jantziz apainduak, biloak hori eta koloreak gorri, Gucci zakuak eskuetan, ardi marrakek eta joare ozenek alegeratzen zuten irakur tokia Channel 5 urrinaz tepotzen zutela. Agurtzen ninduten zenbaitek lagunaren aldamenean nengoelako, baina orokorki, ez nintzen politeziaz akitu gau hartan.

Bat-batean argiak hil ziren. Aulki herotsak biderkatu. Hasperen estiratsuak hauteman. Hamazazpi eztul idor. Zamarraz eta txapelaz beztitu aurkezlea, punpean hupatu zen taula gainera. Fitxa txikiak zeuzkan ahurrean, deklamatu behar zuten lau Bardoen biografia elementuz belztuak agian. Jakitate herrikoiaren hunkiduraren mugetan amil, izenak eman zituen.

–Bat. Bi –hasi zen–. Martxan da? Beno, gau on denei lehenik. Arrats berezi honetan, lau artzain-poeta entzunen ditugu: Joanes Katsun, Joanes Mentasun, Joanes Beitzun eta azkena, Joanes Kapatxun. Beren bortuetan libreki eta botereetarik urrun kreatzen duten Iparralde barnealdeko lau poeta onenak! Kultura Ministerioak, Euskal Kultur Erakundeak, Hizkuntza Kontseiluak, Eskualdeko eta Departamenduko kultura zerbitzuek denek batera arrats berezi honen antolatzen lagundu gaituzte: eskerrak guztiei. Bukatuko dut erranez gure gaurko lau artzain-poetak dohainik etorri direla, artearen amodio soilez. Txaloak otoi!

Esku-zarta zaparradaren erdian azaldu ziren lau gizonak. Orduan nire «gaizki izate» kongenitala ahantzi eta ikuskizunari errotik interesatu nintzaion. Zaharkituak, konkortuak, hagin gabeak ziren. Palto higatuz jantziak. Galtzak herrestan edo pantzoila erraldoietan zinta trinkoaz finkatuak. Bortuko jendeak zirela egiazki agertzeko, horma artifizialez atxikiarazi biloak zutzuta zituzten, haizeak buhatzean bezala karmuza buruaren gibel aldera bermatua. Ikusleen

arima emozio handi batek gatibatu zuen, bederazka, kaiolar mutzituetako giro poetikoa itxuratzen zutela. Duda-muda bulta baten ondotik Joanes Mentasun hasi zen, papera daldaraka.

Hegoak hegan hoa
Hegalen higadura
Higituz.
Hi hegan hoa
Hegalak higituz
Higanako higaduran.

Hatsa motz geratu zen jendea. Isiltasun mistikoak gela berotzen zuen. Ardien joare herotsarekin batera, goragailuetarik ekaitz ari zen haizearena entzun zen handik laster, bigarren poetaren aldia iragarriz: Joanes Kapatxunek koskoilak hazkatu zituen eta gogoz ikasia zirudien olerkiaren oihukatzeari ekin zion. Hamar liberatan erosi betaurreko meharrak oxkan jarri zituen sudur makurraren gainean. Deklamatu bitartean eskua irudiz kukusoz hanpatu ile zione harroan pasatzen zuen: Joanes Kapatxun hitzekin jostatzen zen galanki, soinuak eta moldeak biderka,

behatzaileetan aztoramendua sortuz. Kasko puntatik oskietaraino so egin nion: arropa ilunez beztitua zen eta zapatak zuri-zuriak zeuzkan, tripa animalearen itzal beltzez ttakatuak.

Irri gogoa bermatu zitzaidan. Lagunari ukabilkada bat eman nion eta hark begirada tzar batez geldirik egotera gonbidatu ninduen. Marmaran ninderraion.

–Ez dük hoberik gizon –nioen ironiaren eta ilundura latzaren artean erdibitua, non hago Kerouac? Desolazioaren aingeruak etor daitezela! Isildu nintzen.

Orduan Joanesen ahotsaren apaltzeak harrapatu ninduen, haur. Joanes Kapatxun konkortu zen lurreraino. Lehen lerroko emazte panpox batek, urre eta zilarrezko bere girgileria ozenki inarrosiz, arrosa zimel bat aurtiki zion aurpegira: hortz hirotuak erakutsiz gizona «mila esker»ka atera zen tauladatik.

Aspertzen ari nintzen. Zigarro baten erretzeko jalgi eta ondoko bi poetak huts egin nituen. Ikusle bilduak trabatuz, lagunak soaz erasiatzen ninduela, gelan berriz sartu nintzenean, azken

poetaren txanda zen. Joanes Katsun hedonistagoa zen irudiz.

Behiak eta ardiak marrakaz
Eta zu maitea,
Erdian
Deizten.
Ai nindezazu deitz ni ere
Barnean dudan esne guztiaz
Huts nadien.
Ahoa ireki eta edan nazazu.

Argiak piztu ziren eta aitzineko ikusleek, karga erotikoaz arinduak, taula gainera jauzi egin zuten, artzain olerkarien zoriontzeko, autografoak eta xehetasunak galdegiteko: nola bada, poesiaren jakitate zientifikorik gabe, horrelako pieza ederrak moldatzen ahal dituzue? Euskarak ba al du gauzen errateko manera berezirik? Euskara hiltzen baldin bada altxor bat desagertuko zaigu eta blablabla. Guztiak gero, diru publikoaz ordaindu afari erraldoian gelditu ziren, poesiaz hitz egiteko. Geratzeko otoiztu ninduen arren, laguna han utzi nuen.

–Badakizu –aitortu nion– hauek baino nahiago dudala Jean Jacques Goldmanen abesti bat?

–Betiko analfabetoa...
Lagun bat galdu nuen.
Gasnaren gustua ere bai.

Gauza batek kolpatzen ez baldin bagaitu, ez balitz bezala da; deus ez da gertatzen, izpiritu izpirik ez dago. Gauzaren ildotik ekilea desagertzen da, gauza ekilearekin urtzen doa.

Bakoitzak bere paradisuak! Parnasoko frantses neurtizlariek artifizialak maite zituzten, kokainaz eta morfinaz hantuak. Guri, egia erran, morfina aski sakatzen eta txertatzen digute gizon politikoek, prediku aulki gisa eraiki aperitifa mahaien izkinetarik, txin-txin handik, krax-krax hemendik, herriaren geroaz mintzo diren oroz. Bitxiki hargatik ez dugu paradisuan gaudelako sentsaziorik, nahiz hiri animaleetan bizi direnek, hain zuzen horretako errabiaz gutiziatzen gaituzten. Baina bego! Ez gaitezen politikoekin gaiztoegiak izan, ene kolega batek errepikatzen duen eran, ez baitakigu bihar edo etzi nola itzulikatzen ahal garen. Ororen buru ondorioak argi dira: paradisua boteredunentzat bertan, eta behartsuentzat hil ondoko gero hipotetikoan.

Bilkuratik etxerakoan behin, uda minean, eguna jadanik ekialdetik altxatzen ari zela, artizarra ilargi betearen bizkartzain erraldoi ageri zen orduan, Donapaleuko merkatuaren paretik pasatu nintzen. Barazki eta poalla saltzaileak beren autoak deskargatzen segitu nituen: kofreak espaloira husten zituzten, piperrak, tomate hirotuak, arrautza sailak, xitxak, ahate ondoak, piunak eta zangoetarik estekatu oilaskoak. Kakofonia horri minberaki begira egon nintzaion luzaz. Basamortu berde, idor eta mutuan nenbilen eta herriko azokaren aitzin irekitzearen ikuskizunak paradisua tanpez deitu zidan. Paradisu hotza naski.

Ez pentsa nostalgikoetarik naizela! Ez horixe! Baina irudia daukat hargatik, aitarekin edo amarekin Donapaleuko merkatura abiatzen ginen garaiak, bereziki gozoak izan zitzaizkidala, eta ez dudala geroztik, nehon eta nehoiz horrelako eztitasunik dastatu. Salbu agian bidean nenbilen uneetan. Zazpi haurreko familia hartan ezagutu ezberdintasunen gainetiko elkartasuna bilatzen dut denetan: debaldeko ametsa, mundua dena baita, elkartasuna eta aniztasunaren onarpena

ezik. Halatan, aitor dut, bakartia, bakartua, sekula ez barkatua sentitzen naizela. Zurrunbilo horretara eraman ninduen beraz, Donapaleuko merkatuaren aurretik iragateak, goiz hartan, haraitzineko ardi eta bildots marraka izoztuak kasko zokoan haiaka.

Argia gaberik jaikitzen, presaka gosaltzen eta lau hankak sokaz bilduak zeuzkaten axuriak beso banaren puntan dilindan bide bazterrera lehiatzen ginen. Urtarrileko hormek ipularrak zuritzen zituzten eta zubitik lerratzean uraren murmurioan amodiozko kanta bilakatzen zitzaigun. Ilunean oraino, auzoa zetorren bere katrela handia puskilaz hanpaturik. Denak eremu hertsian kokatzen ginen, ahatekiak eta antzara-gibelak paper finean troxaturik, gure bildotsak barne. Auzoak caporal tabako bortitza erretzen zuen, kea autoko leiho zabaletik ihes zihoakiola aire hotzaren trukean. Kearen urrina jendeen eta kabalenarekin nahasten zen. Usain horrek dagoeneko beratzen nauela negar egin dezaket nonnahi.

Gertatzen da zenbaitetan, lur azal honetan, arras zorigaitzeko nabaritzen dugula geure

burua, Piarres Lafittek behin, axolagabezia osoz salatzen zituen «minduri herratsu goibel horietarik» bihurtzeraino. Gertatzen da berdinki, euskaldunak izanagatik Piarres jendeak gaituzu! uda betean hotza zainetan darigula. Bizkitartean, Donapaleuko goizalde karroindatu haietan, aita bildotsak pisatzen zegoela, eta gu lekuaren atxikitzen zutik daldaraka merkatu irekiaren erdian, pairatzen genituen haize mehe labankadez gogoratzen gara. Bildotsak auhenez ari ziren, zein besteak baino gorago, ozenago, ankerrago, jendeen solasen harramantzak, irri algarak eta autoen asotsak estaliz. Dolore hormatu horrek egiten gintuena bizidun?

Tratulantak pasatzen ziren: lehen aldian, saltzaileei onomatopeiaka hitz eginez, bildots metatuei ez zieten behakorik ere botatzen, hauek otoi erosika hasi arte bederen. Bigarren inguruan, herrokan, beltzez jantzirik, txapela buruan makurturik eta erietan urrezko eraztunak eki sortu berriarekin jostetan dirdiran, ezpainez keinu aspertuak marraztuz, martxandiza eskuaz haztatzen zuten. Hirugarrenekoz aitzinetik lerratzen zitzaizkigunean, jadanik saltzeko esperan-

tzaz etsiak ziren laborariei pisua eta ahalik preziorik merkeena idatzia zeramaten papertxoak barreiatzen zizkieten. Bildotsen jabeak, zilinki beren kamioien atzera gonbidatzen zituzten, eta han bukatzen zen, kasik goiz guztia iraun zuen erosiko dut/ez dut erosiko izeneko antzerkia.

Saldu nahiak, edo premiak, –alabaina ardiak esnetzean zergatik atxiki bildotsak etxean?– akuilatu laborarien hezikeria harrigarria zitzaidan: tratulantaren eraso bakoitzean prezioak oxka batez apaltzen zituzten, frankotan bildotsak galtzetan eskaintzeko. Guztiek jokoaren arauak eta erritualak ezagutzen zituzten eta eztabaidetan berotzen ziren, ni lekuaren gainean baino seguruago. Tratuaren bakardadearen bihotzean urturik bailitzan, ekintzak zirauen ordu luzeetan aitak ez zidan hitzik ere erraten.

Bildotsak tratulantaren furgonetan pausaturik, auzoaren bila joaten ginen poalla eta gibel merkatu aterpetura. Han, kanpoan baino gozoago zen noski: oilo zahar eta ahate erlastuen uruku ezberdinen artetik, emazte karkara ahalkegabeak hautematen ziren, papo urguilutsuak dantzan eta toki eskasagatik ipurdi oparoak el-

karri jo ozenka! Urte zaharreko gasnak, arrautza freskoak, antzara edo gita umeak, landatzeko aza, porru eta piper ondoak: denetarik kausitzen zen. Oroitzeak anartean, uda su garatu arren, hotza isurtzen dit gorputzean behera, hatsak, usainak eta azantzak bilduz. Hotz horrek galdu dudana laburtzen duela irudi zait, ezkorra naizenean, edo bilkuratik etxera baikor nabilenean, diot paradisu horren bila ibiltzen naizela etengabe. Ez dakit. Emadazue morfina, sentimendurik gabeko euskaldun zintzoa bilaka nadin.

Gauaren bake bekaitz zirikaria.

Gauza, izankor gauzatzen ekilearen bidez;
ekilea, gauza dela medio, ekile bilakatzen da.
Beren debaldeko binakotasunean zer diren jakin
gogo baldin baduzu, ikas ezazu hutsak baino ez direla.

Gau hartan, Herritik itzuli nintzenean, mendi mazela apaletan mirets nezakeen izugarriko ikusgarriak gatibatua, usaian baino denbora gehiago eman nuen bidean. Hotzagatik, kanpoko usainez biriken osoki betetzeko, autoko leihoa erdi zabalik nenbilen. Ilunean, ortzaizak misterioski argiztaturik nabaritzen nituen, eder, laino, hunkigarri eta lur ertz horiek sutan maite nituela aitortzen nion neure buruari. Ez nuen, zer gerta ere besterik errepikatzen.

Urtarrileko gauean, muinoen kaskoak urregorrizko eraztun erraldoi batek inguratzen zituen, sua iratze eta ote zango zimelekin ezkonduko bailitzan. Erretasuna denetan barreiatzen zen, sudur eta larru zuloak oro tapatuz, aldi berean suhaken gutizia bihotzetan txertatuz. Haizerik ez zen, hodei beltz zenbaitek euria iragar-

tzen zuten, baina suak lasaiki beretik jarrai zezakeen, patar zein pentoka umilen balakatzen, zeruraino jazartzen zitzaizkion mihi luzeak zirela medio.

Ez nintzen sekula Euskal Herriko tradizio garratzen zalea izan, geroari kataklismo iritziz, orainari izatea debekatzen zietelako: Urrustoiko Abadiak finkatu «Eskualdun-Fededun» binomioaren ildotik, nehoiz ez genuen orainaldian jarduten jakin, eni besteei bezala, gogoa beti biharko xede hipotetikoen udalatzen baitzebilkidan. Iragan astun lakarraren eta balizko geroaren artean iraun nahi ez zutenek, orain aberats eta zoriontsua erakusten zuten herrialdeetara ihes egiten zuten: kontsumo jendartea eta izerdiaren esplotazioa, biak gaur eternalaren elementuak ziren; bizkitartean iheslari haiek, Orainaren hobetzeko borroketan sartzen ziren, alderdi politikoetan, sindikatuetan, elkartetan, «su emango diogu gure fabrikari!» oihukatuz.

Anartean, eta gau hartan hori neukan kaskoan labana, suak bazterrak suntsitzen zituen, iraganaz, orainaz eta geroaz axolarik ez bailuan; alabaina, edonork pribatuan, mundu bukoliko

eta idiliko honen geldoa su mihiz urratzea amesten zuela noiztenka aitor zezakeen, batez ere hauste egunetako errauts grisezko gurutzea kopetan bizi-muga seinale zekarrenean. Baina lurra, gutxi oldartzen ziren madarikatuz betea zen. Sua ardura, berotzeko baino ez zen erabiltzen. Bat-batean, pobreen eta aberatsen arteko leizea, giroaren epeltzeko baliatzen ziren tekniken ezberdintasunak finkatzen zuela iruditu zitzaidan: gure gau hormatu eta ke urrineko bideen aldean, boteredunek beren gelak, erle kofoin gerizatuen antzera, aire tepo artifizialez hanpatzen zituzten. Sua sobera lanjerosa zen. Erretzeko kemen gehiegi eskatzen zuen eta etxelarren inarrosteko xirminduak, buxkak, egunkari-orrialdeak hauts hiletan metatu behar ziren aldi oroz.

Pentsamendua biribilketa eroan zerabilkidan gauaren minean, bilkuratik etxerakoan, suhaka sail eder haien aitzinean gelditu nintzenean. Zinez faszinatua nintzen: su borobilek urrunetik sustatzen ninduten, eta indigena bihurtzeko zorian, noizbait irakurri edo entzun indio zahar

baten hitzak jin zitzaizkidan izpirituaren hautsen harrotzera.

–Iraganarekiko damuak garamatza guztiak! Kasu iraganari, Oraina ustel eta galaraz baitiezaguke. Iragana sorgin goibela da. Zer edo zer bada gehienetan, zure iragan pertsonalean obratu ez ala oker obratu duzuna; argiki atxiki ezazu buruan, egin behar zenuena baino ez zenuela egin, egitekoa zen orduan. Gainerakoak axola gutxi dauka.

Hala mintzo zen Otso Maingua izeneko indianoa, erdialdeko lautadako belar erraldoiak labakitan kiskailtzeko ordena eman aitzin. Suteko garrak oinutsik zeharkatzen zituen gero, auhen, hasperen eta intziririk gabe. Errege-bide bazter hartan, goizeko bietan jadanik ez zelako nehor pasatzen, elkartasunaren erre usainak zekarkidan bakardadeaz goza nezakeen. Otso bihurtzeko gutizia hazi zitzaidan, isiltasunaren arinaz mendien suzko gerriko haietaraino lehiatzeko lau jauziz: Dantek Beatrizen ohoreetan minberaki agertu infernuko zirkuluak saltoan trebeskatu eta orroaz alde egin! Bego ondikotz Alighieri gaixoa, eta aitor nezala hondarrean mendiko ikus-

garrietan bermatuz, behialako tribuburuaren hitzek, suaren itzalpean, gure herrian berean arrotz, indiano, aborigen, yanomani eta tuaregen pareko moldatzen gintuztela: ez genuen beste aterabiderik. Iragan fosilizatuaren aztaparretarik askatzeko otsoz, antilopez, arranoz, ostrukaz, ainaraz, gameluz, tukanez edo urzoz aldatzea gertatzen zitzaigun. Nolabait, eta suak hala zela egiaztatzen zidan, betidanik ukatutako abereen eta jendeen arteko lotura mistikoa ginen gu, munduko populu primitiboak. Sua lazki hurbiltzen ari zitzaidala antzeman nuen orduan.

Martxo erditsutan, hormek egunak zurpailtzen zituztenean, pentze biluzien azaletan sator puloak turrunpilo biderkatzean, ardiak eta bildotsak marrakaz hautematean, etxe gibeleko muinoetara abiatzen ginen, supiztekoak eta xanbraderak eskuan. Kautxuzko puskari su ematen genion eta ote zango zein iratze etzanen azpian aldizka pausatzen, sua hitzez haiatzen genuela, behiala urrunetik begiztatu borobil perfektuaren osatzeko. Ke urrinez eta hautsez belzturik itzultzen ginen. Estigma sakratu gisa, eskolara larruari josirik generaman urrinaren ezabatzea

luze zen. Biharamunetan, euriaren ondotik, gure aurpegiak eta labakien eremuak ikaragarriak ziren. Halatan ardura, ene bihotza lur erre irudikatu eta irudikatzen dut geroztik: ikatz, hondarkin eta arkaiko. Ondorioz, Euskal Herriko Berde-Buruak haserrez behin salatu zuen botere zentralek «Indiotzat hartzen gaituztela»: politikariaren harridurak urtarriletik martxorako gauetan ez nau eti(li)koki batere kolpatzen, errealitatea delako eta ilunpeetan esku hutsik eskaintzen ditugun ametsaren aroko izpiritu dantzak suak zedarritzen dituelako.

Suak nau azkenik, gasnaren ontzeko premiazkoa zela kontuan hartuz, Isturitze eta Otsozelaiko harpeetara eramaten, bilkuratik etxerakoan denbora galtzen ari naizela. Aldi berean, une berean, sua uhinka bideraino lerratzen dela –jendeak eta etxeak irents ote ditzake?– mende bukaera honetan errebelatu izaki galdua naiz, eta hirugarren karroin aroko karibu ehiztaria. Gizonekin, Aiherra eta Oragarreko malkarretako elurretan kabala erraldoia gatibatu ondoan, harpera bideratzen gara suaren pizteko, artean *Egunkaria*, *Gara* eta *Sud Ouest* Lekainian erosiz.

Ez nuena herenegun mamut animalea gurutzatu Donamartiriko juntan, ardi saldo mantsoa zela ustez? Ala martzianoa zen? Finaren finean, hainbeste laster eta abiaduraz eten, sutearen maldan loak hartzen nau, izarrei so.

Erreko nintzena?

Huts bakun horretan, biak elkar ezagutzen dira;
bakoitzak hamar mila gauza biltzen ditu.
Ez bereizketarik egin sotilaren eta gordinaren
artean: nola jar honen edo haren alde?

Ez zen uda. Ez zen larrazkena. Negua zitekeen oraino. Bilkura hasi aitzin, ostatu zoko hartara gonbidatu ninduzun kafe baten edatera. Ez nuen gogorik baina hala ere, hotzak gatibatzen zuen ostatuan zure hatzetarik sartu nintzen. Kafeak noski zainak inarrosi zizkidan, oilo larrua denetan hedatuz; zure mintzamoldeak halaber. Hitz egiten zenuen, batzarretik landa kafez hanturik lorik aurkituren ez nuela kalkulatu bitartean, hagunez emokatu kikara ezpainetara ekartzen nuenean. Deus ezen lotsa, barra-barra ari zinen, estrategia handik, estrategia hemendik, estrategia alde guztietarik, koilaren soinu zehargiak mugatzen zigun eremu hertsian. Bitxiki behatzen zintudan.

Euskarazko ele arraroa irratian hautematean, irri lakoniko batez lehertzeko gutizia sortzen zi-

tzaidala aldi oroz oroitzen nintzen, estrategia berriaren azalpenak ematen zenizkidan arau. Alabaina, politikarien edo kultura arduradunen ahoetarik isurtzen zen hitz horrek, kolonialismoaren samin gustua zeukan enetako, hainbatetan gaitzetsi lehenagoko «jasankeriaren» beste apaindura bat zen, hots. Gerlarik bizienaren muinean ginen eta anitzetan estrategia baten ozkan jartzeko ekina, gerlaren ondorioei egokitzea baino zela onartzekoa genuen, umilki. Adibideak ez zirena ugariak?

Hastapenean, sukarrak setiatu aditzak mahairatzean, pentsatu nuen hondarra mensten ari zinela, gontzetarik ateratzen, eki soberak erre borta kixkailaren antzera. Ez zintudan sekula horrela ezagutu: Espartako estrategos errabiatuaren itxura zenien gau hartan gau beltzari eta biharamun latzari, amultsuki, eskaintzen. Une berezia pairatzen nuelako sentimendua kolkoan bermatu zitzaidan, eta luma hartu nuen, zure hitzen paperean etzateko, guhaurk ez baldin bagenuen oheratzeko betarik, hitzak bederen ausarki pausatzen ahal zirela iritziz. Bildumak idazterakoan gero hitzak mespretxuz jaukitzen zitzaizki-

dan: loaz ezin ase aditzen kopeta handia zen askotan.

Si vis pacem para bellum joko likitsean ari ginen, aurpegi erdian bi erroitz urraturen antzera begi zuloak borobil zeuzkan ostatuko zerbitzari harrituaren soaren itzalean. Gizona kontuar gibelean, zut-zuta zegoen, estrategia hitza ahots indartsuagoz airarazi zenuen batez, landerra susmatuz. Uste izan nuen orduan, self-defenseko tresnak brauki harrapatuko zituela, eta balizko etsaia hor bertan kalituko! Beldurragatik agian, ez zen bada ez bada, barraren talaiatik higitu. Botza apalduz segitu zenuen, kanpotik zetozen auto herotsak baizik ez zirela entzuten, murmurio soil. Noiztenka, irriz behatzen zenidan, ikusteko ea zure gogoetaren xenda bihurrietan ez nintzenez galtzen. Alabaina, hitz bakarreko monologoetan aise ari nintzen bai!

Une hartan kolkoan zerabilzkidan plantan eta hosto beilegietan apailatu hainbat estrategia estrategiko, gehienak beheko errekara joan zirenak besterik gabe. Behin, harriduraz kolpea eman beharrez, Asia hegoaldekoa asmatu genuen: baina guk genituen buru gainetara napalm

jaurtigailuen errauts pozoitsuak bildu eta irris lohidoietako urmael usteldu geldoetan belaunetaraino sarturik, mugiezin geratu ginen. *Apocalypse Now* filmaren minean kausitu ginen ote? Gero, abilkiago aritzearren, Clausewitzen gerla taktikak aztertu genituen, esperantzaz murritz, gauzak berenaz alda zitezkeela konturatzen hasi ginen arte. Oroitzen? Aski zen menturaz esku ukaldi laino bat horretarako. Sekretupeko haia isila. Erradazu ele bat eta sendatuko naiz, baina estrategiarik ez aipa Jauna!

Xerrent beha nengokizun eta kasko erroan, lepo zainaren heinean zuzen, kilika bat sentitzen nuen estrategiaz ari zinela, garapenarekin biziki ederki ezkontzen zen elea zelako: garapenaren estrategia edo aldaera ezberdinez, estrategiaren garapena. Izen horren sabel hantuan kultura, ekonomia, politika eta zenbaiten sakelen betetzeko eginkizunak uztartzen ziren. Txostenak, aburu-galdaketak, prentsaurreko sainduak, gizarte zibileko kidez osatu lantaldeak, instituzioen parte hartze goretsiak, mahai inguru sakonak, irrati emanaldi sonatuak, denak estrategiaz, Zuberoako «jia» aieruarekin ahoskatzea

hobe naski, mintzatzeko aitzakiak ziren. Aldi oroz, ezer ez zeukanaren haserrea hazi aurretik, hitzaren modernitate teknokratiko globalaren usainak hunkitzen ninduen. Bihotza berazten zidan. Segundo batez, lokutorea izatea amesten nuen. Hargatik, alaitasun eroaren zurrunbiloak ez zidan luzaz irauten. Kristalezko anphora dirdiratsua laster hausten zen, buhameen tupinaren pare, ehun mila puskatan, sekulan ados eremurik finkatzera heltzeke.

Urteak jin urteak joan, estrategiak ez ziren moldez kanbiatzen: jendeak biltzen zituzten, elkarrekin lanean ariarazten bestela bata besteari ausikika zebiltzan beti, damurik gabeko etzirako proiektuen diruztatze oparoak hitz emanez. Herri Kontratuak, PCD, Lurralde Eskemak, Garapen xedeak hurbilegitik ezagutzen genituen. Bi gauza ziren azpimarratzekoak: lehenbizi, lekuan lekuko hautetsien auherreziaren gordetzeko erabiltzen zirela meza kantatu mediatiko hauek; eta bigarrenik, euskal kultura «laguntzeko» estakuruz, erabakietan kultura baztertua suertatzen zela, enpresa eta erakunde pribatu anitzek sos publikoa eskuratzen zutela ahalkerik gabe. Hon-

darrean, leize erraldoia irekitzen zen proiektuen sortzaile eramaileen eta delibero politikoen ondorioak erdiesten zituzten ekile ekonomikoen artean: ez ziren berak. Hizkuntzarekiko Kulturaren munduan jarduten zutenak injustizia sentimenduaz apaintzen ziren.

Artzain onak ardi guztiak manera berean bazkatzen zituela errepikatzen ziguten haur ginenean eta ardien artean zaldarea berdin banatua zela sinesten genuen, jale handiek txikiagoentzat partea uzten zutela. Ildo horretarik latza kausitzen nuen irratian, enekin eskolan ibiliak demagun, garapen estrategiaz elekatzen hautematean, garapena dudan jarri ezean, hitza ezpain artetik lerratzen zitzaienean pulindei bezala hantzen zitzaien papoa. Duela hogei urte beraiek ziren, gure «zaharrek» alokazione eta subentzioekin iraun zutelako, giro kolonialista batean tematu zirela ahoak eman ahala salatzen zutenak. Guraso triste haien umeak ginen eta dignitatez bederen, edo urguilu propioz, ez genuen lur eta behi gorotz urrineko «pasibitate» haren pairatzea merezi, ziotenaz. Hamasei bedatze eskoletan pasaturik, inguruko jendeak baino ikasiago-

ak ginen alabaina: ez ginen bada, lau ardi eta bostehun libera ardikaleko diru-laguntza publikoarekin aseko?

Garapena helburu, politika munduko buruek, nor bere alorrean, denak pentsamendu sailetan kokatzen gintuzten. Sosa partekatzekoa zelarik, nagusiak berak banaketa obratzeko ordez, ez zena zazpietan hobe, bakearen izenean, mutilek erabaki zezaten zer nori joanen zitzaion: management's first law. Aharratzen baldin baziren, elkar hilka edo konpon zitezela, mutilak mutilekin eta kito! Diruaren barreiatzearen zuzengabetasun bermatua baino egokiagorik ez zen, batzuk zoriontsu, besteak errabiaz kexu, eskualde baten kudeatzeko.

Kultur edo ekonomia garapen estrategien emaitzak ikertzea bezalakorik ez zen gainera, egiaztatzen ziren proiektuak ez zirela sekulakoak onartzeko: turismo azpi eta gain egiturak, turismoaren merkatuari plegatu kultur ekoizpenak, arkitektura, gastronomia, mendiko bideak eta erdaraz agertzen ziren sineste tradizionalen zerrendak adibidez. Ohartua zinen engoitik, herrialde hau zinez biziarazten zuten funtsezko

ekintzak garapen orokorraren eskema zehatzetarik kanpo obratzen zirela. Finantzamendu publikorik gabe, gasna puska eta kafe beltz baten trukean anitzetan. EguPeryko opariak usu, gure gero gosearen baketzeko, mardoak, hirotuak eta jan-egun epetik haratekoak ziren.

Burua altxatu zenuen, abiatzekoak ginela xuxurlatuz, justu enekiko niolarik, garapen estrategia horietan zinpurtzen ziren erkideak, atzoko barrikadetako lagunak orobat, nekez ulertzen nituela. Bost axola zitzaidan ordea, sinesten zutelako agian, behialako «borrokek» nolabait boterezko sariren bat merezi zutela: ez ziren debalde ari izan, ez horixe! Ikusten ziren halatan, bilkuretan, hiru piezako konpleak soinean, ttattarrak lepoan tinko, ataxekeixak irekitzen zizkigutela diru eskatzeko paperak luzatuz. Aditz trinkoan zioten:

–Hiru aleak izenpeturik ekarri otoi, datorren asteleheneko berantenez, behar diren dokumentuez horniturik.

–Bai Jauna! –ihardesten genien, errespetuz.

Ostatuko egutera argiztatuan ginen jadanik ahoa hertsi zenuenean. Isiltasun berriaz baliatu nintzen, errateko:

–Nahiago dut biluzik, ene egiazko biluztasuna agerian utz lezakeen arropa uhar kario batez beztiturik baino!

–Zertan ari zara zu oraino?

–Gaztanberarik baduzu?

Mututu ginen bat-batean. Eta bilkura gelarainoko seiehun metroak oinez egiten genituela, ez zitzaigun hitz apurrik ere atera. Mendeak higatu ziren eta ez nuen ezberdintasun handirik atzematen gurasoen eta gure garaiaren artean: herresta pakete haiek subentzio paperak beterik Herriko Etxera zihoazen eta guk gauza bera egiten genuen, hitz irudiz ekileagoak erabiliz. Estrategiak dirdirarazi arditak iheslari zebiltzala konturatzean, etsipenean edo salaketa hutsean behera ez erortzeko ametsak uherregiak geneuzkan. Zorrak ez zuen baitezpada zuzentasuna baldintzatzen.

Menpekotasuna zen: estralurtegiak.

Bide Handiaren oinarria zabala da; haren baitan
deus ez da erraza, deus ez da zaila.
Ikusmolde hertsiak, dudakorrak eta durduzatiak dira:
lasterren joan nahi eta astiroen goaz.

Aldi hartan, beste behin, ilunpez ilunpe, bortu eta zelaietan barna Gasnaren Bidea segitu nuen, Oxkaxen behera jaitsiz, neurea ere ez zen lurraldean aterpetzeko. Xendaz xenda bulta honetan enekin dabilen irakurleari harriduraren mugetan zapartatzear nengoela aitortu beharra diot: gustatzen zitzaidan, bihurgune bakoitzean Cyberoa deitzen nuen tupina horren barnera lerratzen nintzela itxuratzea, anitzetan euriak zein haizeak kolpatu bazter hutsak zeharkatuz. Noizbehinka kabala errebelatu bat gurutzatzen nuen, gautxori baten auhena hautematen eta bat-batean herri argiztatuaren muinera heltzen nintzen, bideak ez zirenez are luzeagoak moldatzen ahal galdezka. Autoko leiho apaldutik, mazela freskoetan alhan utziak izan ziren ardien marraka ahulak preziatzen nituen.

Orduan ere berant nenbilen, bilkura lekua inguratzen zuten pentze berdailetarik ilargi beteari kantan ari ziren igel erlastuen konpainian, kide kalakari harekin Historiaren arrapasatzen egon nintzelako. Kide haren irriaren oihartzuna gozo zitzaidala oroitzen naiz, zeru hondoan, desiraren biderkagarri zitekeen Hartzaren Izarraldea bilatzen nuen bitartean. Argizeituaren menpeko gunea salbu, ortzia lainotsu zegoen. Adiskideari so nengokion halaz, begien helburu soila bailitzan. Hondarrean, zakur galdu baten zaunkak elearen amets arotik iratzarrarazi gintuen eta elizako zeinuek bi kolpe tinko jo zituzten: itzultzea erabaki genuen, zeinek bere aixolbe urrunetara.

Martxo gauetako eztitasunak gatibatzen ninduen eta treneko billete bat erosi behar nuela gogoan sartu zitzaidan, beti hobe sentitzen nintzelako noranahiko billete bat sakelan. Errabia hori zerk hazi zidan ez nekien, hor Oxkaxe gainean: ene gogoa hegaldatu zen ziuntan hilabete pare bat lehenago Frantzia behere horretan zehar egin nuen bidaiaren aztarna mentalera: irudiz aitzinetik ezagutzen ez zuen gizon batekin

solasean bermatuz emazteak *Cosmopolitan* irakurtzen zuen. Astotik oilarrera pasatu nintzen; frantsesek naski alderantziz egiten zutela azpimarratze beharrik ez nuen. Treneko anderearen aldeari berriz bihurtu nintzaion: eskuartean zeukan aldizkariaz gain, jargian erdi irekirik *Femmes Actuelles* ikus nezakeen, mehatzeko bost erregimen proposatzen zituela. Ez daukat neure burua Claude Lelouchentzat, baina gizon eta emazte haren ibilaldia konta diezazuket, agian haien aditzen inpudikotasun publikoak naizen herabea inoxenta inarrosi zuelako.

Emaztea, zioenez, dibortziatua zen, bi haur handiren ama; sesi nezakeenaren arabera, gizona halaber. Geltoki erraldoi hartan, bakoitzak bere aldetik sartu zen bagoian eta elkarren ondoan plantatu zirenean, ea maitaleak ziren eskatu nuen nirekiko, bidaia osoan galdeari erantzun finkorik aurkitu ezinean. Menturaz, bidaiaren aspertzerainoko zabaltasunak zituen unean uneko konfidente moldatzen? Ez zuten ahots isilez mintzatzeko indarrik egiten eta emazteak, ezpainak sentsualki plegatuz, senarra beste batekilan nola

harrapatu zuen erraten zion, ttattit beha zegokion pareko gizonari.

–Lanetik etxera deitu nion behin senarrari, ogia eros zezan, eta badakizu zer?

Aitzineko kideak oilanda gazte moko fier begiak eskaintzen zizkion geldi ez zedin erregutuz.

–Marttak erantzun zidan. Daldaraka ari nintzen, nagusiak ene gaizki izana susmatuko zuelako beldurrez, nor zara zu, nor zara zu oihuka, eroaren antzera leletzen.

–Eta zer egin zenuen? –akuilatu zuen gizonak, *Penthouse*-ko hostoak biribilkatzen zituela, axolagabe.

–Abokatuarekin hitza hartzera joanen nintzela xanpatu nion eta lankide batek, bere esku-zakuan zeukan lexomil pastilla bat eman zidan, ur baso batez lagundurik, jabal nendin bederen. Bistan dena, elkarrekin eraiki gure villa ederrera heldu nintzenean, Marttak lekuak hustuak zituela, baina bere usaina zoko-miko guztietan hedatua zen. Xedera hilgarrian kateztatu lehoiaren maneran nenbilen.

Gizonak, aldizkari pornografikoaren erdiko orrialdeetan biluzik azaltzen zen Pamela Ander-

sonen argazkia miazkatu zuen, zakurrek mugetan autoak egiten zituzten bezain xeheki. Hargatik, dolorez eta doluz beharbada, kontakizun txukunaren ez hausteko, ahurraz gorde zuen posterraren behereko aldea. Trena bat-batean ez-toki hitsean gelditu zen: kai ertzean, Tatieneko koloreko boltsa arrosa eta zuri astunak zeramatzaten jendeen urratsak denek jarraiki genituen. Bi jendeak ahantziz, leihotik begira nintzela, lur honek gero eta gehiago heren munduaren antza zeukala iritzi nuen, urrutizkin mugikorren zirrinta zizkolatsuek isiltasun artifiziala urratu arren. Ahotsetik beretik edana ematen zuen geltokiburuak ateen herstea manatu bezain laster, piopioka hasi zen behialako emaztea, senarra utzirik ezagutu zituen amanteen zerrenda eskainiz –batzuek duten suertea!

–Ohe arrotz frankotan etzan nintzen Fredengandik bereizi ondoko urteetan. Eta azkenean Jean kausitu nuen, badakizu, hiritik kanpo dagoen Goaz dantzalekuan. Ximixta bat izan zen eta mozkor-mozkorrak ginen amodioa lehen aldiz egin genuenean: lekukoa non zeukan ez nezakeen asma eta hark ene gaztelurako zubi hezea-

ren bilatzeko gaitasun eskasa erakutsi zuen hastapenean. Ez naiz oraino segur gauzak behar ziren zuloetan sartu genituenik!

Gizonaren irri gordinak, uxkailtzear, bagoia bete zuen. Emaztearen karkara metalikoak bide berdina hartu zuen. Gizonak mugimendu zabal bat marraztu zuen aulkiaren eremuan, atorrako bigarren eta hirugarren botoia askatuz.

–Zoriontsu zara beraz? –ausartu zen gizona, ez zuela berak horrelako lorpenik erdietsi erantsiz.

Andereak monologo bilakatzen ari zen solasaldia jarraiki zuen.

–Eta zer uste duzu zuk? Sinets ala ez, bi abentura bitxi eduki nituen Jeanekin plantatu aurretik; ile-apaintzailea naiz ofizioz badakizu?

–Ez, ez nekien. Eta? –artekatu zion bidaiariak, *Figaro Magazine* irakurtzera zihoala.

Mutu egon zen emaztea, bulta laburraz, baina udalatzeko alorrera laster hurbildu zen:

–Eszitatzen ninduen zeharo, pausako ene arratsaldeak harekin iragaten nituen gozo-gozo baina ez nion nehoiz zakilik ikusi; bularrak oparitzen nizkion unean hitzordua zeukala oroitaraz-

ten zidan eta tarrapataka ihes zihoakidan. Jakin ezazu marmolean zizelkatu jainko greziar bat bezain eder eta liraina zela! Uste nuen nire sentsualitateaz beldur zela, ile-apaindegiko mutil kolega batekin ateratzen zela baimendu nuen arte. Homosexuala zen.

–Baaa?

Treneko gizonak idi-trapatu marruma bat askatu zuen, emaztea entzutean eta egunkaria malestrukaki plegatzeari ekin zion. Esku ezkerra galtzetan kukutu zuen, segurtasun bila. Ele hustasunera bildu emazteari ondotik, samurkiro xuxurlatu zion, ahapeka, sekretua bailitzan.

–Ahalke dira zinez. Hala ere gixonki memelo horiek beude nitarik urrun!

–Zaude isilik –handios eta loriosaz ihardetsi zion emazteak, karkazail protidikoak aireratuz, genetika aldetiko istripuak noiz nahi gertatzen direla murmuratuz, zetazko blusa irekitik papoa aitzinatzen zuen bitartean.

Gizona are lasaiago landatu zen jargian, zangoak luzatuz eta irekiz, emaztearen aitormenaz atseginez betetzen hasteko maneran.

Goizeko hirurak ziren etxeko giltza atean kokatu nuenean. Bide osoan itxuratu treneko istorioaz hanpatua nintzen oraino: ez nuen ulertzen jendeen hitzez deskargatzeko premia, hauen bata bestearenganako irudizko konfiantza erraldoia, amodio beharra, ulertzen ez nuen bezalaxe karrikan nola ibil zitekeen, Nike pareen ordez, larruzko zapata normalekin. Ordena berdineko ez konprenitzea pairatzen nuela ohartzean, gasna xerra bat jan nuen laguntza eske.

Muga gabetasuna laket zitzaidan.

Bide Handiari heltzen baldin bagagozkio, neurri guztia galtzen dugu: bururik ez buztanik ez duen bidean sartzen gara. Utz ezazu bidea joatera eta gauzek beren izaera propioan segituko dute; esentzian deus ez da mugitzen, deus ez da geldo geratzen.

Zenbaitetan, bideak bideari, hausnarrean hasten naizelarik, neure buruari eskatzen diot ea egoera ez ote litzatekeen ezberdina izango, herioaren kontzientziaren mugetako gauak ez balira gasna xerra meheetan purruskatuko? Ezpainek jakia hunkitzen duteneko unea ez dea amodiozko hurbilketarik ederrenaren ikurra? Autoa herts, hiria zurrungan lo dagoenean preseski etxean sar eta Hori. Fede larderiaren garaian, barkaezinezko bekatu suertatuko zen, lohikeriaren eta lizunkeria gorriaren artean. Larrua jotzea baino zakarragoa, bilkuren ondotiko onanismo gastronomikoa... batez ere harremanen anorexiarekin ezkontzen denean!

Gau hartako aparkaleku zurpailean, urtarrileko haize mehe motzak hezurrak daldararazten

zizkigutenean, bideari ekin aurretik, lagunaren ileak urri higitzen zirela gogoratzen nintzen. Behialako galdeak ilargiari luzatzen nizkiola, urriki handiz behatzen ninduen. Ondotik, jadanik abiatua nintzen baiki, Saharako artzainen zuhur hitz baten oihartzunak muina nahasi zidan: «Bilatuagatik ez baldin baduzu xendetan argirik kausitzen, segur izan zaitez orduan, argia zeure baitan daramazula!». Desertuetan, gauaz argi izpi ahul eta egunaz kopeta ilun jarduten genuenontzat zuhur hitzek norberaren merke eta egoki kontsolatzeko balio zutela gehitu nuen.

Orena ahituz etxera heldu nintzen hondarrean. Deblauki eta nitaz satisfos, hozkailutik gasna atera nuen. Puska fina behatz artean bihikatuz, egongelara arraposki joan eta ihardesgailuan mezu bat neukalako jabetu nintzen: «Osaba Joanes zendu da; zure aiduru gaude bihar Plantsunean!». Ahizpa zen. Ele mamitsuz husturik, gasna eskuan, leihotik so geratu nintzen, karrikaz haraindiko erietxeko teilatuei zuzenki begira. Buruaz, zaindari lana zegien erizaina agurtu nuen, bere txanda zenean aldi oroz egiten genuen legez.

Halatan, Plantsungo nagusi zaharrak azken hatsa eman zuen. Nihaur gauaz bezala, garaitu ezin itxura zeukan gizon puskak mundu hau utzi behar zuen, adioen banatzeko astirik gabe, tipus-tapasean, panpalahara lurrean hedailo, ebasle baten moldean jin herioarekin –baina zertan dabil polizia?– juntatzeko azkenean. Izpiritua ihes joan zitzaidan eta Joanesen bizia bost perpausetan laburtu nuen, *Herria*-n eginen zuten bezala: «Plantsungo Joanesek, iragan astelehen arratsaldean, gutxien uste zenean, bat ere potretik gabe, utzi gaitu, zazpi urtez eritasun latza pairatu ondoan, dakizkigun sufrikarioen erdian, umore onez eta kuraiaz beterik. Paralisiatua egonagatik irri egitea maite ukanki, auzoen alegeratzeko aitzakiarik ez zuen galtzen. Gizon atsegina zen, hamahiru haurren aita, biga bakarrik bere emazte Maixan zenarekin ukanak ordea, denak bataiatuak bistan dena, artzain nekaezina, gerlari ohia –asunen eta naharren kontra...– herriko mus txapelketaren antolatzailea osagarrian zegoeno. Hondar urte hitsak semearen eta honen familiaren amodioz setiaturik eraman zituen».

Herria-ko zutabeak, Joanesen trakako gizonen biografientzat, beti aski zabalak zirela gogoratzen nintzen eta enterramendu eguneko gertakariekin jarraituko zuen artikulua txukundu nuen :«Ehortzi genuen –arraiki ote?– eta zeremoniara Eskual Herriko sei kantoietarik jende saldo handia bildu zen. Dawson, Joanesen semeatxiak apezak hautatu Charles Peguyren olerki bat irakurri zuen, hunkigarria zinez eta dolorezko momentu hauetan esperantza ekarlea; bizkitartean, denek konprenitzeko gisan, apezak frantses ederrenean eskaini zuen predikuan hilaz laudorioak baizik ez zituen eman...» Tanpez isildu nintzen. Lekuz kanpoko zarata batek ildo sasi-literariotik iradoki ninduen: «Apezak frantses ederrenean?». Ardura egiten zen arren, Joanesentzat ez zen posible. Hotzikara hezeak bizkarrezur aldea busti zidan eta gaizki sentitu nintzen. Ahots argiz, nirekiko ahoskatu nuen goraki:

–Frantsesezko ehortz meza jasan baino, nahiago dut sekula ez hil.

Pentsamenduaren bortitzak harritu ninduen, herioaren mehatxuak Joanes gaixoa izutu zukeen hein berean. Gaixo Joanes nioen, baina

deabruen errekaitua izana zen laurogei urtez. Bat-batean malgortu zenean, amarekin bisitaz nindoakiolarik, begien hondoan, hiltzearen larderia barneratua susmatzen nion. Paralisiak jo aurretik, ardoa, etxekoa, gasnaren lagungarri, edatea medikuak debekatu zionean, ez zuen beldurrik, desafio aire gogorra keinuetan baizik.

–Ez daut meiku pixtolet horrek ene arno ttilikanoa ezeztatuko arauz? Bena bena bena zer duzue errepettitta mehakoil hori? Nondik jalgi datazue apo zahar kuskuilatu hau? Ni biziko niz oraino ere, Jinkoak nahi baldin badu.

Ikusten nuen orduan koloreak gorri, sudur punta luzea ubel, tripa kanpoan, zilkoa agerian, aitzin-gibel balantzaka, kikara eskuetan, kafeari lau sukre mokor aurtikitzen, espantuz, hilezkorra bailitzan, emazteari zanpa eta tunakoka ordenak istantean betetzen ez baldin bazituen, haurrak erasiaz eta azotez hezten, eta auzoak noski errespetuan atxikitzen; kontatzen zen nola behin eroturik, Kakuteiko ardiak bere funtsetan ase zirela mendekatzeko, artoz landatu etxe hartako bost hektareak, alta ez ziren transgenikoak, dailuz moztu zituen. Ez dut erratearen beharrik Ka-

kuteiek ardiak bordaren inguruetan zaindu zituela hortik hara.

Ardiak artaturik, herriko plazako ardo saltegiaren oporrean iragaten zituen arratsaldeak, emaztea atzetik zeukala negarrez oihuka «Non hiz Joanes? Haugi etxera engoitik!». Gizona entzun gogor edo etsia zebilen ardurenean.

–Bakea eman, emazte minttulina –ihardesten zion–. Ez duna beste egitekorik!

–Zeeer? –eskatzen zion ahuntz ahotsez hiru lagunetan adinduenak, trufari, ardo botila eskainiz.

–Edan ezak to! Ez diagu erremedio hoberik!

Eta gerlak aipatzen zituzten, gerlen oroitzapenetan berotzen ziren izpiritu motelduak, nork bere gerlak, banaka, bata bestearen ondotik: ahuntzak Chemin des Damesko bataila zuen ezpainetan, ganibeta ahurrean eta mokanes soila aurpegian «irabazi» zutena; Joanesek eta Pierrak Alemanian gatibu higatu zituzten urte airosak zerrendatzeko ohitura zeukaten.

–Emazteak, ohit hiza, punpaka!

–Ba seurki ta hale ohit nizala! Bena debaklaren egunetan Verdun aldean tiro bat bildu nian koskoiletan eta ezin izan diat gehiago!

–Domaia duk! Emazte haiek punpaka! Maixanek, orroen neurriko jauziak balitu, mekaguen la fuxkro...

Gazteena, Gerard botz apal eta ikaratiaz mintzo zen. Aljeria hegoaldean ibilia zenak ez zuen gauza handirik kontatzeko, salbu ziblaz tronpaturik, adiskidez osatu frantses arma-saldoak bizkarrean mitrailatu zuela eta geroztik aulki ibiltarian mugitzen zela. Ez zuen, damurik ere, pentsionerik hunkitzea lortu, gerla ekintza, laneko istripu gisa kontsideratua izan zelakoan. Laukote ardotuaren paretik pasatzen nintzenean, nioen:

–Soldadu erraldoi horien haurrak gara! Bihoa borroka aurrera!

–Nongoa hut hi, hain mentsa? –galdegiten zidan, trankalaka, Joanesek bere iloba zuzena nintzela jadanik ohartezin.

Elkarren zinkurinak eta malkoak idortzen ari ziren, zintzurrak bustiz, Joanes paralisiatu zen arte bederen. Ardien kontatzen zebilela, tanpez, lurrera erori zenetik hil aitzineko urteak halaz,

ohean etzanik gastatu zituen. Ez zuen hitz egiteko ahalik, semeari terrentan eskatzen ziona salbu:

–Ardiak sartu tuzka?

–Bai aita –ihardesten zion nardaturik semeak eta gizona loeria itsusi eta karrankatsu batera lerratzen zen, biharamunean galdera erritualaren orduak jo artean.

Maixan minbiziak eraman zionean, begi izkinan bi negar ttantta isurtzen nabaritu zuten etxekoek eta auzoek. Gainerakorik ez. Korroka bat agian. Sotoko oporreko lagunen «partitzeaz» halaber, doi-doia ohartu zen, baina semeak baten zentzearen berri ematen ziolarik, soan su menperagaitzaren garra sumatzen zion «Ni beno lehenago joan duk alaxinkua!» murmuratzeko moduan.

Lo eskasez aharrausika, bilkura goiz hartan, Plantsunera otoitz egitera abiatu ginen ahizpa eta amarekin. Akiduraz, ez nintzen zutik egoten ahal ere; ondorioz bizkarrez armairu dirdiratzen ibili nintzen. Ez zitzaidan irudi Joanes hila zenik: gauezko bideek, egunaren irrealitatearen oinarria desesperatuki agerian uzten zidaten. Hala-

tan, kutxaren barnean, Joanes plantan baketurik atzeman genuen, igandez apaindua, konderak ahurrean bihikatzen eta lehen auzoak elizatik katrelan espreski ekarri gurutze zilar astuna buru gainean erortzear. Gorpuzkeran belaunaldi baten garaitu ezintasuna oraino irakurri nuen eta bezperako hotz ikara hezeak soina daldararazi zidan berriro: gure aitzinekoak horrelakoak ziren, zapalduezinak beren zozo airearekin, apailakuntzarik gabe pairatu ehun mila hersturetarik bizirik atereak, ausarki jatea eta edatea saritzat zeukatenak. Izariz kanpoko fedea ezarri zuten gauzen eta egituren progrean, fedea halaber handiki eta eskolatuengan: amodioz eta gure onerako dena purtta-purtta galtzera utzi zuten arren, hain zuzen horregatik, garaiezinak.

Joanesen azken hitzak «Ardiak sartu tuzka?» izan omen ziren. Ezindurik ere, zaharren laneko errabiak zur eta lur aldatzen ninduen. Hemendik at, Joanes Mongoliako estepetako artzainak lagun, Josafateko Soroan ardika lehiatzen ahalko zen, semearen egunerokotasuna trabatu beharrik gabe. Ez ote zen, Mongoliako umeei kontatzen zitzaien bezala, lana bururatzean Plantsu-

nera berriz itzuliko? Baina ixo, bagenekien zehazki, zergatik ez genuen hilen berpiztean gehiago sinesten!

Gasna bedi izar esne, betiereko loan ere.

Gauzen funtsari adi egon zaitez: Bidearekin bat eginen duzu, herstura eta doloreetarik askatuz. Pentsuak gatibu dauzkagunean Egiari bizkarrez gagozkio: antsian behera goaz.

Negu hartan, sukarren neurtzeko termometroak arras gora zeuden arren, axuriaren prezioak laborarientzat alderantziz biziki apal suertatzen ziren, bi egoeren arteko ageriko loturarik ez zela bistan dena. Urte txarraren iragarpena alabaina, haragi mota sukratu eta gurintsua ekoizten zutenentzat. Irrati, telebista eta egunkarietan, egunetik egunera, leitmotiv krudelen antzera, axuriki egileen negar zotinak mikro eta hostoetan behera lerratzen ziren.

–Larrazken hondarrean, axuria saldu da hamazazpi-hemeretzi liberatan, Eguberri aldera, hamahirura jaisteko.

–Eta zergatik apaltze hori? –eskatzen zuten kazetariek, hitz egokiak hautatuz, minaren ez karrakatzeko.

–Ba, beti bezala, espainolen errua da. Orain arte axurikia hara saltzen genuen trumilka, kamioiak beteka, baina mutur zuritu dira irudiz eta berek hazi bildotsen zitzi arinagoa nahiago dute. Ondorioz, Europako eskaintza merketik brauki hartzen dute, guretik baino.

–Eta bada esperantzarik?

–Ageriko Bazko inguruan...

Bazko: izan abertzale, izan laborari, anitzetan biak histeria berdinean biltzen zirela, itxaropen nahasi guztien helmuga mitikoa! Ondotik Salbatore, baina jadanik, bost axola! Eperik eperako epeak halakoak ziren axuri merkatuetan maiz denbora galtzen zutela uste zutenentzat. Zigarro meharrak biribilkatzen zituzten, tratulantak, martxandizari ohartu bitartean, zaintsuki eta frankotan erabat nazkaturik. Une horretan, taularen ahal bezain txukunki moldatzeko erants genezake Europako Laborantza Politika Komuna madarikatzen zutela. Jendearen gustuak aldatzen zihoazen: axurikia jatekotan, amodioa haina light eskatzen genuen. Neguan elurrak balakatu eskualdeotako bazkak nasaiegiak ziren, gero ensilage edo belar idor bihurtzerakoan.

Egiaz, beti zerbait bazen joaten ez zena, lana ahalik hobekien eramanagatik. Etsitzekoa bazen azkenean!

Mikroan mintzo zen laborantzako teknikariak, prezioen haustea ele zuhur eta apurrez aipatzen zuen, bidenabar ekonomia kolonial kurtsoa behatzaile goiztiarrei oparituz. Eguberri hurbiltzean, prezioak lehertzen ziren, mozkinak ugaritzen zirelako. Aldi berean, kantitatea segurtatzen zuten herrialde zenbaitek, merkatu zoladura-prezioa baino are apalago saltzen zuten axurikia, dumping eginez eta laborari parrasta bat azienden etxean atxikitzera bortxatuak ziren. Prefosta, axuria arditegian ez zen baraurik egoten, jaten zuen egunean hiruretan bederen, ematen zuena baino anitzez gehiago. Hemendik aitzina axuri haragi zurpailaren produzitzen hastea gomendatzen zien gizonak artzainei, merkatuaren eskaerara makurtzea, bospasei asteren buruan kabala marrakarien saltzea, hots.

King efektuen harat-honatak baztertzen zituen mintzalariak, etxalde bakoitzari laborantza ekoitz-moldeen taylorizazioa lehenik eta toyotizazioa ondotik, aholkatzeko. Argi zirrintako ema-

naldi hartan, inflazioaren aipamena baizik ez zen eskas. Inflazio-tasa tinkatzearen xenda doloretsua aztertzean, gure teknikariak aurki merkatuaren itxuraldaketaren zein hertsatzearen fenomenoaren zergatiari erantzuna kausituko zion. Eurolandean derrigorrez sartzeko, jendeen erosi ahalak hormatu zituzten gobernariek, eta azkenean, Altzürüküko ogia salbu, nehor ez zen deus ezen ordaintzeko gai. Auzo estatuan adibidez, sei milioi izaki hilabetean hiru mila liberarekin bizi zen, beste hainbeste oraino gutxiagorekin, eta gehiengoa SMICaren lerroan, Jakintza puntu honek ez zuen nehola ere merkatuen garapenik segurtatzen. Iltzez hornitu larruzko gerrikoa, azalari gero eta hurbilago zegoen. Lehen ministroa halaber, gantza galtzeko bidean jarri zitzaien eta prentsan hedatu zen berriak, ez zuen ezer onik iragartzen.

Laborantzako teknikari eleant hark Ricardoren legea ager zezakeen berdinki, Zuberoako Botzako seiak eta erditako berri sailean: hilabete sariak den mendrena goititzean, ez zen usu gertatzen ordea, familien jateko erosketak beti maila berean geratzen ziren, etxeko apaingarri

eta tresnetan baliatzen zela diru gehigarria. Hortaz aparte, nork zuen erremedio debekatuz hazi haragia irentsiz kutsatua izateko gutizia? Nehork. Laster batean, gainera, lipido, protido eta gluzido sintetikoz osatu janariak, egunean premiazkoa genuen kaloria kopurua sabeleratuko genuen ahamen bakarraz eta merkatuak emeki-emeki desagertuko ziren. Laborariak ondorioz, besoak mukuru mozkin gera zitezkeen Donapauleko edo Mauleko azoka estalien hegietarik isurtzen zitzaizkien koteren pean.

Teknikariak arras pragmatikoa zirudien, bazekien zer obratu behar zen, buruaz beste egin gabe, merkatuari egokitzeko. Ahots finko eta leunez ari zen, hitzak lañoki herrokan pausatuz, teknikari baten maneran funtsean. Elkarrizketa mamitsua behatzen nengoen artean, gaztetan anitzetan entzunaz oroitzen nintzen.

–Laborantzatik bizitzekotan, bilaka zaitez teknikari! Eta gaurko egoeran hobe zen hala izatea, axuri ekoizle baino. Garai batean, artzain bakarti bihurtzeko gogoa neukan, baina nekazaritzako ametsak zangopilatu nituen aski laster, aitzurraren giderrak ahurrak odoletan babatzen zizkida-

lako: auherra nintzen. Teknikari edo kontularirako bokaziorik ez eta erabat abandonatu nuen sektore primarioan kokatzeko ene xede leiala. Hitzaren belardiak alhatzen ditut hargatik. Destera zahar burbuilatsuetan mihiak eta mintzoak zorrozten saiatzen naiz goldeak beti nabar atxikiz.

Baina hau beste Historia bat da.

Antsiak arima nekatzen du: zergatik honi ihes eta hura onartu? Garraio bakarraren bidea hartu nahi baldin baduzu, sei zentzuen gauzekiko aurre iritzirik ez hazi.

Le Monde-n hogeita hamargarren orrialdean irakurri eta bilkuratik etxerako ibilaldi gautarrean berria alde guztietara plegatu nuen: «Agur gutuna idatzi ondoan, urtarrilaren 12an, astearte iluntzearekin, 86 urteko emazte zahar bat bere Ivryko baratzean aulki luzean etzan eta elurpean hiltzen joan zen». Egunkariak ez zuen agertzen emaztea zein egoeratan atzeman zuten leku hartara heldu ziren artatzaileek? Emazte adinduaren izenaz deus ez: Narayama izan zitekeen, baina banekien, banekien funtsean kazetak aipatzen zuen Maddalen Erreka zela. Adiskide, debaldeko eta euskal literatura nehondik ere aberasten ez duten hainbat orrialderen buruan adiskiderik geratzen baldin bazait bederen, adiskide beraz, nolaz eta nondik dakidan hain segurki eskatuko didazu menturaz.

Nahiko nukeen arren, ez naiz aztia, gasnak ez nau pertzepzioaren ateen haraindira eroaten, telepatia zein sinpatiaren ordez laketago zait urdepatia, are gutxiago ez naiz X3C izarbeletik etorri eta idazlez itxuraldatu den V kuskandela ikaragarria. Ezer ez naiz eta badakit.

Egunkari hark ateratzen zuen berriaren pertsonaia nagusia Maddalen Erreka zela banekien, emaztearen egiazki ezagutzeko parada eduki nuelako ene gazte aroko exilio-bideetan. Alabaina, Antonin Artaud poeta iluminatuak azken hatsa eman zuen ospitalea zegoen auzuneko lantoki publiko batean egunak higatzen nituen orduan: Tarahumara umeak herrokan, konkorturik eta lasaigarriz zintzurreraino emokaturik, jiten zitzaizkidan, gordeka bezala, sos bila. Begi hil haiek oro noiztenka zoro etxetik eskapatzen ziren, baina ez luzerako haatik, laster anbulantzia herotsak hautematen zirelako, lanetik apartamentu hitsetara presaka zihoazen jendeen bakea kabala sangreatu oihu larrutuz hausten zutenen harrapatzera. Erreka anderea ez zen Antonin Artauden kidegokoa. Bestelakoa zen.

Maddalen, hala dei dezagun hemendik aurrera, urteek haragiz hustu emazte mehakoil laburra zen. Begitartean, betaurreko hirukoitzak zeramatzan. Arropa pobre eta hitsez bezti zen. Bizi osoa lanean eramana zuen, Parisko soto bateko dendari atelierrean, turkiar eme eta haur hotzak ekarrarazi zituzten tarte horretan, Bretainiako Crozon arrantzale herritik gazte joan zenetik erretreta hartu zueneraino. Mintzamoldean, haizeek izoztu lurmutur hartako soinuak atxikiak zituen, batez ere azken hizkien hersteko eta aldi berean, herrestarazteko ohiturak. Maddalenen behatzea maite nuen, Tristan tristearen eta Isolde gosaioaren Brokeland oihanean barna gidatzen baininduen, nolabait, herrialde tragikotik urrundua izan zelako. Biltzen gintuen destinoaren altzairuzko zerupean ez zen urrezko orraziri k, ez eta Graal sakratuaren altxorreko diamantez hornitu kalizarik. Ezer ez, salbu hatsaren mugimenduaren etena.

Gure ametsak, eskualde anitzetako tren geltoki busti edo portu zikinen kaietan hurrantzen zirenak ziren; hiri nagusia gehienontzat, gero gabeziaren tupina herdoildua zen, sentimendu ho-

rrek gintuela hain zuzen elkartzen eta behin-betiko etsitzetik desbideratzen. Lanaren ukateak, mugimenduaren jarraipena itxura zezakeen, baina ez zuen ametsaren kidetasunarekiko inongo loturarik. Maddalenek erraten zidanaren arabera hargatik, esklabo bihurtzen zuen lana utziz geroztik gustatzen zitzaion Ivryko karrika bazterretan, itsas ertzak irudikatuz, debaldeko kazeta eta paperak zakar ontzietarik salbatzen aritzea, orbel hezeak, txirla urtsuak nahiz harkaitzetan hautsi arrain zatiak bailiran. Maurice Thorez abenidako larunbat goizeko merkatuan erosi mihimenezko sarea erabiltzen zuen horretarako, eta eguna bukatzean, uzta ona zitzaiola berretsirik, zazpiak laurden gutxitan lantokira zetorkidan, hitz egin lehiaz hanpatua. Humanoetan, nihauren humanitateari buruz duda latzak neuzkan arren, bere interlokutore bakarra omen nintzen.

Bi zangodun guztiak joan arte igurikatzen zuen fotokopiagailuaren ondoan, eta hurbiltzen zitzaidan, begi lagunak eri zalantzakorraz ozkan jarriz.

–Pierre Curieko zikindegian, ingelesaren irakasteko aldizkaria atzeman dut. Gogoa dut orain mintzaira baten ikasteko. Zer diozu?

–Biba zu –ihardesten nion, segituz–: baina hainbeste trasturekin, etxea estaliko duzu!

–Egia erran, ez dut etxerik. Duela bost urte kanporatu ninduten, periferikoaren aldameneko ibai hegi ireki hartan zentro komertzial erraldoiaren eraikitzeko. Badakizu. Gaur egun, baratzea duen txabola eskas batean egoten naiz, Gagarin HLM multzoaren auzoan. Sosa behar dut ori zu...

Dirua ematen nion amultsuki, nigana heltzeko oinez zegien bidea mentalki errepasatuz: Gagarin egoitza saila Stalingrad etorbide aldean zegoen, Stalin plazaren inguruan. Hortik Danielle Casanova karrikara jauzi egiten zuen, metroaren hartzeko. Maddalen Erreka ibiltzaile ona zen, biltzaile hobea naski. Gau apaletan kuxeluz bezala etortzen zitzaidanean modazko eta bihotzeko aldizkariak oparitzen zizkidan.

–Ez dut nik horien beharrik! Har itzazu.

–Atxiki zuretzat! Gozoak dira irakurtzeko. Lady Diren gizongai berriaz artikulu sakon bat bada...

–Ene adinean –mozten ninduen–, ez dut printze urdinez axola handirik.

Leihatilaren azpitik, ongi plegatzen zituen hilabetekari koloretsuak luzatzen zizkidan. Mila eskerka zinpurtzen nintzaion. Eta hitzak isurtzen zitzaizkigun, bazekielako Maddalenek hunkitzen ninduela, erretzen. Behin ordea, biziaz ari ginela, durduzatuz eta galdea euskaldunki bihurdikatuz, eskatu nion:

–Ezkondua zara Maddalen?

–Zuk dena jakin nahi duzu! Uste dut ezetz. Izan baldin banaiz, aspaldi zen eta ez naiz gogoratzen noiz izan zitekeen.

Irri karkaila kokin bezain xoxo batez lehertu zen Maddalen orduan eta algara xehe hark, mundua inarros zezakeela iruditzen zitzaidan. Marguerite Durasen nobela batean noizbait kausitu nuen, deus ez zuenaren alegrantzia umil eta mendekariaren musika, Vitryko eremuetan gertatzen zen istorioa kontatzen zuela.

Maddalen Erreka metroko arroiletan gurutzatzen nuenean, plastikozko pegarrak dohaineko urez betetzen laguntzen nion, eleka egoten ginen ilunpeak ilunpeari eta azkenean nor bere

etxera abiatzen zen, lur azala aski jorratua zela ohartzen ginenean. Pentsatzen jarririk, Maddalenen herioak biziaren antzekoa behar zuen: ez zen hiritar izutu eta melenga haietarik. Halatan, elurra mara-mara aritu zen larunbat gau batez, etengabeko exilio geldoaren menpe abandonatu gintuen. Urtetik urtera aurrekontuak murrizten zitzaizkien Ivryko udaleko zerbitzu sozialentzat, huts egite galanta zena, jendearentzat, bereziki Maddalen Erreka bezalakoentzat, ametsaren hondar hatseko garaipena zen.

Berdin joan nahi nuke: elurte batez.

Je retourne à Ivry.

Gauzak ez dituzularik gehiago gorrotatuko, orduan sartuko zara argitasunean. Zuhurra deus obratu gabe, dago; eroa aldiz berez kateatzen da.

Bilkura luzea, astuna eta urmaela bezain nahasiaren ondotik goizaldera etxeratu nintzen. Izenda ez nezakeen sentimendu goibel batengatik, egia erran, bazter so anitzik gabe bidaia kexu eraman nuen. Antsia zena? Akidura? Gasnaren bidea segitu nuen beste behin, zientifikoki aldion, herenegun arratsaldean supermerkatuan bildu gasna tipikoaren erreklama hostaileko argi eta eder guneak gogoan: ni baino sanoagoak ziren «gure» inguruak eta ondikotz etsia nenbilen; funtsean haserre hargatik, faltsukeriaren xendak, gasnaren antzekoak zirelako, indartsuak, plantakoak eta behar bezalakoak. Faltsukeriak nolabait irauten laguntzen ote gintuen?

Egoera horretan, hiria zeharkatu nuenean, karrikak jendez mukuru zeudela ohartu nintzen: ikusiz besten arrakasta, ostaleren eta hauen sustatzaile sutsu zebiltzan herriko kontseilariak behingoz kontent izaten ahal ziren, *Sud Ouest-*

en irakurriko zutela gero «Un succés remarquable!» beren urteko negar auhen sailak halatan isilaraziz. Autoko leihotik, pixa idor urrina zeriela karrikei, bide erdira pantzoila jori malguen irudira luzatu tabernako kontuarrari eta goitikin narras hatsa aldiz hiriko izkina ilun eta gordeei zeriela usnatu nuen disgustuz. Hiru zartagailu, lau gasna transgeniko eta zazpi mozkor erraldoi: hori zen eskaintzea maite genuen ohizko itxura mediatikoa! Axolagabe edo umore onez nengoenean spot horiek jasan eta onar nitzakeen; izpiritua irakiten hasten zitzaidanean ordea ezin. Bestondoetakoa itzaleko ahur beltzek agiri publikoen bidez kudeatu eta usteltzen zihoan gure pentsamendu jadanik bakunaren hirotzearen aire zizkolatsua ere bazela iruditzen zitzaidan. Lehen musu eta balaken trukatzeko toki horiek zituzten preseski, bikote moldatu berriek hautatzen, ezer ez bailitzan. Haserre nintzelako agian, amodioa bera gohain orokorraren zurrunbiloan urtarazi nuen.

Etxeratu nintzenean, mendeek ausikika kolpatu haritzaren maldan gurutzatu kuplearen irudia zerabilkidan kolkoan: gazteak ziren, hain

gazteak! Neskaren ahoak mutikoarena irensten zuela ematen zuen, esku irekiak anartean atorrak harrotuz gorputzeko zati leun azaleratuen aztaparkatzen zebiltzala, atsegin eta dolorezko intziriak doi-doia gordetzen saiatuz. Apartamentuko mahai kantoian, bideko ikuskizunak hatz bilakaturik geratu nintzen lo ezin, asea eta barnez nahikoa hunkitua: desiraren gaueko erakustaldiek, debaldeko bilkuren ondotiko bakardadearen izaria oparimintzen zidaten. Une psikologiko neketsu hauen jabalgarri, medikuek asmatzen ahalko zituzketen, eta agudo, papoan pausatzeko patx eratxikorrak, horrela mikro lo ugarien iturriak nornahiri zabalduz. Ez nieke alabaina besterik eskatuko!

Zainen berriz biltzeko Mairosek utzi *Gogor* aldizkari pornografikoa harrapatu eta kanapean jarri nintzen. Errebistaren orrialdeen inguratzen hastean, artikulu sakonak baztertu eta biluzik ateratzen ziren gorputz argazkiei begirune berezia eskaintzen nien. Neurekiko pornografiaren biluztasuna kontsolagarri zitzaidala murmuratu nuen. Eskerrak ez ninduela orduan, noiztenka hesitzen nauten egiazko euskaldun zuhur eta

zintzo bihi batek begiztatu: mirakulua izanen zen naski gizonezko erkide batekin pornokien komentatzeko ekina, jadanik lizun eta lohi baldin bazitzaion estatistika zurrungatsuetarik isuri euskararen desagertzearen aipamena bera. Hau to! Kontzientziaren arras lasaitzeko, gasna xerra bat moztu eta ezpainetaratu nuen.

Gogor hilabetekariko iragarki sailkatuen aldera pasatu nintzen emeki-emeki. Hizki txikitan zerrendatzen zen orri leun hormatuetako desira bilatzen nuen: bat-batean onartzekoa nuen bista lazki laburtzen ari zitzaidala. Ordea betazalak plomuz hantuak neuzkala nabaritu arte irakurtzen aritu nintzen.

–E, 52 u, ostatuak eta tabernak ez laket (ez da erraz horrela) Bil. adiskide E. 45-57 u, sentibera, ateratzeko, zintzoa, mintzatzeko, laztantzeko. Idatz: 35132 zk.

–G 35 u, 1 m 73, 62 k, gaztaina kolore, arina, begi urdin, moto-motozale, intel, sentsuala, bil. Pot. Gustu berdinen partekatzeko. Elkar bizi. Balizko. Laster arte. Idatz: 35122 zk.

–G, berrogeiko, 1 m 76, 65 k, bilo hori, gorputz eder, sentimentala, eskolatua, umore eta

uzki handikoa, bere sagar erdia bil. du, 35-45 urte, mehea, abila, une gozoak, irriak, bidaiak, makarroniak partekatzeko hots. Tel + argazkia otoi. Idatz: 35578 zk.

–E 50 u, goi maila ikask. Biloak beltz eta luze, begi urdinak, ameslari, bat-bateko, ezkondua, bere biziko E bil. 30-50 u, harreman etengabe eta samurrerako. Idatz: 57098 zk.

–49 u, g, 1m 78, 67 k, beltzarana, bil. G ekilea, une soil eztietarako eta + kidetasunik balitz. Jas. naiz, alegera, lasaia eta Batuaren maitalea. Laster arte. Idatz: 35039 zk.

–25 urteko g, bisex bilatzen ditu 18-25 urte art. Egoera berdineko Potikoak, diskrezioa handienarekin noizbehinkako harremanetarako. Idatz: 65432 zk.

–Nesk. Lesb. Bilatzen nesk. Lesb. batekiko harreman finkoa, adinak axolarik ez du. Idatz: 90873 zk.

Soa altxatu eta ordulariari behatu nion. Tenorea aitzina zihoala ohartu nintzen batetik –lanerako ordua nukeen– eta bestetik behialako antsiaz husten nindoala. Aldizkariaren azken hostora heltzean, halatan ezpainak poz minberaz zi-

murdikatu nituen, ez jakin jadanik zein esku trebe aukera, Tatiana (110 p, uzkitxo, 24 ordu, Hotel, etxe, Visa) ala Jessicaren (berria, beneta-ko sua, beltxinga, 95 p, gosetia, 24 ordu, hotel, etxe, Visa) proposamenen artean. Udako sexu-bide hiper beroak xerkatzen nituena nik ere, inori deus aitortu gabe, oihanak suntsituz sor-tzen ziren hilabetekarietako gizon (29/3 buzt.) zein emazte (130 p) super hornituekin?

Loak eraman aitzin, bilkuraren tentsio bizkar mazelatik are urruntzen ninduten bizpahiru go-goeta inutil neramatzan oraino: apuñatik isuri endomorphina ttanttak premiazkoak zitzaizkida-la sinetsiz, ahurrak sabelpera bideratu nituen, onanismoak apainkeria egokiaren prokreazio helburu saindutik saihesten ninduela ustez. Ala-baina, guztiz gehienek, Axularretik haste –hauxe gizon bekaiztia!– beren prediku txukun eta hitze-tan abusu-gai bakartia apalesten zuten. Apez eta notable herrokek, Betty Dodson amerikar ikerla-riaren pare, euskara bizitzen lagunduko zuten arraiki *Ontsa Hilçeco bidea* liburuxken ordez *Egociro masturbatçeco soroac* epaitu baldin ba-zituzten, eiki. Balaka bat, balaka bi. Bat-batean

kofesategiko penitentzia astunez oroituz, eskua izotz gelditu zitzaidan. Heziketaren zama inkontzientea: benetako euskalduna nintzen.

Ene bigarren pentsamendu alorra, hala deitu badaiteke behintzat, lehena bezain alferra kausituko du, liburu hau Aitorren hizkuntzaz irakurtzearren hartu duen abertzale suharrak: justuki nioen, mintzaira zaharraren osoki normalizatzeko eta estandarizatzeko, desira linguistikoen suak pizteko, gizona edo emazteak larru gorritan, molde erakargarrian –rotin zureko aulkietan demagun eta ez beti karrikan manifestatzen...– agertuko lekizkigukeen argazki koloretsuz hanpatu hilabetekari bat eskas genuela. Ene irudi soileko, gisa horretako kultura ekoizpenak, garapen estrategia ekonomikoaz hazi lau lantegi mega guayek baino gehiago ekarriko lioke euskarari. Enpresetan euskara ofizial izan arren langilearen esplotazioak lirauke, ez?

Ohe hegiko apalean metatzera utzi gasna azal urrintsuak mirestean, burutazio antzuak oro hasperenka zendu zitzaizkidan. Erabaki nuen orduan, Euskal Kultur Erakundeko zuzendariarekin, deblauki eta sanoki, aldizkari pornografiko

baikorraren ideiaz solastatzea, biharko Hizkuntza Kontseiluari zerbait helburu finko ematearren. Zuzendari haren urratsak hargatik, ez ziren nire gauezkoetan lerratzen. Gasnaren bideek urratu Euskal Herrian egiazki zaila zen gurutzatzea!

Iragarki sailkatua.

Ez ahantz igortzea.

Gauzek ez daukate berezitasunik;
hau gure atxikimendutik sortzen zaie.
Horietaz baliatzeko izpirituaren erabiltzea
ez dea bada galtzerik latzena?

Ilunpez ilunpe, etxeratu nintzenean, bizpahirutan ebakiagatik, ez nuen badaezpada Gasnaren Bidea segitu. Larrupe hura tiran neukan eta zulo guztietarik, izerdiarekin batera, kexua zeridan. Ez zen ohizko bizitzeko angustia, ez, zerbait arraro eta mingarriago zen. Bilkura ongi iragan zen hondarrean eta ez zuen hira horrekiko lotura izpirik. Beste batzar batek zuen errua. Gaurko haserre bultaren erreferentziarik ez nuelako aurkitzen europar literaturan etsitzen ari nintzen. Buruz banekien alta Etxepareren mende ahituko *Desesperatuaren Eresia* http://www.dubellay.com lekuan kausi nezakeela, baina denetarik urrun «Et qui lâchera la bride à la fureur que je sens?» errepikatuz nenbilen, birjinitate kulturala galdua ez zuen indigena baten eran. Bidean, alabaina, oker edo zuzen,

denbora pasan idazle unibertsalen lumaren mihitik isurtzen ene sentimenduen mirailak mirestea laket zitzaidan. Gasnak ez ninduen beti baketzen.

Louis Owen edo Leslie Marmon Silkoren orrialdeen alhatzera akuilatu nuen gogoa, neraman irakin aroaren antzeko zerbaiten oihartzunaren bila. Eta itxuratuak kontsolatu ninduen: bakarretan, desesperantzak berak bizitzera haiatzen gintuen. Gaueko ibilaldiaren segundoak oro halatan, navajo, anjou zein txeroki neurtitzen konpainian gozarazi nituen. Primitiboa nintzen. Zergatik uka? Telefono mugikorraren erabiltzeak edo ibai bazterrean lasterka ibiltzeak, zibilizazio geruza bat eskain ziezadakeen, baina azala aitzurtzen baldin bazen, salbai izaera agertzen zitzaidan, harria bezain gogor, sugea bezain sotil, ekaitza bezain gaizto. Aitzineko asteburuan, ezizatez erreserbarik gabeko –noizko bada?– pirinindiar sentitu nintzen. Hontz luma ileetan zintzilik bazebilkidan jadanik.

Jendalde primitiboei, boterearen opari argitsuei eztabaidarik gabeko batzarraren ondotiko ezaren ihardestea debekatua zitzaien. Hautetsi

baten ahotik «zinezko xedea» lerratzen zen ber, ona zen, egokia, baliagarria, batez ere entitate publikoak afera horretan, horrela mintzo zitzaizkigun engoitik urde hazkuntza, basurde ihizia, autobidea, gasna ekoizpena, Ezpeletako piperra eta ondarea bilduz moldatzen zuten Euskal Kulturaz, zentimorik jartzen ez baldin bazuen. Egia zen urdetegi erraldoiek eta autobideek, bidea izan arren euskararen deklinabideak baino segurkiago aberasten zutela patrimonioa. Aski zen, bargo zahar muturreko zerri egile batekin hitz egitea, zehazki esplikatzen entzuteko adibidez Baionako xingarrak munduan zehar nola balioztatzen zuen etorki ezezagunetik zetorkigun kultura hau, etorkia norantza haina ilun zuela noski. Kultura mota honek, zentzu guztietara asetzen bederen gintuen eta horretarako agian hautetsien indarrak txalotzekoak ziren. Tripa beterik eta mutu, aurrerapen teknologikoa gerorako aterabide bakarra zela sinetsirik, bortxaz anitzetan, desagertu ziren lurraren azaletik ehun milaka populuen ingumak zerabilzkidan buru zokoan dantzan.

Indigenek sei urtez kontra eginagatik, Vatikanoak apatxeen Graham ehortz mendi sakratuan eraiki zuen martzianoen barrandatzeko bere tresna handia. Primitiboak baiezkoa baino ez zezakeela ahoska, apatxeen ezari ez zitzaion kasurik eman. Gauak gauari gertakari hau zenbatetan gertatu zen kalkulatu nuen: arhem mortuko didjeridu jo egileek, aurpegiz gu bezala beltzak eta itsusiak, Ginea Berriko kasko hurrupatzaile trebeek, gure antzera omen krudelak, Amazoniako eta masai leinuko haurride ibiltariek Eza ihardesten zutenean harridura latza sortzen zuten, botereak lander eta kontzientzia kontrolaezinaren menpe utziz. Ez zen nehon ere, abiatzear zegoen trena huts egiten alajainkoa! Ez horixe! Trena jakina, burdinbideetako zuzendari alkoholikoak hautatzen zituen tokietan baizik ez zen geldituko, eta ibilgailuari uzkur zegokionak, behin-betiko petzero jarduteko arriskua beregaratzen zuen. Eskatzen zena eztabaidatzeko eskubide osoa zen.

Sudurretik zintzilik ginderamatzaten artean, entitate publikoko kideek egoeraren larria nahikoa ederki azaltzen ziguten. Aitor dezagun maite

genuela horrela erabiliak izatea halaber eri bati zor zaion begirunez bezala. Halatan, eskema galantak, Herriak zinez premiazkoak zituen elementu guztien zortzi zerorekiko zenbakiz hornitu zerrendak elkarrekin marrazten genituen eta segurtasunaren segurtasunez, epeak finkatzen, bata ala bestea sinesgarri suertatzearren.

–Datorren urteko apirilaren lehenean atal honen azpiren azpiko azpikapituluari dagokionez, delibero argia hartuko dugu...

–Baia? Hain laster?

–Erraten baldin badautxut, egidaxu konfiantxa, gaixoa! Salbu... Salbu eta terrrrrorismoa: ez xinuke nahi Eusko Gasnaren Lurralde hau kutsa dezan arauz?

–Ez jauna!

–Orduan, utz gitxatxu lanean –bukatzen zuen hautetsiak, aita bihotz zabal baten maneran mintzatuz; eta fedea oparitzen genion, gusturik hoberenean, geroaren bermatzeko beste «habiarik» ez geneukalako, V izeneko eta kuskandel itxurako estralurtarrak barbaria honetarik gure salbatzera etorri artean.

Deus ez obratzeko gutiziarik ez eta, edozein alderdikideren lehia politiko pertsonalen jostailu bilakatzen ginen, hizkuntzaren bizi hasperen zalantzakorraren bizkar. Aileza euskarak aski luzaz iraun, ikus dezagun, hautetsi euskaltzale baten mintzairarekiko politika! Herabeki jadanik frogatua izan da, kasu horretan, herriko bake etnikoa dela lehena, gero bi sos eta aditza orgaren azken errota. Ondorioz, gure sendiko zenduen elea, beren alderdien arteko borroken zedarritzeko erabiltzen zuten Andere eta Jaunek: ezkerrak diruztatzea proposatzen baldin bazuen, eskuina heiagora ozenez aurka agertuko zen, erdikoa ahotsez eskas, zetazko atorra horailaren papoko sakelatik Visa txartela atereaz eta euskaldunak puntuak, pilota partidetan nola, kontatzen ageri ziren. Sekula alderdi orok sostatzea baieztatzen baldin bazuten, orduan ez zen gehiago arditik.

–Badakizue aurten Eskualde Kontseiluak bere kontuetan laurogei milioiko zuloarekin bukatuko duela, aipatu gabe egoera berdinean dauden Kontseilu Orokorra eta Herriko Etxeak.

–Dena dela –gehitzen zuen Eskuinekoak– gobernuak manatu X txostenaren emaitzak igurika-

tu behar ditugu eta hor egiazki azalduko dira euskarak zinez eta bene-benetan premiazkoak dituenak.

Irri zozoa ezpainetan ttattit begiratzen genien. Ardura, gauez, politikarien, entitate publikoaren ordezkarien eta euskaltzaleen eskaera zuzenen uholdearen minean, berdinki ttattit, oraindik kulturalki bizirik izateaz harrituak ibiltzea gertatzen zitzaigun. Ororen buru, mende anitzetako iraupena istripua zela ohartzen ginen, agian suerte apurra, beharbada noiztenka borroka ahul bat, baina sentitzen genuen gaurdanik laguntzarik gabe ezin genezakeela erauntsiaren aldean iharduki, eta euskaltzain zenbaiten espantuak debalde zirela.

–Latina ehortzi genuen eta frantsesarekin...

–Ez dugu nahi frantsesa lurraren azaletik ezabatua izan dadin –erraten genion ahulki.

–Alta sine qua noneko baldintza da!

–Hago isilik asto handia, arazoa ez duk frantsesarena, baizik eta gero eta gutxiago mintzatua den euskararena! –ihardesten genion hamalaugarren gin-kas(tola, eskola publikoa) basoari tinkaldi kexatua ematean, bestela ez ginelako

batez ere euskaltzain bati horrelako arraposturik hegaldaraztera ausartuko.

Gure bilkuretan zein hautetsiekikoetan ez genuen, gauez ondu agiriez aparte bistan dena, oharpen edo arrangura nabarmenik plazaratzen. Oro har batzarrak, debate leku baino, plebiszitu tokiak ziren. Agian, horregatik, azken hogei urte hauetan, jasaten genuen biluzte kulturalaren eta kultura ondare onargarri bilakatzearen hobendun ginen erdizka, gu, auzapezak, kontseiluak, hautetsiak eta kanpoko botereak.

Ezaren duda-mudak agertzen genizkielarik gutxiesten gintuzten. Gure hitzen irrazionaltasuna azpimarratuz, oihuka zutitzen ziren.

–Iharduki epidermikoa eta kolerikoa duzue! –eta gela gelbera batean biltzen ziren segidan, gehiengo osoan lortu amore-emate kolektiboaren ildoak urratzeko, Errepublika hitz magikoa haize farfailaren gisa erabiliz, Errepublikaren kide ez bagina bezala.

Hala ez baginen zer ginen bada? Bitxiki, irakurle, ni baino errepublikarragorik ez duzu atzemanen Euskal Herri guztian! Egitura zuzen eta irekiaren ideia daramat bihotzean aspalditik, eta

primitibo naizen aldetik, estatuen mugez axolarik ez dut. Ez zait gustatzen Errepublika burges, bekaitz eta neo-kapitalista hau, jada anitz duen Benedikatuaren onetan, deus ez duena pikarraitzen duelako. Ez dezaket ahantz alabaina hemengo etxetiar, petxero eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela, apez errefraktarioek, etxeko jaun opulantek eta notableek haizea norabidez aldarazi artean.

Euskaldunak, ez bakarrik euskaraz ari diren kultura berezilari eta dizaider arduradunak, kontuan hartzekoak garela nioen, etxera heltzeko zortzi kilometro falta zitzaizkidala ikusi nuen bidaia hartan: entitate publikoko kide izanez Errepublikaren haurrak eta arra haurrak gara. Halatan, publikotasuna eskubide zaigu, errepublikaren partaide nahi baldin bagaituzte behintzat. Bestela balitz jakinean ezarri beharko gintuzkete, eraketa planetario ezberdinaren bideratzeari buruzko hausnarketa sail baiezko eta sakon bati hasiera eman diezaiogun bertan.

Etxeratu nintzen.

Harrez emokatu gasnari ausiki polita eman nion.

Lilurak, batean lasaitasuna eta bestean
goibela ekar diezaguke; gohaina bezainbat,
argitasunak atxikimendu guztia suntsitzen du.
Jazargoak oro gure pentsamenduaren uztak dira.

Anitzetan, gaua jaustean, biziki urrun nago. Bilkurara bideratu arren, ezagunegiak zaizkidan eskualdeak etengabeko exiliogune zarpailez itxuraldatzen zaizkit. Ez dezaket burutik ken, oraindik ere lo dagidan bakarretan, burdinbideetako tren erroten zarata kaskoan oihar, tipus-tapasean iratzartzen naizela. Ohe gainean jartzen naiz orduan, bihotzeko taupadak ozen, hatsanka, non nagoen galdezka, etxean eta ohean naizela, baiesten dudaneraino. Halatan, errealitatea doi batez makurtuz, autoan sartzen naizen ber, iragana eta geroa elkarri mokoka hasten zaizkit. Badakit errealitatea den bezain hotz eta monolitiko kontsideratzea hobe dela, baina egunerokotasun dorpearen ñabardura zenbait, zorigaitzez, izugarri gustukoak ditut, errealitatearen aldatze-

ko jaidura daukan euskaldun gisa are maiteago naski.

Sinesten dut adibidez kabalek, bereziki hegaztiek, hitz egiteko ahalmena daukatela. Ez nau lotsatzen demagun ardi trapatu gaixo baten aitzinean, belarjaleen miseriak kontatzen dizkidala, aberearen marraketan solasak ehuten saiatuz orduak eta orduak egoteak. Neure hogeita zazpi aditz pobreekin sortu aurreko arrain nostalgiatik, lurpeko zizare bazka bilakatzeraino, mamifero humano urrixaren destinoak ez duela nehongo gutiziarik sortzen ihardets diezaioket. Bitartean, bakardadea, bazterketa, su urriko suntsiketa... Marraka melengaz ardiak ulertzen nauela sentiarazten dit eta auhen luze batez, pentzean hedailo erortzen da. Sentimendu onek dirurik ematen ez duten arren irudi zait denak munduan gaudela, zelula mononuklearretik Nunavut herriko itsas aho hormatuetan bainatzen diren balea ikaragarrietara, lerro biologiko kate zatiak oro, hots, elkarren berri erdietsiz, bata bestearen laguntzeko. Amen.

Uste dut halaber so soilaren indarra animalea dela. Behin goizeko ordu batak eta erditan etxe-

ratzen nintzela, ttuku-ttuku, gertakari harrigarri baten lekuko izan nintzela aitortzea zilegi bekit: bidearen betean, liburuetan sekula ikusia ez nuen izengabeko kabala bat zegoen. Haren parean agitu nintzenean pentsa ez nintzenez gutxi izutu! Bere hegal erraldoiak zabal zabalik mugituz eta mokoa ene irensteko zorian zirudiela gelditzera bortxatu ninduen. Banekien jakin, ez zela aspaldian espero nuen eta «Marteko euskara» ezpainetan zeukaten estralurtar haietarik. Amerikar film askori esker egia erran, galaxiatik kanpoko izaki horien seinalakuntza zehatza baneukan: kuskandel larrua, suge mihi eztena, dinosauro beso eta zangoak, ezpata laserdunak eskuan zebiltzan eta bip-bip zaratatsuak kasko gainean. Gurutzatzen nuen mamua hegaztia zela laster batean ondorioztatu nuen, agian ez zirela amerikarrek erakusten zizkiguten piztiak ager zitzaizkigukeen bakarrak neurekiko eransten nuela. Ez nintzen lasai hargatik eta haur denboratik iragarri barbari baubau mamuaren aitzinean autoko motorra eho nuen.

Beribiletik atera nintzen, daldaraka. Hegaztiaren behakoa gatibatu nuenean, zauritua zen

hontz ahul bat bisean bis edukitzeak ederki jabaldu ninduela oroitzen naiz. Beldur handiak malgortu giharrak laxatu zitzaizkidan, eta soa zela medio, samurtasunez eta urriki latzez urtu nintzen. Zeru ilunari begirada bat bota nion: ene bihotz beratasun berriaren aterpea eraikiz, haize firfira arinek bulkaturiko laino uhargiak zirurikan bazebiltzan. Ipularrean utzi autotik aldenduz, hontz malerusa bide erditik jalgi nuen, izar ihintz eztiak busti belardian pausatzeko. Hontzaren ninikek eneak berriro jo zituzten. Mokoa ireki zuen eta eleka hasi zitzaidan:

–Ez bazina etorri, hor berean hilen nintzen; mila esker!

–Gautxorien artean noizbait behar genuen juntatu, ez?

Gauaren mina inarrosiz irri sanoz urratu nintzen aspaldiko partez. Zangoa apurtua zuen arren, hizketaldi luzeegiaren ondotik akitua bailitzan, marmara etsia mokora lerratu zitzaion hontzari ene une zozoko zorionaren partekatzeko. Barrez ari nintzen eta amaren erranaz gogoratzeak buru zokoa harrotu zidan.

–Egiazko hontza hi, ez hiza nehoiz ohatuko?

–Ama... Gaua baizik ez dut maite.

–Horretarako justuki...

Ama halaz, kotxua besapean arditegira bazihoan, hango aire tepoak eta azienda marraka motelek nolabait mundua nahasmenduen zurrunbiloetarik salbatzera helduko balira bezala. Gaitzitua erretzen nintzen eta bizpahiru egun pasa nitzakeen, mutu, inorekin mintzatu gabe. Aldamenean gizonik –normaltasunaren neurriak errespetatzekoak ziren– atxiki ez nezakeela konturatzen nintzen garaia ere zen eta hil nahikunde zilarrez kopeta hormetan kolpeka nenbilen. Bide ertzeko hontzaren garrasi apalak errealitatera ekarri ninduen.

Hegaztiaren zangoko dolorearen arintzeko bildu nintzen agudo. Hontzari artamendu baten egiteko, itsumandoka bi egur puskatto bilatu eta atzeman nituen. Makilatxoak oin hautsiaren inguruan jarri nituen, menda belarrez estekaturik. Brauki airatzen entseatu zen hontza, baina astunki lurrera panpalaharatu. Erizain eleak jauki zitzaizkidan.

–Orain, lagun, hamar gaueko pausa, sendatzekotan ez hegalda otoi!

–Asko da. Nork uhulatuko du hemen ilargi beteko ilunpeetan? Zuk agian? Duzun asti apurrarekin?

–Egizu nahi duzuna azkenean –moztu nion hitza–. Ez dut zuk duzun bezala oihurako dohainik!

–Egiazko hontza zara...

Bi hamarkada beranduago hegaztia amaren antzera mintzo zitzaidan eta Munduen artean ez zela leizerik zabaltzen ohartzen nintzen, ez abererik eta ez jenderik, ez etsairik ez baitezpadako adiskiderik, bizidun minberak baizik.

Bide hegiko sasiaren maldaren aterpean nolabaiteko sendagela naturalean amultsuki eta emeki pausatu orduko, gorputzeko luma guztiak harrotuz eskertu ninduen, bekan hala izan nintzen eran. Autoan sartu eta biharamunean, lankideen galdeei zer ihardetsiko nien pentsatzen jarri nintzen: ene bizimolde zarpailarekiko interes maltzurra erakusten zuten trunkiloek gaua ohean pasatzen zuten eta goizetan dena eskaera zeuden. Halatan deblauki erranen nien Hontz bat sufrikario latzetarik askatu nuela. Ene delirioen entzuteko ohitura zuten eta ohitura horren

arabera ekitera uzten ninduten. Behin begi urdineko otso zuriak oihan beltz eta basamortu biluzietan, otso abiaduran otsoturik, elurrez estali eremuak eta larraitza abandonatuetan barna ibili nintzela agertu nien, neure molekula arteko izate totemikoaren bila. Noiztenka lagun trufari batek ene kontakizuna salbaiki hausten zuen.

–Madonna gurutzatu ote duzu parrazar?

–Ez –nioen ironia saihestuz–, John Dunbarekin egon naiz barda... –eta jarraitzen nuen bezperako agerindearen ildotik, bat-batean, nirekiko arranguraz hanpaturik: baina zer ari naiz ezer ulertu nahi ez duten hauei neure bizitza pribatu eta intimoaren azaltzen?

Bizidunak, elkarren irudikoak ginen, handikoiak eta burlariak halaber, ADN firindila bikoitz zatiz moldatuak: biologiaren determinismoari zegokionez ihesik ez zegoen. Hargatik, hontzarekin, ardi trapatuarekin, otso zuriaren haragitzearekin frogatzen nuenez, hala nahi izanez gero, determinismoa ez zen muga, amodiozko elkartasunaren oinarri eta abiapuntu zehargi baino. Gaua heldu orduko gure uhartetasuna agerian geratzen zitzaigun.

Egoera horretan, errealitatea, ipuin gasnatua zen.

Ametsetako ikuskizunak, aireko loreak:
zergatik nekatu haien harrapatzen saiatzen?
Desager daitezela behin-betiko galtzea eta
irabaztea, egia eta gezurra!

Joanes Azatxun artzaina zen. Euskaldun artzainei beste dohainik ere ukatea eskatzen zitzaien garai haietan arras tipiko, autentiko eta sinesgarri izateko. Halatan, lan askorik ez zuela beharrik, Joanes kantari gisa ezaguna zen. Izugarriko ahotsa zuen, ahoa irekitzen zuenerako etxeak berak oinarrietan daldararazten zituela. Egia erran, kantan entzuten nuelarik, iruditzen zitzaidan ardien eta bildotsen marraka ikaratiak hautematen nituela, ohiturazko abesti zaharren melodiaz lagunduak. Egunak txabolen inguruko bazketan eta anitzetan gauak aziendekin iraganez, agian Joanesen kasuan abereekiko identifikazio naturala osoki normala zen. Ez ote zuten jakintsuek jadanik frogatu, haur bat demagun otsoek hazten eta hezten zutela, otso bilakatzen zela ibileraz, mintzamoldez eta izaeraz? Zure

nortasuna, ekartzen zaituen sozietatearen araberakoa dela argi dago. Adibidez, ni, ene jendartearen pare orain gaua naiz, gau mutua, gau beltza, gau etengabea...

Ardi arteko otso xuxurlaria izan gabe, olaren aterpean, Joanesek gasna biziki eztiak ontzen zituen. Bisitaz joaten zitzaizkionek korbeen gain aldeetan borobil perfektuak mirets zitzaketen isil eta idortzen. Isil diot ezen orain arteraino nehork ez baitzuen gasnaren murmuriorik gatibatu, ikerlari islandiarrek erakustera ematen dutenez, bizi den bakoitzak bere barne musika propioa dakarrela argi izan arren. Halaz, pastenagreak, porruak edo tipulak auhenez ari omen dira, etxeko andereak bipiltzen, larrutzen eta ebakitzen dituenean, familia guztiaren asetzeko salda apailatzerakoan. Gasnak haztatzean eta gero bilkuretarik landa, perilik handienean, labana zorrotzaz haustean, oinazez hantu jatekoak ezpainetaratzen ziren. Elementu honek ez duke Joanesen biografia aberasten, baina bizia oro dolore partekatua delako kontzientzia gutxienez bermatzen lagundu gaitzake.

Joanesen botzean, identifikazio hurbil eta min berdina nabarmentzen zen, malda, pentoka, larre, zerna gaitz edo bortuko alhagia zabaletarik ihes zihoan artzain kulturaren goresteko antolatzen ziren besta erraldoietan. Karia horietan, Joanes txapela buruan zetorren, lehenagoko zamar amironatua eta abarka lohitsuak soinean, eskuz bildu caporal tabakoz hantu zigarroa aho zokoan zintzilik, kea kanporatzeko noiztenka ezpainak irekitzen zituela. Publikoan esbaditzen ziren andere panpoxak trenpu txarrean jartzen zituen Joanesek garraiatzen zuen arditegi urrinak eta ekitaldi kulturaletan zehar, mintzaldi hipnotiko eta zurrunak luzatuz, politikariek zein kulturaren zedarritzaileek medailak, oroit taulak, kopak eta zinezko baliorik gabeko mila girgilak oparitzen zizkioten. Bakarretan, omenaldia edo hitzordua garrantzitsuagoa zela, suprefetaren, prefetaren edo ministro baten presentzia segurtatua zenean hots, eskuratu medaila parrasta papoan agertzen zen Joanes: gerlan ez ibiliagatik, Hamalauko, Deboilako, Aljeriako eta Ekialdeko soldadu ohien antzaz harro zebilen orduan.

Hargatik, alde orotarik jaukitzen zitzaizkion oroigarri eta zigilua meta hura non pausa ez zekien Joanesek. Ez zuen, sasoiko mendiko txabolaz beste etxerik, eta haraneratzen zenean, ardo botila eta gasna baten trukean, bataren edo bestearen egoitzetan kausitzen zuen unean uneko aterpea. Denbora libre gehiena, ostatuan pasatzen zuen, *Sud Ouest* irakurtzen, neska gazteak errabiarazten, apur zeukan hiztegiaz ele gordinak ahoskatzen eta, basoek eman ahala edaten. Joanes ez zen sekula ezkondu: bakardade bukolikoa hobesten zuela zioen, baina bazekien hogei urtetan maitatu eta familiaren ohoreagatik Parisera lan egitera joatera utzi zuen gizona zela bere bidea; jende artean zebilenetan, alkoholak, kantuak eta sasien gibeletan jotzen zuen zulo bakarreko xirula kresaltsuak bakez betetzen zutela onartzen zuen. Kantuaren xarma ez balitza, Joanesek ez zuen endelegatzen zerendako egiten zioten hainbat ohore, ohoratzaileak ez zirelarik nornahi pentsa emazu! Ohorea aldi berean zorrotz eta merke zen mende batean bizitzea egokitu zitzaiola gogoan atxikitzen zuen artzainak, kolko gantzatsuan ixkilima herdoilduez me-

dailak itsasten zizkioten bitartean. Begiak hersten zituen eta ez zuen kasurik ematen: fini bedi hau agudo, parti gitean hemendik... marmarikatzen zuen isilik.

Maite genituen desagertzear zeuden mundu horiek, genituen diot, hor kanpotarrekin batera multzo berean urturik genbiltzalako, artzainak, itzainak, espartingileak, ehuleak, txokolate prixa moldatzaileak, nago idokitzaileak, arto jorratzaileak, sagardogileak, ardo mingarra zoanetarik mahaietara ekarleak, etxe izenak, atari ahantzi zizelkatuak, deiturak, toponimia anemikoak, dantzak eta kantu tradizionalak. Behialako kanpotarrekin nostalgia uholde berdinaz partekatzen genituen eta norberaren folklorea deitzen ahal genukeen fenomenoaren zerrendako gauzak ziren guztiak. Mintzaldiak, ospakizunak eta unibertsitate mailan muntatu kolokioetara gonbitatzen ziren Joanes Azatxunen trakako gizaki sanoak. Tesietan eta ehun irekiduretako ponentzietan ikerlariek aztertzeko ekai brutoa zen gure artzaina. Erdaretan ez jakinez, *Sud Ouest*-en estimatzeko doia salbu, Joanesek ez zituen paper horietan etzan hitzak irakurtzen ahal.

Baina hondarrean, hamabost axola, gasna arrakastatsuen ontzeko gaitasuna ukatzen ez zioten bitartean!

Mozkorrak galanki harrapatu aitzineko orduetan, berotzearen eta erretzearen leize hegi horretan hain zuzen, Joanes istorio kontatzen ari zen usu, ostatuko kontuarrean bizkarra bermatuz. Irria ezpainetan, zioen, behin izendatuko ez dudan unibertsitate bateko laborategi erraldoira eraman zuela jakintsu batek –honen izena halaber gordean atxikitzera behartua naiz–; analisia franko egin zizkioten han: odola, burezurra, mihia, ahots sokak, papoa, belarriaren malguak, aire hartzeko haragizko hodiak, eskuetako eta oinetako eri puntak izartu eta zenbakiak oro ordenadoreetan sartu, neurtzera utzi ez zuen behereko txistu teleskopikoarenak salbu, hau denboraren botereaz herdoilak jana izan arren. Aste zeken hartan, goizero ehun aldiz kanta zati bat aspertzeraino errepikatu behar zuen:

–...Bilhuuuak hoili eta koooloriaaak gooorrriii...

Goitika bukatzen zuen, gontzetarik ateratzear, prozac pastilla bat ematen zioten arte.

Arratsaldea lo hil batean higatzen zuen, plastikozko ohe gogor batean xaal-xaaala etzanik. Joanesek gertakizuna arras disgustaturik kontatzen zuen, horrelako kalbario zientifikoen pairatzeko baldin bazen ez zela gehiago inora ere abiatuko erantsiz. Astearentzat zenbat diru erdietsi zuen ez zigun sekula salatu. Ikusi genion aldaketa bakarra, handik laster, Peko Arrüan erosi zuen azeri larruzko oski berri parea izan zen. Eta gizonak sosa maite! erranez burlatzen gintzaizkion, garai hartan trufa zelarik geneukan altxorrik nasaiena.

Edateko eta jateko ausarki eskaintzen zuten besta antolatzaileei ez zien ezetzik helarazten ordea. Zahardiek, tradizioaren ikur agergarria eta Gaztediek orainaren iraganarekiko lotura bizia zelako deitzen zuten batera, kantatzera, bere euskalki hain berezian istorio kontatzera, afari edo bazkari herrikoietan parte hartzera oro bat. Denak, abertzaleak barne, abere zaleak ziren arraiki eta baiki, naski. Ospakizunen harian anitzetan, Hiritik etorri olerkari ofizialek Joanesen erranak eta abestiak, amildegietan jartzen zituzten, seriatzen, berriz moldatzen eta mundu-

ko edozein mikro populuren egitekoekin abilki erkatzen, ikus entzuleria funtsean harrituz. Elite ikasiaren soaren menpe lerratzen zen, bestela justifikaziorik mereziko ez zuen gure kultura herrikoia. In extremiseko onarpena zen guretzat eta arrail on bat mesedez...

Maitearen bilo horiak noizbait zuritu zirenean, geroaren segurtatzeko bederen, Joanesek erabaki zuen kantu berriak ematea hobe zuela. Piarres Gatzonek idatzi zion musika eta hitzak bere izpiritutik isuri ziren. Emaitzarekin nahikoa fier zen Joanes, hitzezko eta soinuzko jostailuak plazaz plaza jendeak loriatzen zituela. Halaz urteroko Euskaldun Ondarearen Batzarreko bestaren plegatzaileari *Zirikari* izeneko pieza estreinatuko zuela iragarri zion. Ez bat, ez bi, honek eza eman zion.

–Otoi, Joanes, ez duzu arauz horrelako afrunturik eginen gure diputatu sozialista maiteari?

–Ezar beza lehenik sosa listan!

–Isil zaitez –erraten zion antolatzaileak lardeariaz–, hor blasfematzen ari zara.

–Bena, kreazio bat da!

–Zer kreazio eta zer deabru! Kreatzen dakien bakarra hemen Jainkoa da. Ezagutzen dizugun maestria furiosean *Egüntto batez* emaguzu eta kito. Hautematen dudan oroz negarra darit begietarik...

Euskaldun Ondarearen Batzarrean beraz, bihotza hanturik, aipatu ahaidea taularatzean, firindi eta faranda, melodiaren hausturak hegaldarazi zituen. Diputatu txit agurgarria, hizkuntza pilixkarik ere ez ulertu arren, emozioaren ezpondetan zegoen, aldi hartan berarekin ekarri Monica ohaide gosetiaren azpi muturra zaintsuki eta desiraz zartatzear tinkatu zuela ohartu ginelako: batzar-guneko komunetan handik laster menturaz pipa erreko zuten biek. Kultur erabakitzailea engoxatzeko puntuan zegoen, hark halaber, nonbait bere ekinaren mamiaren funtsa argi zekusalako «proiektu zabalago baten barru-barruan».

Joanesek erdietsi zuen azken medaila izan zen ordukoa. Mendiko txabolaren eskuin aldean etzanik, tristeziaz hiltzera utzi zuen bere burua, noiztenka edanaren hordia zilegitzen ziola hargatik. Testamentuan «lore, hitzaldi, ikurrina eta

ohorerik gabeko ehorzketa nahia» azpimarratu zuen: ondarea izan zitekeen, baina ez hondarra edo hondarkia.

Kantua, gasna trukean.

Begia lotan ez baldin badago, ametsak berez urtzen dira. Izpiritua ezberdintasunen finkatzen galtzen ez baldin bazaigu, aipatu hamar mila gauzak nortasun bakarrekoak dira.

Ostiral arrats hartan, zakua bizkarrean mukuru betea, autobusetik jaitsiz haurra kolegiotik itzuli zitzaidan. Musua ematean erran zidan bozkarioz eta susma nezakeenez, pixka bat trufari:

–Ama, behar dataxu matematika ariketa bat asmatu! Irakasleak asteleheneko galdegina dauku!

–Mentsa da ala? Zertarako pagatua da? Ene gustuko aise ari dira kolegio horretan, pedagogia integratua dela estakuru. Nahi ote dute nik ikasketen egitaraua finkatzea? Jakixu enekin fite plegatua litekeela: euskara, ingelesa, hamaseigarren mendeko frantsesa, geografia, historia eta biologia. Besterik ez...

–Eta matematikak?

–Gaixoa! Matematikak? Zertarako ditugu matematikak sei, zazpi, hiru, lau, bat edo zero gau-

den finka ezin baldin badugu? Bat gehi bat bi dela diote, baina ez da deus segururik alor horretan.

Irriz urratua zegoen haurra, bizkitartean matematikak nahikoa maite zituela. Etengabeko predikua bururatzean, arraiki moztu ninduen.

–Ba hori dioxu, xure denboran matematiketan, hutsaren azpikoa xinelakoan; badakit biderketa taulak eta zatiketak enekin batean ikasi xinituela, lehen mailan nintzelarik oraino. Bederatzi bider sei: zenbat?

–Horrela, egia erran, ez dakit; baina gutxi gorabehera... eginen du...

–Ez ama! Dena espantu xira, Paris Texasen dela dakixulako eta John Dunbaren adiskide mina xirelako, egun oroz *Sud Ouest*-eko berri bereziak eta horoskopoak irakurtzen dituxulako eta mendietako lur meten gibelean, marraz marra, munduaren historia kanta dezakexulako!

–Bai justuki eta Otsoekin dantza dezaket...

Asteburua gogorra zatekeen eta ariketa zarpaila asmatu beharrez, ez zegokidan gozatzeko aitzakiarik, *Egunkaria*-ko ene horoskopoak idatzia ezeztatuz: autobusetik beheratzean berean

haurra jazartzen zitzaidan. Plazako ezkien itzaletik etxerako bidean, lo eskasez beti, galdezka mutuan nenbilen: gurasoen parte hartzea absolutuki segurtatzea baldin bazen helburua zergatik ez ziguten eskatzen soilik, tribuaren zuhaitz genealogikoaren marraztea, hegazti migratzaileez izkiriatzea, Nafarroako Joana Albreten hondar ilusioekin ipuin baten orraztatzea edo hain zuzen ere, behialako *Paris Texas*-en aipatzea! Hobe izanen zen, ene irudiko, Pitagorasen hirukiaren teoriaren zehaztea! Baina matematikakoa! Auteferafutro!

Igandea, larunbataren ondotik, eskola egituraren aurka marmaraz higatu nuen, haurrak bitartean bere xedearen ildotik akuilatzen nindue-la, karbaka; ez zitzaidan ezer ateratzen. Idor eta antzu nengoen. Gogoratzen nintzen, kenketak eta gehiketak, lanean hasi nintzenean, bortxaz ikasi nituela eta ez naizela oraino sobera trebe; hiru ezezagunekiko ekuazioen paperean agertzeko hitzak falta nituen. Arima arras gal-beldurrez, ez nuen inoiz indar minimorik egin. Ene matematikako irakasleez ez dut hatz mental izpirik atxiki, ez ohorerik, ez traumarik, haiek aldiz, kur-

tsoko plomuzko borobila bide nintzela, nitaz biziki ontsa oroitzen direlarik. Hala ere, haurra kolegioan sartu zenean, aholkuak eman nizkion:

–Izan xite perestua, isila eta ikasle ona.

–Mintzatzen ahal xira xu –ihardetsi zidan bortitz–, eta frondan bildu harri zorrotzekin kuskandel buztan ebakitzera abiatzen zineztelarik, ikasle ona xinen?

–Lehen mailan zen hori; emeki-emeki seriostu eta zibilizatu ginen.

–Egidaxu matematikako ariketa hura eta laster!

–Izaxu xuhauk! Asea naiz xure ixtorio xoxoarekin!

Techno 98 jarri zuen azkar laser irakurgailuan, hain azkar non, beheko auzo zaharra entzun nuen tronaduran erratz-gider ukaldika. Haurrari kexatu nintzaion gorri eta botza altxatu nuen.

–Apal zaxu musika deabru hori!

–Ez.

–Auzoak polizia deitzen baldin badu xahu gara. Ez dut batere gogorik, matematikako lan

pixtolet horrengatik gauaren komisaldegian pasatzeko!

–Ariketa orduan –tematzen zen haurra, 666 taldearen erritmo elkorrek gela betetzen zutela, apartamentua teilaturik oinarrietaraino inarrosiz.

–Ez dakit egiten –aitortu beharrean aurkitu nintzen hondarrean, eta neure izate oro jakitunaren mito erraldoia mila puskatan hausten miretsi nuen.

Ez ginen, ikastolako guraso izan arren, horrelako deboila kulturalen jasatera heziak. Haurraren bihotza handitu zen.

–Gehiketa, kenketa, biderketa eta ebaketa banarekin aski dixit. Errexagoa da ez hola?

–Bai zera...

Eskolak ez zuen etxekoen martirizatzeko eskubiderik, ez, ez eta ez: haurrei bezala, dakigunaz aritzea eska diezagutela argiki, ez gutxiago. Haurra Du Bellayren soneto bat gogoz ikasteari zerraiola zainetan nengoen. Baxerak garbitu nituen brauki, oheak berriz moldatu sakonki, armairu gainetako errautsa eri punttaz altxatu axolagabe, mahaiko purruxkak ahurraz arraposki bildu eta azkenean, egongelako kanapean

etzan nintzenean, ufff etsia askatu nuen. Nehork ez nindukeen nehoiz ikusi menajearen atakeaz horrela joa. Haurrak ez ninduen abandonatu eta, lapitza eskuetan sartzen zidala, ene saihetsean jarri zen.

–Ene ariketa...

Idazteari ekin nion, itsumandoka, jalgitzen zitzaidanaz harritua.

«Bardeetan dabilen Pako artzainak, ehun eta bost ardi ditu. Antxuak, ahariak eta ardi trapatuak hamasei dira. Gainerako ardi bakoitzak bi pinta esne ematen dizkio eguneroko bi deitzaldietan.

* Zenbat ardi esnedun dauzka Pakok?

* Zenbat pinta esne biltzen du egunero?

Zehaztu ondorioak mesedez.

Bere Kurutzetako txabolan, Pako artzainak gasnak ontzen ditu. Jakinez gasna gotor baten moldatzeko hamar pinta esne premiazkoak zaizkiola eta birazkakoak diren bildotsen asetzeko bost pinta baztertzen dituela:

* Zenbat esne gelditzen zaio gasnatzeko?

* Kilo eta erdiko zenbat gasna ekoitz ditzake egunero?

* Kalkulatu halaber Pakoren adina.

Zehaztu ondorioak mesedez».

Haurra, begiak hondo iragar ezin, so zegokidan. 666 taldea ez zen gehiago hautematen. Haizea altxatu zen kanpoan eta bidean ez izatea deitoragarri kausitu nuen. Urruneko ilunpean, oihu latza entzun nuen: nigan zebilen otsoaren arima zena? Haurrak papera hartu zidan.

–Baina hau ez da matematika –oihukatu zuen–, poesia da!

–Eta zer? Hor duxu orai! Bakea emataxu.

–Ez du balio kexatzea...

Ez. Noski.

Gauzen misterioa beren nortasun bakarrean biltzen baldin badugu, kausen mundua ahanzten dukegu. Gauza guztiak berdin kontsideratzen direnean, beren jatorrizko funtsera itzultzen dira.

Iragan astean bost gauez ibili nintzen bidez bide eta pentsa buru zokoan loa garrasika ez zitzaidanez ari. Goiz batez lanari uko egin nion eta medikuarenera joan nintzen, erremedio eske. Medikuaren gelatik orduan ez nintzen aspirina hodi soil batekin atera, baizik eta lexomil pakete baten hartzeko ordenantzarekin, egia erran, nitaz harro. Hiru egunez eta lau gauez atsedenean behera lerratu nintzen, jadanik itsuski txikitua neukan gasna puska bakean utziz. Uste dut mozkor kimiko egoera hartan egin nuela lehen aldiko, kitatuko ez ninduen «Azken Eskualdunaren Ehorzketa» haren ametsa. Goiz nabar haietan hatsa bahitua, antsiaz hanpatua eta izerditan iratzartzen nintzen, karriketan herrestan elekide bila ibiltzen hasteko irrikaz. Kaskoko pantailan agerindea garbiki zehazten nuen eta psikolo-

go anderea, zugan konfiantza osoa dudalako, ene begiez miresten nuen bezala kontatuko dizut.

Jende anitz bildurik zegoen eta Euskal Herrian frankotan gerta zitekeen eran eliza hertsiegia suertatu zen azken Eskualdunaren bere hondar egoitzara laguntzeko. Kantika berri melengak marrakatzen zituztela, mantelina eta kapelet beltzen gerizan ene leinuko partaideak ezagutzen nituen, bai galerietan eta bai behereko jargietan. Mezaren emateko, apezpikuaren inguruan hogeita hamazazpi apez juntatu ziren, handizki, dena girgila eta urre kolore. Euria ari zen egun triste hartan, ardien merkatura eramateko erabiltzen zuen kamionetarekin auzapeza izan zen aireportuan, estatuko kultura ordezkari eta arduradunen xerka, prefeta, suprefeta eta alderdi politiko guztietako hautetsiak beren auto propioetan herrira hurbildu zirelarik. Ministroak sinistroki agurtu zuen apezpikua, ezkerreko diputatuak hipaka eskuineko kontseilari nagusia kontsolatu zuen, euskal kulturaren egunen kudeatzaileak penatuenak agertzen zirela, bat-batean lan gabe aurkitzen baitziren. Aldare aitzinean,

hilkutxaren aldamenean, CRS lerro gotor batez zaindurik plantatu ziren Hautatuak oro, herriko lau gizon indartsuak Chemin des Dames, Verdun, Dien Bien Phu eta Aljerko batailetan irabazi frantses bandera astunei airean zetxezkiela. Lore sorta animaleen artetik doi-doia ageri zen Maddalenen izei merkezko hilkutxa.

Azken eskualduna nonbaitik ere emaztea zen. XX. mende erditsuan sortu zen izenda ez dezakedan barnealdeko herri ahantzi batean erran zuen apezak erdararik aberats eta ederrenean. Derrigorrezkoa izan arren, gurasoek ez zuten Maddalen eskolara biziki igorri, are gutxiago ikastolara garestiegi zelako artzain familia «pobre» batentzat eta asteburuetan talo-saltzen eta kontzertu-antolatzen aritzeko astirik ez zutelako. Hartze ahula zuelako aitzakiaz Harrobi gainean ardi zain atxikitzen zuten. Malko biren erditik apezak kolokatu zuen.

–Malgré sa langue, elle rendait de multiples services... –eta Jainkoaren Mutilak, oroz bat emazte isila higatu zela salatu zuen segidan, erantsiz, kofesatzea salbu, igandeetako mezak sekula ez zituela huts egiten. Beti hor omen zen

hamahirugarren kalbarioaren harri tailuaren itzalean, nehork ulertzen ez zuen hizkuntza batean marmaraz, eskuak gurutzatuak eta burua apalik, egiazko fededunaren plantan. Maddalen ez zen zozoa, ahoskatu zuen apezak, ezpain izkinan irri bat marraztuz, arbasoen mintzoan «Kontrizionezko Akta» burutik buru xuxurla zezakeelako «eta hartzen dut xede zin bat zu gehiago ez ofentsatzeko eta zure borondateari amore emateko, amen».

Apezaren ondotik, kliski-klaska eztiz, apezpikuak intsentsua barreiatu zuen elizaren barnean «Que la paix du Seigneur soit toujours avec vous» mikroetan oihukatuz. Fidelek lepoak plegatu zituzten eta aitzineko Hautatuen lerroetarik malko hots zenbait hegaldatu ziren: ez nezakeen aitor negarrak arras faltsuak zirenik, politikari eta estatuko ordezkarientzat euskara jostailu, mehatxu eta xantaia tresna gisa noizbait faltatuko zela segurutzat jotzen ahal nuelako. Zerekin atxikiko gintuzten gero? Ene galde antzuak ezabatu zituen Kultura ministroaren mintzaldi kartsuak: euskara hizkuntza ikaragarria izana zen, paleolitiko aro monolitiko hieratiko garaitik hona,

galera erraldoia zen munduarentzat, irabazte idorra aldiz euskararen bizarazteko dirua sartzekoa zuten botere publikoentzat, galtze guztiak irabaztea zirela labur bilduz eta azpimarratuz bukatu zuen diskurtsoa ministro eleketariak, kazetariak grabatzen eta slish-slash argazki ateratzen ari ziren bitartean. Mauleko suprefeta berriak eskularru zuriaz, mokanesa zela ustez, begi hegian isurtzen zitzaion ura lehortu zuen, zurrun ozenez.

Euskal Herri departamenduko lehen prefetak zeremoniaren bukaeraren seinalea eman zuen txapela jantziz. Gerla ugarietan harrapatu banderak tanpez altxatu ziren. CRSek gerrian zintzilik zeuzkaten lakrimogenoak askatu zituzten zer gerta ere. Eta bost gizonek Maddalen zenaren hilkutxa bizkarrean zeramatela, gurutze zilarra eroaten zuen lehen auzoaren hatzetarik, elizatik jalgi ziren. Kanpoan, hilerriko xendak lohiz estaliz, euri eta haize hotza ari zen. Hautatuen oski dirdiratsuek ilundura bat jasan zuketen eta gehienek Euskal Herriko aro txarra madarikatzen zuten. Kutxa hilerriaren puntu urrun eta gorde batean pausatu zuten, lur-hasean ireki zulo

sakon baten saihetsean: familiak alabaina, ahalkez edo miseriaz ezin jakin, ez zuen Maddalen bere habian ehortzi nahi ukan eta autoritateek azken eskualdunaren zokoratzea onartu zuten. Mintzaldi zenbait hauteman ziren oraino, apezak zuloa erramuz benedikatu zuen amultsuki, kontseilu orokorraren lehendakariak palatara bat lur bota zion hobian emeki sartzen ari zen kutxari, Euskal Herri Kultur Erakundeko presidenteak, ahots dardaratiaz *Gure Aita* sentitu bat eskaini zuen eta Euskal Herri Konfederazioan bildu elkarte arduradun bakoitzak, CRSen artetik bidea irekiz, arrosa soila aurtiki zuen aditzaren hutsa markatzen zuen gunera.

Mutzuenea ostatuan iragarria zen kolaziora deituak izan ginen herritarrak oro. Gertakariaren arabera, tabernako gela nagusia bitan zatikatua zen, Hautatuak eta Hautatzaileak elkar ez trabatzeko gisan. Aburu ikerketa erakunde ospetsu batek kudeatu hondar inkesta soziolinguistikoaren ondorioak ezagutu orduko, estatuak Euskal Herri departamenduaren osatzea erraztu zuen eta bereiz egonagatik, Mutzueneko aterpean, instituzio berriko ibilmoldeak miresten ahal geni-

tuen. Ardoa, gasna eta Jainkoa lagun, mihiak askatu ziren: Maddalen zoritxarrekoa ahantzi eta solasa airatu zen, behi, ardi, emazte, gizon eta bide istorioetan berme. Herriko auzapeza uneaz baliatu zen bere urdetegiaren aldeko baimena laster eman ziezaion prefetari erregutzeko eta Cheyenne Larraburuk lanpostu bat amoinatu zion Kontseilu Orokorreko buruzagi abertzaleari. Mundurik hoberenean dena ongi zebilen, erdara traketsean lehen auzoa zutitu zenean erranez:

–Otoitz bat gutarteko hurrengo hilarentzat.

Medikuari esplikatzen nionez, aldi oroz, gutarteko hurrengo hilaren aipamena entzutean lo kimikotik iratzartzen nintzen, angustiaz beterik eta ikusi nuena amets gaiztoa baino ez zela frogatzeko, beso ondoa odoleraino ximikatuz. Jaikitzen nintzen gero eta eroaren pare gasna puska bat klikatzen nuen, zainen jabaltzeko. Medikuak ez zuen konprenitzen gauaren biluzia eta desesperantza eskas nituela jadanik.

Bakea eta bi S.O.S.

Ez bilatu gauzen zergatia: erkatzearen eremuetan gal zaitezke! Geldoa mugimenduan sartzen denean, mugimendurik ez dago; mugimendua geldoan lerratzen delarik, geldorik ez da.

Nork zekien goizetan, begiak zilar eta idor ohetik ateratzean, egunak zer ekarriko zion? Beti harritzen ninduten, eguzkiaren oldarretik honen amore ematerainoko denbora zuhurki eta hertsiki planifikatzeko gaitasuna zeukaten jendeek. Eta baziren horrelakoak, destinoari, sorpresari edo nahigabe biluziari toki izpirik uzten ez ziotenak! Agenda belztuak aireratzen zituzten harroki eta ez zuten sekula deusetarako denborarik: jaiki, lan egin, jan, pausatu, emaztearekin bekoz beko afaldu isilik telebistari begira eta loak har, bi neuroleptiko irentsi ondoan: bizia deitzen zena, hots. Aldamenean mundua uxkail eta hauts zitekeen bizi horiek nehoiz desbiderarazi gabe, izan istripu, izan bat-bateko hats-galtze, izan sahatsen oparotasun ikaragarrietan gehiegi fidatze... Ezezagunarentzat ez zeukaten lekurik.

Garai haietan aldiz, bide zuzenetik baztertzeko estakuru guztiak on zitzaizkidan; egutegi finkoa aspaldian saihestua nuen eta arratseko bilkura orduez salbu ez ninduen ezerk mugatzen. Kideen ibilmolde zehatzak gutiziatzen nituela aitor dezaket egun. Baina gutiziak ez ninduen aldatzeko xendetan plantatzen: errealitatea irazkia bezain zulatua neukan. Adibidez, hiriko ezkiz azpatu plazara jauki eta Memena elekariaren gurutzatzeko zoritxarra baldin banuen, egunaren programa osoa itzul ipurdikatua kausitzen nuen. Adibidez oraino karrikan, laino mehar, Kubako zigarro usaina atzean abandonatuz zebilen gizona tipus-tapasean segitzen hasten ahal nintzen, haren hatz mistikoak itsasoraino hedatzen zirela itxuratuz. Alegia ezer ez, *Sud Ouest*-eko horoskopoa irakurriz, taldean bildu jendeen solasak buru onean inprima nitzakeen, bizia zeinen debalde zen oroitzearren. Denbora urtzen zitzaidan eta hondarrean, ohean eta bakarrik ohean egotea ekintzarik seguruena nuela sinestera heldua nintzen, antzara-lumazko estalia anitz ez higatuagatik.

Argi zirrinta hartan sukaldeko leihotik gerezitzeak dena lili zuri miretsi nituen, maitekiro, luzaz. Zuhaitz misteriotsuek soa ebasten eta gatibatzen zidaten, Fujiyama maldako txabolan jarduten zuen japoniar maisu baten estanpa urdin ikaratuak bailiran! Halatan, haize arin eta beroaren buhakoek balakatu ninduten, edertasun eskainiaren aurrean bitxiki susmo txarrak haziz. Zeru kantoian, ni bezala gauaren aztaparretarik salbatua, ilargia zegoen zohargi, marrazki dudakor, hodei hariekin jostari, mutu. Ekialde kutsuko giro epelean, kafea edan nuen neure kolkorako «zer gertatzen ahal zait egun?» eskatuz. Goizeko bietan alabaina, bilkuratik etxerakoan, gasnaz itsuski ase nintzen. Arrats apalerako beste hitzordu bat iragarria zitzaidan eta ez nuen espantu egitekorik, eguna ahal bezainbat kasu eginez pasatzekoa nuela gogoan atxikiz. Hargatik, gerezitzeak lili eta apirileko aire eztia zela kausa, mehatxatua sentitzen nintzen.

Egunean zehar, egia erran, laneko eta gainerako betekizunak oro alderantziz edo ifrentzuz obratu nituen: kontularitzan derrigorrezko gehiketen ordez, kenketak eramanik, enpresaren

oreka ekonomikoa zalantzan jarri nuen; bazkaria apailatzerakoan, egunkaria leitzen ari nintzen artean, haragia ikatzeraino erre nuen eta beheko karrika guztia ketan suertatu zen bulta batentzat, su-hiltzaileak doi-doietarik ez zirela etorri; tabakoaren erostera joan ondoan, soilik papera eskuan atera nintzen saltegitik; nagusi txikiak lau aldiz eta bilkura kideak telefonoz bietan erasiatu ninduten; eta azkenik, Jojobar ostatuan seietan neukan zita garrantzitsua arrunt hegaldatu zitzaidan pentsuaren muinetarik, aiduru neukanaren pazientzia labakituz, urrutizkinean, eneak eta asto beltzarenak ahoskatuz larderiatzen ninduela frogatu zidanez gero.

Aipatu biltzarrera abiatzeko unean, ahul, hauskor eta minbera sentitzen nintzen, gorago nioen eran, segurtasunez eskas. Joan ala ez joan hamabostetan gogazkatu nuen, elkartearen Mitologiaren uztarripean amiltzea erabaki nuen arte: funtsean huts egiten baldin banuen, ene bihotza ukamen ugarien ildoetan itotzeko arriskuan plazatzen nuen, eta nolabait nik horrelakorik ez nahi! Edozein baldintzatan, menturaz Hokusaien eragin urrunez, kamikaze xume, sines-

kor eta umil baten moduan funtzionatzen nuen, ene kideen antzera. Eiki gaueko borroka honetan, arma karioen partez, hitzak generabiltzan, ezpata zorrotz zenbaitetan, labana gorde mehar beste batzuetan. Zehaztapen hau beharrezkoa dela uste dut, gerla mundialak CNN telebista kateko berri sailen lehen minutuetan deklaratzen direnean: zortzietan Belgrad edo Bagdad bombardatzen ziren, arraiki eta ausarki, zuzenean.

«Amodioa Bai, Gerlarik Ez!» zioen belaunaldikoa nintzen. Urteak aitzinatu arau lemaren ilusio hutsalaz konturatzen nintzela agertzekoa nuen: amodioa baino errazago eta garbiago zen gerla hondarrean. Miserikordiaz biluzi gau hartan sineste hau are indartsuago bermatu zitzaidan. Zergatik ez nintzen mesfidatu? Hastapenetik zerbait klaskatuko zitzaidala sumatzen nuen alta... eta gizon xehe haren irriaren samurraz ohartu orduko beranduegi zen neuretzat; tanpez xedera zerratu zen, gorputz osoa, batez ere sabelpea ikara zilarraz urratuz. Betazalak ahalkez apaldu nituen: behin-berriro maitasunaren sareetan harrapatua nintzen, hegorantz doan urzo gaixoaren gisa. Bilkura biharamunean, gerezien

amultsua gogoan, lagun batek bere etxera afaritera gonbidatu ninduen eta han zen guztia gertatu: ikusi, entzun eta usnatu bezain laster amoros nintzen, ahoa irekitzen zuen oroz, buru zokoan Metropoliz erraldoietako errauts, jende, azantz eta mugimenduak txertatzen zizkidala. Jadanik jasangaitz bilakatzen ari zitzaizkidan gau hautsi eta melenga hauetarik ahalik urrutien eroan nintzan otoizten nuen gizon zardaiaren so kuraios, fermu eta umila.

Bigarren bilkuraren oskorrian, akidura metatuagatik, airean nenbilen, edozein aitzakia nahikoa neukala debaldeko zozokeria lerroen ahoskatzeko: lankideek beren ohizko bakea apurtua zekusaten, harrituak. Amodio eremu suntsitua nintzen, hautsezko pentoka, zerutik isuri euri nitrikoa, belarrak berak ukatzen zuen lurra, eta egoera honek ezer onik ez zidan ekarriko: gizon eztia, itsuski ederra, bere bidetik joanen zen; ez nuen nehon gehiago gurutzatuko eta euforiazko ordokiak hegaldatu ondoan, ortzaiz ilunetako zizarrez hanpatu hodeiak ene hegazti migratzaile ibilerarentzat traba astun bihurtuko ziren. Orduan, eta orduan bakarrik, dolumen lehertuko

nintzen, bizitzako liburu ankerraren orrialdeak haserrez xehakatuz.

Bizkitartean, engainatu ninduten ezpainen pleguaren itxura zerabilkidan gogoan, bide ertzetan, pazoin puntetan arinki pausatzen ziren hontz eta kahakak amira nitzakeen tenore urrietan. Apirileko euri gau samurrek preso hartzen ninduten: auto erroten menera jauki igeltxoen salbatzeko, bolanteari inguru perestua ematen nion, edo ipularrean hedailo, hatsanka zegoen azeriari, esku hutsez, hobi saindu bat zulatzen nion, «Zerua Saritzat» diskretuki abestuz. Gizonak bere besoen gerizan aterpe nintzala irudikatzen nuen. Bilkuretatik landa, mendiak zein muino mazelak ardi marraka ozenez betetzen zirela, intsentsu usainaren oroitzak lardaskatzen ninduen: ilargiari eta noiztenka izarrei, haurtzaroko igande bezperetako salmoak, burutik buru eskain niezazkien. Gizonak jendetu eta jendetuko ninduena? Nori aitor niezaiokeen nire pasaiako amodio herbalak oro birindika aurtikitzeko prest nintzela? Ardirik eta arditik ez zeukan, baina otso krudelen erdian igerika bazekiela

segur nintzen. Amets arketipikoetan barna galtzea desiratzen nuen ondikotz, salbamen eske.

Etxera eta gasna, mehe eta kilikari mozturik, itzala bilatu nion Axular zenari. Gerotik gerora zebilen euskaldun bakoitzaren antzera, Sarako teologo mediatikoa argia zen. Ni nintzen, maitemindu errea eta ilunpe galdu eta zabal bakarra.

Naizen neskato umil hau...

Azkenaren Mugen zaintzeko araudi eta legerik ez dago.
Izpiritua nortasunarekin bat josirik baldin badoa,
ekintza guztiak hartan baketzen dira.

Denborarekin konturatzear nago ez naizela batere goizekoa, are gutxiago arratsaldeetakoa, agian soilik gauetakoa. Alabaina, bilkura biharamunetan, eguna, ogi zaku triste baten maneran, herrestan higatzen dut; lanetik ateratzea aski dut hargatik, aharrausika eta zeru sakonari begiratzea, bizi-bizirik sentitzeko bat-batean: gaualdi berri batean bidearen bihikatzeko gai naiz orduan. Arimarentzat bezainbat gorputzarentzat Argia premiazkoa dela irakurtzen da anitzetan emazteentzat agertzen diren eta medikuaren behatokietan ikuskatzen ahal ditudan aldizkarietan; irudiz fotosintesirik gabe irauten duen hosto lehorra naiz. Lo eskasez iharduki dezaket egunak egunei hilka, baina loaren garrantzia ezin dut nahitara ere ahantzi, laneko zortzi orduetan zehar kolegen ahoetarik betekizun fisiologiko ho-

rren inguruko solas bustiak isurtzen hautematen ditudanean.

Tresna gisa erabiliak garenontzat egiaz, loa ezinbestekoa da. Seietako iratzargailuaren orroa ikaragarri zaigu, haragiak, oraino osoki errekuperatua ez dela, ohean berean inarrosten gaituelako, sega zahiz hanpatu eskorga herdoilduaren antzera. Tenore horretan automatak gara, altzairuzko panpinak, burdinazko beso eta zangoak, aluminiozko bihotzak taupadaka ari zaizkigula, ferblankazko pentsamenduak ibiltari. Lanera horrela heltzean, gaueko urrin merkeak ezabatzen zaizkigula, agurrekin batera eleak trukatzen ditugu.

–Jaiki?

–Jaiki bai, esnatu ez oraindik –ihardesten diegu irri etsia ezpainetan, begiak idor eta mihiak totel.

–Zuk ez duzu ohea ikusi gaur –gehitzen dit abilagoren batek.

–Ez, baina doi-doia gurutzatu dut hala ere!

Iratzartzea, edo esnatzea –esne ematen hastea ote?– Jainkoen zereginetan denez galdezka nabil goiz hits honetan, laneko kideek beren gau

latzak deblauki eta espantuz aipatzen dizkidatela: bat, bilkuratik etxeratzen nintzen unean preseski, hiruretan tanpez iratzarri da, lotara ezin bihurtuz sehaskan ihalozka; bestea aldiz, hiruretarik seietara laburki eten da, azkenak lexomil pastilla bi irentsirik satorren hordia dastatu duelarik, Claire Chazalen berriak huts eginik. Oskorri hartan, jende bezainbat lo bazegoela froga nezakeen, bakoitzak ordulari partikularraren gurutze astunaren intziriak zeramatzala buru zokoan. Dirudienez bakarra naiz, noizbait ohe baten larruz hunkitzeko aukera baldin badut, eguneko eta gaueko edozein tenoretan loa har dezakeena. Itsas ertz biluzi, harrobi ilun, antzoki populutsu nahiz trenetan atseden handian lerra naiteke. Herotsak ez nau trabatzen, are gutxiago eguzkiaren argiak. Baldintza horietan, pausatzeko egoerarik maiteena enetzat, euriak kolpe samurrez teilatuak balakatzen dituela izango da.

Telebistetako egitarau muntatzaileek ontsa dakite estresak gatibatu sozietate «kitzikatu» honetan loa gehiengoaren kezka bilakatua dela, eta karia horretara, gaiaz eztabaidatzeko espezialistez mukurutu platoak osatzen dituzte, as-

tean behin: bizkarreko mina, homosexualitatea, haragi kutsatuak, behi eroa, bikote mistoak, emigrazioa edo lo egiteko arazoak dabiltza aipamen, lekukoak eta medikuak, zenbaitetan jendeez mintzatzeko beterinarioak gonbidatzen dituztela. Ene lankideak ez dira gohaina salbu, hiri handi galduetako desbideratze moraltzat daukaten homosexualitateaz biziki axola; zitziari dagokionez, etxekoa izan edo auzokoa hormonarik eta abere irinik gabekoa jaten dute, ahalaz supermerkatuko ataletan Eusko Label urguilutsua erakusten duena; bikote mistoena aspaldian sartu zitzaien ohituretan, euskaldun neskak biarnes mutikoekin eta viceversa, frantsesez ezkontzen hasi zirenetik zehazki. Bizkarrezurrak purruskatzen dizkien doloreaz eta lo ezinaz diren emankizunak bizkitartean ttattit eta mutu segitzen dituzte telebistan, biharamunetan ausarki komentatzeko.

Pausa aski ez dudan momentuetan zehatz ari zaizkit kideak beti, loaz eta honen inguruko xehetasunak emanez, eskatuz, laburtuz.

–Lehenean barda emanaldi galanta bazen, baina berant, gero begiak zerra ezin geratu naiz...

–Ilargi aldaketa zena?

–So egin dut ikastolako egutegian; ez dut deus ikusi. Badakizu loa gauza bitxia dela? Zernahi ikasi dut: noiz, nola, norekin, non... Mintzalari bat bazen, hamabost urteotan egiazko lorik egin ez zuena: pentsa ezazu!

–Uuuuh! Zerbait daiteke bai hori. Desesperatuki iratzarrian zabiltzanean, erremediorik hoberena larrua jotzea dela aholkatzen diot, ahoa zabalik ene parean dagoenari. Gizon aberatsarekin amodioa egiten duen goiz apurretan, emazte hori aiaiaka etortzen zaigu lanera, bizkarretik minez, begitartea zimurdikatua eta soinean behera dena oinaze: ziatika garaiza, flebitisa beharbada, non ez den fibroma! Bakea eman haurra! Kontseilu hedatzea erraza zait, ez dudalako egundainokoan, ez lotan ez amodiotan higatzeko betarik.

Kidea, lana baduelako aitzakiaz, urruntzen zait, afruntatua. Izpiritua mila puskatan haustera utzi aitzin ene egin beharretan biltzen naiz. Har-

gatik, hilerokoak kalbario bide dauzkala, duela bi aste eduki zituela erantsiz itzultzen zait oraino eta sarri, zer gerta ere, odolaren jori oparoegiaren zergatiaz ginekologoaren kontsultatzera zuzenduko dela aitortzen dit.

–Minbizia balitz?

–Zuk minbizia? –trufaz erantzuten diot–. Bizi mina baizik ez duzu, mugi zaitez, ibili, hil ezazu telebista zozo hori eta ikusiko duzu hobe zaratekeela!

–Aise ari zara –etsiaz ene saihetsetik aldentzen da, belarri eztiagoa eskainiko dion kolega baten ondora lehiatzeko, negar auhenekin jarraitzearren.

Horrelakoetan, tai gabeko aharrausiaz askatzen naiz. Zortziehun bider errepikatu Papi eta Mamiren inguruko argitasunekin berriz hurbiltzen zaidan arte, menia sainduaz goza naiteke.

Nihaurk ongi eta lasai lo egiteko ditudan baliabideak ez dizkiet lankideei aipatzen ahal: ausartzia eskasa eta ahalkea nabaritzen dut. Jadanik ero erditzat naukate, eta ez nuke nahi ments oso gisa kontsidera nazaten, batez ere lantokia bezalako leku inpertsonal horretan. Badakit,

horma guztietarik, nagusigoaren mespretxu eta apaleste lerroak lerratzen zaizkiola. Intimitatearen agertze bidean hein bat badela sinesten dutenetarikoa naiz. Etxean edozein aho zabal gutxiesten anitzetan entzun dut.

–Erranen du non kaka egiten duen ere!

–Bai eta norekin oheratzen den halaber –eransten zion solaskideak amatxi konkortuari, oiloak, antzarak, ahateak eta pulindan sukaldeko leihotik karrankaz hautematen zirela.

Eguneko ordu bederak lehertzen duen laneko lagunei ez diet salatzen neurri handi batean onanismo gastronomiko soila baino gehiago den ene bizioa: bilkuretarik etxerakoan mahairatzen naiz, Xiberoko Botza irratia piztu ondoan, hozkailutik gasna peza gottorra ilkirik desiraren ausiki ozenez gauaren hondarki ilunak irensten ditut. Orduan, Iratiko larre aberatsetan kausitzen naiz, aitzineko artzainen kromletxak eskuin aldean, artalde multzo mantsoa ezker aldean irudikatuz zainak jabaltzen zaizkit. Frankotan, errege-bide bustian zirristan dabilen auto baten zaratak ametsa hausten dit bat-batean.

Lankideak gaueko une zehatz eta isil horretan iratzartzen dira. Senarren loa ebakitzen dute bristadan. Ohean, inguru-minguruka dabiltza, belaun ukaldi bat hemen, beso kaska bat han, letra gorritan azaltzen den 3:14 tenore zenbakiei tematuki begira, bikotea asperduraz haserretzen deneraino. Ez da istorio klasikoagorik! Biharamunean, lo faltaz dauden horiek, lo premia duen izatearen bildutasun mistikoa inarrosten dute. Munduaren legea ote da? Loa eta amodioa ordezka ditzake gasnak? Euskaldun nortasuna ilunpe etengabeak zedarritzen du? Lankideek telebistari fidatzeko ordez, zergatik ez dute asmakizun erotikorik itxuratzen? Heziketagatik bakarrik ala? Noiz etorriko dira estralurtarrak? Irakurle, idazleak berak lotarako astia berriz eskuratuko duenean edukiko duzu galdera hauei emaniko ihardespena.

Gasnamaniako otsoa naiz.

Dudak ezabatzean, indarrez eta berme,
egiazko fedea berragertzen da.
Deus ez da gelditzen, oroitzea balio ez duen deus.

Aste bakarrean lau bilkura izan nituen. Ingurukoek lanean, gohain neuzkan metodologia eraginkorren finkatzeko hitzorduetan, erosketetan, denetan, hits eta hets harrapatu ninduten. Alta, ilunpeak mundua troxatzean, iratzarriaren pindarra nigan sustatzen nabaritzen nuen aldiro. Mediku eta espezialistei oinarrizko akiduraren atzealdean zer dagoen maiz eskatu diet, hauek erantzun egoki zein razionalik eskaini ez didaten arren. Ilunabarra hurbiltzearen sentimenduak, hunkitze beratuaren ateen haraindira eroaten nauela badakit hargatik. Mirakuluz bizi naizela jakitea aski zait, maitaleak ahoa borobil eta soa sutan noiztenka, horretako hain zuzen erasiatzen nauela artetan. Maitaleak larderiaz segitzen baldin badu, denbora apurra dauka segur ene aldamenean!

Azken aldian, goizeko bietan etxeratu naizenean, bezperan, supermerkatuan dena espantu erosi gasna puska hozkailuaren aterpetik desagertu zela konturatu nintzen: nor deabru zen ohoina? Kexu errea nintzen; sukaldeko mahaiaren izkinan, hozkatu azal gurintsuak metan zeudela ikusi nuen. Tarrapata eroan ganbarara joan nintzen eta ene bihotzaren erdia atzeman nuen, ohean deblauki etzanik, zurrungaz. Oihu zainartaz begiak irekiarazi nizkion eta lo horditik aharrausika jalgi zen.

–Maitea –erran zidan–, itzuli zara?

–Eta bai. Zer uste zenuen han geratuko nintzela ala? –ihardetsi nion gogorki, doinu berdinean jarraituz–: Non da gasna?

–Onetik hura?

–Bai. Hura eta bera. Naka-naka jan duzu gelditzen zen zatia? Enetako pilixkarik ere utzi gabe?

–Zatoz! Muinu-muinu egin dezagun! Ahantz ezazu gasna! Bero-bero nago...

–Barkaezina zara –huxtukatuz bukatu nuen elebidea.

Ene nazioarteko Visa txartela erabil zezakeen, lagun ohiak izuaraz eta kide neuzkan mutilak harro zitzakeen, sarean ibil zitekeen nahi adina, paso, paso eta paso. Espreski zainen jabaltzeko hartzen nuen gasna hark osorik klikatzea ez nuen onartzen ahal. Apezak, urrezko kaliza bezain gurbilki gorde nezakeen altxorraren desagertzea orduan biziki deitoratzen nuen. Zinezko euskaldun suhar eta plantako sentiarazten ninduen tramankulua, zikoitz, bekaitz eta ezin ase baten sabelean, molekula xehe eta malguetan barreiatzen ari zelako tristezia larriak gatibatu ninduen. Deprimitzeko puntuan nengoela, gelatik maitalea buhaka entzuten nuen.

–Dena espantu zara: Onetik handik, Onetik hemendik... Usteltze erraldoiaren arrats handiaren mugetan, hesteak euskaraz kilikatzen dizkizula uste duzulako; besteak bezalakoa da, industrial hutsa, labelagatik anfetaminaz, anabolizanteez, kabala irinez ekoiztu ardi esnez ondua! Harrik gabekoa, bazaizu zuri?

–Isil zaitez hortik –oihukatu nion sukaldetik–, zuk bederen harrik ez duzu eskas buruan!

–Zer baimentzen dit –zerraion–, Jainkoa bailitzan adoratzen duzun gasna hori, Euskal Herriko egiazko azienden joriz bildua dela? Hobe genuke orain berean amodioa egitea, ez?

Ez nuen gogo izpirik neure azpi arteak egoista itsusi baten eraso eta milikei eskaintzeko. Gauaren minean inarrosi eta tanpez iratzarritako maitea sugearen pare gaiztotzen ari zitzaidan. Jokoaren lasaitzea deliberatu nuen.

–Onetik gasnaren balio zehatza zalantzan jartzen baldin baduzu, zergatik ez dituzu Trinitatearen, Aita Sainduaren hutsezintasunaren eta Jesus Haurraren Ama Maria Birjinaren dogmak dudan ezartzen? Alor pragmatikoagoetara etorriz: ez ote zatoz bat %100 basque den lekuan lekuko ekonomiaren garapenaren aldeko ekinaren baitezpadako funtsarekin? Eta zer diozu klase borrokaz? Euskalduntasuna ederki gerizatzen duen Gasnarik eta artzainik gabe eraiki nahi ahal duzu etzidamuko lurraldeak oro mistika berdinaren ardatzean bilduko dituen euskal nazioa? Zertarako ez dugu jagoitik gasnaren azaletan mintzatuz preseski euskal nazio horren forma juridikoaz hitz egiten? Zu ikusi eta nago ez duenez

oligarkia militar burgesak kudeatu estatu egitura ukanen? Ea ihardetsi hor!

Isilune baten ondotik ufatu nuen:

–Gainera, ez didazu purruxkarik ere laga.

–Gose nintzen eta armairuetan ezer ez zegoen jateko, salbu zure gasna «sakratua» –erantzun zidan, begitartea kuetaren pean gordez, ehiztariari ihes doakion kurkumixa umilaren antzera; bere familian ez ziren usatuak naski munduaren berrantolatzeko asmoz goizeko lauretan arrangura larrutuak plazaratzen.

Estaliaren azpitik, predikua botatzen niola, aski, aski eta aski hitzak behatzen nituen. Bake agiria izenpetzekoa nuen, ondorioz, gudari eskasez.

Maitalea atsedenaren bidean lerratu zen; bizkitartean, ohearen gainean kuxkur egon nintzen denboraren luzeaz ez naiz gogoratzen. Une batez negar gutiziaz amildu nintzen eta bihotzak, hipak entzutean, ohean inguru ez axolatia marraztu zuen, ezker aldera. Barneko tristura handia neukan: gasnaren ausentziak antsia haztten zidan, bakardadea areagotzen, abandonu irudipena biderkatzen. Zenbaitetan malerusa

sentitzen eta bakarrik ibiltzeko lehiaz hanpatzen nintzen. Maitea hasperenka iratzarri zen.

–Zer ari zara oraino?

–Pentsatzen.

–Bostak dira; pentsatzeko tenorea dela uste duzu? Bihar Onetik madarikatu hartarik ekarriko dizut edo Kokotegiko gasnatik eta kito. Nik neure neurriak hartuko ditut.

Kokotegiko gasna harrez emokatua zela egia zen. Mami malguaren minean, haragi malats zuriak ihaurrika zerabilzkion janaria oparituz, bere burua salbatuko zuela sinesten zukeen maiteak. Ez nintzen haurra, xantaia afektibo errazaz erabilia izateko, nahiz frankotan estatuek, gutarrek eta etxekoek hari horrekin egoera josten zidaten. Maitaleak ez ninduen erosiko, ez horixe! «Duintasuna» hitza murmuratu orduko morpheak gatibatu ninduen. Ametsak, ardiz, esne hagunez bete kotxuz, kakailaz, udaberri arratsalde apaletako saldo urrinez, artzain heiagoraz, burdinazko pertz borobilez, altxagarriz eta hondarrean gasna bildu berriz nahaspilatu zitzaizkidan.

Biharamunean jaiki nintzenean, sumatu eran, sukaldeko mahai kantoian, paper zeiharrean tro-

xatuz gasna hiruki mardula zegoen, eta haren ondoan, Bihotzaren eskuz idatzi gutunazal arrosa: «Maniako, depresibo, neurasteniko, paranoiko, eskizofreniko eta egoista batekin ezin dut iraun: banoa. Hitza hitz!».

Ufa, ez nuen bada guztia galdu.

Berez dena argi eta dirdira dago, dena hutsa da:
ez nekatu zure izpirituaren kemenak! Pentsuak
ez dezake absolutua neurtu, jakitateak ezin du hazta!

Gauaz ibiltzearen bortxaz, anitzetan Sigur Rosen musika lagun, lurraren errealitatetik urruntzen nintzela sentitzen nuen; ez nintzen hargatik galaxiatik kanpo bizi zirenetarik ere, alderantzizko froga eskainiko zidan Blade Runner kontra-erreformatzaileetarik gurutzatzen ez nuen bitartean behintzat. Erratekoa dut ordea, gure artean, nihaur ez bezala, gela usaintsuetan pausatzen eta mihise amironatuetan loak hartzen zituen jende horiek ugariak zirela eta edozein unetan, partikulazki bideak eta karrikak ilunpeek biltzean, pentsamendua mehatxatua suerta zitekeela. Gehienek halatan, neurolepti-korik gabe, gusturik hoberenean, bazekiten derrigorrez egin behar zena manatzen hitz labur, zuhur eta suharrez. Lau mila altzairu puskatan barreiatzen ziren gertakariak jasaten genituen

isiltasunik handienean. Ezintasunez hordi genbiltzan.

Errapeak goseti murtxatzen zizkieten suge zilar sotilak tegietan sartzean ardi gaixoak, beldurrez harrituak zeuden bezala geundela gogoetatzen nuen behin bilkura zail batetik etxerakoan; sugea alabaina ez zen otsoen aterpean gerizatzen, baizik eta negurik hotzenean berotasuna oparitzen zien marro eta ahari ahulen koraletan. Itxuraz gizon abila zen aitona Gilen zenaz amak kontatzen zigunaz oroitu nintzen.

–Ba, aitak hiltzear zegoen sugea, mokanes brodatuan bildurik, etxera ekarri zuen. Supazterrean odola gesaltzen eta katilu bat esne ondoan jarriz pixkolatzen plantatu zuen. Aita pozik zen ikustean sugea berpiztu zela, baina honek indarrak eskuarturik, sukaldean ziren guztiak ausiki nahi zituen bere eztenkada pozoitsuaz –eta amak segitzen zuen, istorio honen morala azpimarratuz–: Xenda horietan mele-mele otoitzean entzunen dituzuen jende franko bada horrela zuen zerbitzuen premian, zuetaz baliatu ondoan, trapu zahar mutzitu baten antzera gero botako

zaituztenak; egin ezazue egin behar duzuena bururaino eta ospa.

Amak ez zekiena hauxe zen: gauez autoz hara eta hona zainetan bidaiatzean, istripu desiraren eta desiraren istripu artean, sortzetik sehi eta mutil hezi kanoi-haragiak ginatekeela euskaraz ere Jainkoa Lagun zutenentzat, iragan mendetik ekidinezina zirudien zartatze linguistiko baten ume mutuak ginelako, ekintza aditzak grekatuz ahoskatzeko orduan aldi berean erabiliak, eta baztertuak. Bi estatuen errepresioaren aurkako afixen kolatzera igortzen gintuztenetan, beti beren familia bizitzaren oreka aurrean jartzen ziguten eta egia zen ez genuela familiarik. Eskuak kola lodiz apaindurik, afixetan agertzen ziren ezkerreko zein eskuineko hautetsien irri mardul eta faltsuak jasan behar genituen ondorioz, gohainak gontzetarik jauzarazi arte. Gasnaren bidea hurbiletik jarraituz, amaren hitzak gogoan, atzealdean «élevé en plein air» idazkiaren gainean zerri sano arrosa eta alegeraren marrazkia zekarren eta pasatzera uzten ez gintuen kamioi baten ipurditik kilometroak lerrokatzen ge-

nituen. Hasperen etsiaz berantetsia azpimarratzen genuen.

–Non gaude? Nork deitu gaitu erasora? Zergatik gabiltza tiro gurutzatuen artean hil zorian, gerla oihu-egileak trintxeraren maldan gelditu direnean? Gerla hau ez da gurea –marmaratuz mukizapiak aho aitzinean jartzen genituen gasen trabak ekiditeko.

Gau mutua zen gure interlokutore bakarra.

Sugeak, ardiak, hormona sintetikoz zein abere irinez hazi urde gurintsuak, erreformako ahari kankail trapatuak buru zoko haserretuan nituen batez, ene probintziara sartzeko borobilean, egiazko haluzinazioa ukan nuen: kotxearen argipe zurian ardiak alhan mirets nitzakeen, ronpuinaren belardian xaloki eta artzainik gabe. Beso ondoa zimikatu nuen, Fatboy Slimen zinta geldiarazi eta ikusgarriari so geratu nintzaion, ahoa bete hortz. Arras zintzo izateko, eta gure paranoia naturalari fidel izanez, gauaz ardura agitzen den eran, uste dut hor polizia armatu kontrola batean suertatu baldin banintz, ez nintzela gutxiago durduzatuko: polizia gizonei alias indar errepresiboei eskatzen zituzten hiru zuzen-

bide ezberdinekiko paperak erakutsiko nizkien eta «uufff» ikaratia askatuz pasatzera deituko ninduketen, hotz. Baina hor ardiak ziren agertzen, nondik norako argitasun izpirik gabe.

Bazterretara barrandan beha egon nintzen. Nehor ez zegoen, ez kaxketadunik, ez kaputxadunik, ez kasko laserdunik, ez adiskiderik eta ez etsairik. Autotik jalgi nintzen arraposki, unibertsoan bakarrik nengoelako irudipenak gatibatua eta ardien aldamenera herrestan hurbildu nintzen. Batetik norbaitek kukuzkatuko ninduelako eta bestetik, hain bake lasaian alhan zebiltzan ardien izuarazteko lotsa bikoitza neukan: ikusi eta hunki nahi nituen baiki eta eiki. Hargatik zangoa belardian pausatu nuenean, hormatu nintzen: ardiak eskapatuko zirena, ondoko artadietan desagertzeko? Bihar ikerlariek ene hatzak kausitzen baldin bazituzten xahu nintzen. Ardiek loriarik hoberenean alhan segitzen zutela, zeru beltzean ekialdetik ilargia jazartzen zitzaidan bitartean, deus eta ezer ez zen higitzen.

Azterketaren ondorioz ardiak barnez burdina herdoilduz eta kanpoz plastiko zurpailez osatuak zirela onartzera bortxatua nintzen. Ni bezain isi-

lak eta damutuak ziren. Nire engainatzeaz gaztigatzeko baten bati uzkian ostikoa eman niolarik ez zen den mendrenik ere mugitu, marraka ausentziak tronpatua izatearen neure sentimendu hutsalak biderkatzen zizkidala. Zazpi ardi faltsuren erdian, belarrean bertan, jarri nintzen. Ortzi ilunaren minean argizaiola baten ibilera jarraitu nuen, aspaldian espero nuen estralurtarren zirta zela irudikatuz. Soa apaldu eta ardiak zementuarekin lurrari lotuak zirela baimendu eta bizitza pastoralaren nostalgiko bat jadanik zutabearen segatzen saiatu zela ohartu nintzen: zer gauza ttattuna hau baratze erakustoki baterako! Artzainaren burdinazko eta plastikozko tailua falta zela neurekiko gehitu nuenean, urrats metalikoak hauteman nituen, Salbatarreko bide juntatik etortzen. Tanpez inguratu nintzen.

–Nor dabil hor?

Ihardespen zuzen ezak izoztu ninduen. Bilkurako eztabaidak, kideen larderia keinuak, kontra-erreformatzaileen ekintza gogorrak ahantziak nituelako aitorrera zor dizut irakurle. Lastima. Ardien presentzia xumeak kontuz ibiltzekoa nintzelako ideia burutik aterarazi zidan. Gauaren

beltzean inoren aztarnarik ez nuen sumatzen. Alta izaki misteriotsua ez zegoen nigandik hain urrun, hitz egin zuenean, argiki entzun nuelako:

–Rachel Rosen naiz.

–Ezagutzen dugu elkar?

–Zure zati androidea naiz. Kontra-erreformatzaileen eta ideologia aldetiko egokitzaile ankerren aurka borrokatzen lagun zaitzaket.

–Zuk?

–Noski.

–Ez naiz puskaz puska muntatu makina bat ni, humano soil bat baino.

–Uste duzula –irriz zartatu zen androidea–, ardura tresna gisa erabilia zara, aitzur bat edo ordenadore baten antzera, eta pieza bat hausten zaizunean, baliotasun testa pasarazten dizute: barne zirkuituak erretzean zakartegi munizipalerako baizik ez zara on. Ez da hala?

–Inteligentzia artifiziala hain hedatua den Mars planetara eroan nazazu. Dagoeneko Marseko euskaraz idazten dudala badakizu? Hemen ezin dut gehiago. Alhan debalde dabiltzan alegiazko ardi hauen pare bilakatua naiz.

–Zure aldia etorriko da –ahoskatu eta etorri bidetik urtu zen Rachel Rosen izenez aurkeztu zitzaidan androidea, nihauren zati agertezina, zioenez.

Erdi jendea baldin banintzen landerrean nengoen.

Gau hartan hondarrean etxeratzean, sekula baino gehiago, hozkailuan gasnaren ez atzematea deitoratu nuen. Ardi elektriko ametsetan galdu eta alabaren gelan zegoen noizbait Garaziko denda batean erosi ilainkizko bildots erraldoia besoetan tinkatuz oheratu nintzen. Nehoiz agertzen ez ziren galaxiaz kanpoko izaerekiko harreman iragarriak esperatzen akitua, bakardadez psikopata bilakatua eta «Rachel Play Again» mekanikoki errepikatzen.

Ez nuen amore emanen ordea.

Egiazko izaeraren munduan ez da Besterik, ez da Norberarik. Harekin nahi baldin baduzu bildu «ez binako» erran ezazu.

Joanes Pittun zuen izena. Egiazko laborari semea. Guztiek, txiki edo handi, Joanes erraten genion, nahiz euskaltzain izanez ostatuetan zein bilkura ondoko aparkaleku zurpail desolatuetan haren gurutzatzeko arrisku gutxi geneukan. Hargatik, astekari aberatsetan elkarrizketa mamitsuak irakurtzen genizkion, batez ere «euskarazko erroaren sakoneko polimorfema irekien bilakaera baldintzatuaz» mintzo zela. Joanesen mintzaldiak ez genituen bistan dena erabat ulertzen; alabaina gure manifestaldi, negoziazio, burutazio, imana zio, isila zio bezalako hitzen sustraiak ez ziren benetako euskal jatorrikoak, «bilakaera» mugatuegikoak aldiz Joanesen talentu zilarraren ez kolpatzeko. Euskaltzainak, bizkitartean ez zuela nehoiz salatzen euskara hilobira bidaltzeko estatuek eta hauen mutil ziren ikerlariek eraman zuten joera sistematikoa, egunkarian ze-

raman *Hobets* sailean, gazteon euskararen masakratzeko jaidura tzarra etengabe azpimarratzen zuen. Haren erranen arabera irudi zuen gu ginela mintzairaren suntsitzaileak.

Seminarioan haur hotz sartu zenetik, Joanesek euskara baizik ez zuen gogoan. Euskararen salbatzeko helburuaren lortzeko Pittunek Jesukristo zeukan eredu, honek bere bizia sakrifikatuz, Hitz bakarra zela medio, mundu bekatorosa infernuaren garren mehatxuetarik atera zuelako. Apeztu, urgazle bihurtu eta, bere iritziz ongi merezitu omenaldia erdiesteraino otoitzaren eta azterketa zientifikoaren mundu gerizatuan geratu zen. Euskararen amoreagatik, sotana kendu zuen egun berean, fededun bat erdalduna zelako aitzakiaz, mezak eta predikuak frantses eder, leun eta txukun batean zelebratzen hasi zen, bizkitartean euskarari esker, Bangkokeko eta Delhiko unibertsitateetako Honoris Causa doktore izendatua izatera heltzen zela. Gizona arras eruditua zen cum laude. Aldaketa soziologikoak hain erraz onartzen zituen Joanes hark ordea gaurko hamarkada nahasiari, kofesioa bederazkako sekretutik aitortza mutu orokorrera lerra-

tzen uztea ez zion barkatu: ekintzaz ala pentsuz arraiki egin emazteen bekatuak entzutea izugarri maite zuen eta erran ezazu kontriziozko akta bat, ezkilen jotzera noan artean! Kofesioa galdu baina katiximako gazteei fornikazio elearen mila itxuraldaketen aipatzeko eskubidea irabazi zuen: hogeigarren mendeko bana-bestekotasunaren legea.

Jagoitik zabalik zeuden apez-etxe eta biblioteka publikoetan kausitzen ahal ziren berrogei orrialdeko bi liburuxka mamitsuren idazlea zen Joanes. Jakintsuak ausarki frogatzen zuen famaren edukitzeko Euskal Herrian ez duela mentsa bezala fantasia eta funtsik gabeko testu «kometitzen» tematzeak balio! Joanesen lehen liburuak halaz, euskal adiztegi osoaren oinarri eta paradigma gisa kontsideratu Iditegiko aditza zuen aztergai. Bigarren obran aldiz euskal sinesmen zaharreko «zaldikatze eroaren» arketipoa emazteek beren artean kontatzen zituzten ipuinetan zertan finkatzen zen zehazki, ahoan bilorik gabe azaltzen zuen.

Omenaldi iragarriaren aurreko asteetan kazetariek bere obraz galdeak egiten zizkiotenean,

egiazki heineko, planttako eta behar bezalako plaza-gizonaren itxura eskaintzen zuen Joanesek, modestiaz hordi, lan ongi burutuaz satisfos, bizi guztia euskararen alde... eta euskarak alde egiten... pentsa emazu! Sakrifikatua eta gurutzefikatua. Bildutasun une bat otoi. Argazkietan gero, laurogeita bederatzi urteak konplitu berrian begien hondoan zeraman nortasunaren kokinkeria nabaritzen zitzaion. Euskal Herriaren hamalau hegaletarik ohorezko bisitaz hurbiltzen zitzaizkion miresle saldoei ezpaina bihotz eta hitza laino xuxurlatzen zien.

–Deus ez da anaia maiteak, dena bete dut abnegazioz, euskararen faboretan, Jainkoaren izenaren goresteko, lehen bezala orain ere, hala dadila beti ere.

–Amen –ihardesten zieten, ager ez dezakedan Hegoaldeko hiri batetik etorri taldeko partaide harrituek, zenbaitek bederen emazte izanez fisiologikoki anaiak ez zirela erraz erakuts ziezaioketela, baina adindua eta gainera Iparraldekoa zelako, urrikiz bezain paternalismo hutsez, ez zioten oharra zuzendu, batez ere Iditegiko berba koloretsuaren behatzera jinak zirelako.

Aingerua urtu zenean, antropologoak islandiar edo finlandiar saga frankotan agertzen zen «zaldikatze eroaren» kontzeptuari buruzko xehetasunak eskatu zizkion. Erantzuna ez zitzaion luzatu.

–Mattina zenak, goian bego gaixoa, ukan zuen bizi zeno bere dolore karga, bakean delako esperantza dut, Mattina zenak beraz kofesategiko zulotik salatu zidan istorio bitxia da hau!

–Ez al dezu pentsatzen Joanes txit agurgarria, ipuin tradizional horren atzealdean, praktika sexual zahar baten aztarnarik badagoela? Hala xamar ematen du...

–Anaia maitea, sexua eta fornikazioa ez ditzazula zuk deblauki non-nahi sar: bakoitzak bere lekua badu. Mattina emazte prunta, gurbila eta garbia zen. Zoazte bakean. Eta aitaren batean isiltzen zen.

Omenaldi egunean, Joanesen sorterriko plaza arraberrituan, Hegoaldeko antropologo eta filologo taldearekin batera, han zeuden hain zuzen, behiala aipatu Euskal Herriko hamalau kantoietarik, alegrantziarik handienean jin euskaltzale anaia suharrak oro, emakume izanagatik. Eus-

kaltzaindia osoak halaber bidaia egin zuen Bilbotik, gizon bakar, bere kideetan kide sotilenaren goresteko, ekitaldi, mintzaldi eta solasaldi mamitsuen ondotik Joanesi emanen zieten Urrezko Oroitarri Erraldoia eskuetan. Kantonamenduko, departamenduko eta eskualdeko hautetsiak elkarrekin jarri ziren, aperitifa zerbitzatuko zen tokiari ahal bezain gertu. Lekuko kontseilari nagusiak, urdeak bazkaturik aski lasai baitzegoen, departamenduko IV. Batzordeko arduradun nagusiari, belarrira deklaratu zion.

–Xerrami... Euskaldun horiek aditza hurrupatzen duten bitartean, guk ricard honi tinkaldi bat eman diezaiogun arraiki.

–Ideia ona.

Irri konplizeak trukatu zituzten, eta euskaltzaleak Iditegiko aditzaren bilakaera polifazetikoaz eztabaidatzen ari zirela, Bordele-Iruñea autobideak herri isil eta baztertu hau egokiro zeharka lezakeeneko xedearen inguruan bat egin zuten biek, sobera zalapartarik gabe. Txin-txin. Jendarmeen gerizan, alta nehork ez zuen ez gaixoa bahituko, suprefeta gorri-gorri eta hatsantua heltzen ikusi zuten; haren agurtzera lehiatu ziren

eta mihi puntan zeukaten galdearen berri eman zioten.

–Jauna, autobideko lanetan hasiko garenean, poliziak neurri bereziak hartuak izanen dira arauz? Badakizu bestela, estatuaren eta enpresa pribatu zenbaiten artean gordeka pasatu diren bizpahiru akordio goraki salatzen ahal ditugula...

–Bai, bai –ahoskatu zuen arrosa kolore bihurtzear zegoen suprefetak, jarraituz–. Mila eta zortziehun gizonez osatu gorputz militarra deitua dut datorren uztailaren lehenetik aitzina.

–Ongi. Ixo... Omenaldia abiatzen da! –erran zuen biek.

Arrapostua ukanik, bat-batean urde hazleak eta besteak, edangiari bizkarrez zutik, mikroaren aurretik pasatu ziren. Estatuaren ordezkariak urratu zuen hitzen lehen bidea.

–Jo, Joanes bihotzekoa, toute une vie de mer de... par don, en faveur de la langue basque, la confiance, notre avenir est votre passé, compassé, concassé, composé, des cons posés aussi, en sous, tiens, soutien, sous aussi, soucis, sous mis dans la culture, soumis, cours toujours vers l'avenir du passé, nous avons fait peu mais c'est,

mais c’est beau, un coup, c’est beaucoup en deux cents ans, sans s’en faire, et danser et chanter aux pieds des Pyrénnées, Joanes, l’évanescence de votre passé me touche, continuez à re, à re, à reculer en avant: Vive la Langue Basque, Vive la France, Vive la République.

Ordezkariak mintzaldiaren papera plegatu eta galtzetako gibeleko sakelan sartu zuenean txalo zaparrada galanta erdietsi zuen. Halaber haren ondotik hitz egin zuten hautetsi eta kultura arduradun bakoitzak. Laudorio eta elurra bezain zuriak ziren eleek hozturik bezala, populazio opulanta beha zegoen: ohoreak bizian egiazki lanean ari izan gabe jardun zutenentzat zirela marmaratzen zuten.

–Pittun seme hori auher ederra higatu duk segurik!

–Hik errak to! Ez dik ahurretan baba handirik zartarazi...

–Ahalkegarria –zioen batek, aperitifa aitzina zihoala multzoka biltzen ziren jendeen artean irria zeriola desagertzea erdietsiz.

Besteak suprefetaren emaztea bazter batean bakarrik ikusi zuen.

–Zein andere xinplea –erran zuen enpatiaz.

–Ez du deus ikustekorik gure kontseilari nagusiaren basakorteko errautsez estali pulindarekin. Ez ahal zaio norbait laguntzera joanen?

–Zoaz zu.

–Ni? Ene ardi urrinarekin?

Mintzaldien denboran eta hauek bukatzean, politikariak, kultura arduradunak eta estatuaren ordezkariak miretsiak izateko gisan kontuarrean berme zeuden: tripako gantzagatik atorra horailak leher zorian, besoak V moldean airean altxatuz, ezagunak txukunki agurtuz, suprefeta eta hedebeltzen buruak Joanesen omenaldian zirelako paradaz baliatuz, enklavatze edo desenklavatze solas serioagoetara bihurtzen ziren. Pierranoren seme inutilaren soldadugora ez joateko eskaera, primalerba eta vachaletant dirulaguntzen amoinatzea, prozedura baten jauzarazteko galdea, denak hartzen zituzten botere zerbait zeukatela sentitzen zuten populazio opulantaren hautetsiek. Bizkitartean suprefetaren emaztea bere zokoan zegoen Lovecraften liburu bat eskuetan.

Azkenean etorri zen Joanesen hitzaldiaren tenorea. Ordura arte bi erizainek apez zaharkitua oihalezko aterpearen itzalean atxikia zuten. Euskaltzainburuak taula gainera Ohoratua iragarri bezain laster, paralitiko aulkian lau gizon azkarrek garraiatua eta erizainak, perfusioak ahurrean atzetik zetozkiola agertu zen Joanes, euskaltzale suharra, euskara salbatzeagatik hondar hats buhakoraino bizia galduko zuena. Lau gizonek «fermuki» mikroaren parean paratu zuten. Alde orotariko txalo nasaiak hautematen ziren eta Ohoratua totelka hasi zen.

–Erremeftiatfen fituftet. Efkuararen alde arifan nif befi efa funa ferriak eferki fariftatfen nauela. Merfi bifiki. Finef funkitfen nufie...

–Tadios! Joanesen hortz faltsuak non deabru ahantzi dituzue? –orroaz taularatu zen, bat-batean eta lau gizonei oihuka, protokoloaz axolatzen zena.

Anartean Joanes, deus ez bailitzan, bere paralitiko aulkiaren eremuan, eskuak gurutzean, soa hodeietan eta aho zokoa habia, loeria saindu batean ito zen. Erakunde publiko bateko kideak une nahasi hura hautatu zuen Joanesen altzoan,

lauzpabost kilo bederen pizu zuen Urrezko Oroigarri Erraldoiaren pausatzeko. Euskaltzain adinduak dolorezko auhen luzea hegaldarazi zuen.

–Annnaaah.

–Dia? Otto i va pas nu klanpse la o muin? –ohartarazi zuen kezkatua, Joanesen iloba erdaldunduak.

Apezak, barre zelestiar lasaigarri batez ihardetsi zion.

Kurios ugarien erdian, Hegoaldeko jakintsu taldearen harramantza eztiaren kulunkan, suprefetaren emaztea Lovecraften ipuina irakurtzeari zerraiola, ofizialak eta jendeak berotzen ari zirela, nerener nioen, euskalduna izan arren, Euskal Herria ez nuela nehoiz ulertuko: Joanes zena, berrogei orrialdeko bi libururen idazlea gure kultura arduradunek urtero Nobel sarirako proposatzen zuten hautagai paregabea? Adinak zuena mende hurbileko ekin oso bateko parasitismo kulturala ederresten eta zilegitzen? Gutxienez gasna ontzen baleki! Barne kolonialismoa zen eta ez zegoen aterabiderik. Gauero ibiltzen gabiltzanean errepikatzen dugun eran: nahiago hilik!

Gasna puska bat emaguzu.
Har zainak ginen.

Ez-binakoan gauza bakoitza berdintsua da; deus ez dago hartarik kanpo. Edozein lekutan zuhurrak printzipio nagusi horretara heldu izan dira.

Gauak argi zirrintatzen ziren aharrausika. Enetako are gehiago, iratzartzean ez nekiela, non eta zein egunetan bizi nintzen ere. Goizeko ordu txikietan, bidean gurutzatuak, susmatuak eta beldurrez ekidinak oro ingurutxo basatian zerabilzkidan gogoan. Bakarretan, punpean ateratzen nintzen ohetik, ustez lanera joatekoa nintzela; baina ez, igandea zen eta ohituraz igandeetan, oraindik, ez genuen produkzioaren segurtatzeko premiarik. Oraindik diot, geroan ez baitakigu nola biribilkatzen ahal diren gauzak. Behialako Marcel gaixoaren antzera, ohe gaietan nire modelo lehiatua, mihiseen artean egoten nintzen, zinez belhitu bitartean ametsetan, lurrean zehar ibiliaren erruz dastatu nituen «esnatze» anitzak zerrendatzen. Ardurenean, zainetan dabilkigun iratzartzeko hormona eraginkorrari konfiantza osoa eskaintzen nion.

Alemaniako zientifiko batzuek muinean iratzar ordua programa zitekeela ongi frogatu zuten. Jaiki baino oren bat lehenago zuzen isurtzen zen adrenokortikotropina famatua. Jakintsuen arabera iratzartzeak sortzen zuen estresa ezabatzea eta lotarik kontzientziarako zubiaren erraztea zen hormona honen helburua. Hormona balios horri esker, oskorri gogorrenetan, fisikoki gutxienez, egokitzen zaigun tokian kausitzen gara, begiak idor eta aho zokoak lehor. Kasu horietan zorigaitzez, kafeak ez ditzake lo eskasaren gaitzak ezti: pitxertara bat hustu arren, iratzarria ez denak lotan jarraitzen du. Hau izan da, mundua mundu denetik, gauak bilkuretan higatzen dituztenen legea. Eta, non ez den legeen haustea herioaz sariztatzen, zoritxarreko Antigona hark irakatsi zigun eran, legeak aldaezinak dira.

Goiz hartan in extremis iratzarri nintzenean, bezperako macadam drive aspergarrian gogoan ibili pentsamenduez oroitu nintzen. Denboraren iragateko, bidean frankotan beribila landerrean ezartzeraino, zenbaitek ametsa eta besteek delirioa deitzen zuten buru barneko elementuen putzuko ateak irekitzera uzten nituen. Orduak bihi-

katzea salbu, ez nuen ezer konpontzen edo egoera kordokatsurik askatzen. Ez zen neure helburua ere. Halatan noiztenka Otsoekin Dantzan harrapatzen nuela iruditzen zitzaidan eta Norma Jeanekin solasean gastatzen nituen kilometroak. Amoros baldin banintzan, maitasunaren arazoa aurki eta binperretik aztertzen nuen. Gaua hartan, negar hegian *No Surrender* kantua entzutean, bide ertzetan sahatsak lili ikusi nituela gogoratzen nintzen soilik. Eta aski zen.

Jaikitzerakoan biologiaren kezkak gatibatzen ninduen eiki. Adibidez atzo adiskideak, bere sukaldean kuskusa jaten ari ginela kontatu zidana neukan zirurikan, goiti eta beheiti, ikuz baina zuri ez daitekeen bele baten antzera. Agian irri gutizia hazten zidatelako adiskidearen hitzak kolkoan iltzatuak neramazkien. Alabaina, kuskusa biziki gozoa zen. Kolega koziner bikaina zela onets nezakeen. Lagungarri zetorkigun ardoak ez zigun kalterik egin, are gutxiago auhariaren bururatzeko jazarri zitzaigun etxe gasna estimatuak. Erranen duzu irakurle, kuskusa ez dela aise ezkontzen ardi gasnarekin! Argiki ihardetsiko dizut, noizbait Kabilia eta Euskal Herri hau bat zi-

rela, plaka tektonikoak hautsi eta elkarretarik bereizi aurretik hain zuzen. Orduan? Autotektonikatik gintonikara urrats bat baizik ez eta, ederki afaldu genuen, lagunaren sukaldetik trinkilitrankala edariek eragin burtzoroarekin atera baldin banintzen ere. Gerta daiteke, ez? Hordiaren xendetarik ibili ez denak bota biezat sala-harria. Nor da ausartuko?

Adiskideak jasan menturaldiaren lerrootara ekartzera atrebituko naiz hondarrean. Aditzak arraposki hautatzen zituela, kuskuserako behar zuen ardikiaren erosten izan zelarik agitutakoa azaltzearren, eleak emeki ahoskatzen zizkidan. Supermerkatuan zebilen airean beraz, janari zerrendaren arabera, apalak husten eta mentalki bere karriotaren gastu orokorrak kalkulatzen. Gonbidatzen ninduen, baina ez zuen sobera sos xahutu nahi. Ulertzekoa zen naski, aitzineko egunetan jakinarazia niolako, baraualdian nengoenez ardi gasna puska batez lagunduriko antzara-gibel xerra batez asetzen nintzela. Hala ere, indar baten egitea deliberatu eta antzarakiaren ordez, kuskusa eskaini zidan.

Haragi odoltsuz hanpatu horma gailu ireki hotzetara heldu zen, eta han, hogei libera edo hiru euro doientzat, bat hazta, bestea hunki, paper uher mehez estali lau ardiki zatiko kaxa baten eskuratzeko aukera eduki zuen. Merke eta on. Kaxaren atzealdeari begiratu eta zitzia Zeelanda Berriko zelaietarik zetorrela irakurri zuen. Lau haizeetara behatu zuen ikusteko ardiki ekoizle ezagunik inguruetan bazenez. Zorionez nehor ez. Eta kaxa orgaren zolaren zolan pausatu zuen, baratzeko eta sagardietako emaitza koloretsuen azpian plantan gorderik. Adiskidearen ahaideak ELB sindikatuko kideak ziren eta lekuan lekuko mozkinen partez, Zeelanda Berriko ardikia erosten atzematen baldin bazuten, bere barrabaskeriaren jakinean egongo ziren hiru egun baino lehenago Barnealdea deitzen zen eremuko lau kantonamenduetako jendeak. Egiaz beti norbait bazen kukuxkan. Deabrua zen. Aldion inor ez zegoen.

Lasaitu zenean, lurralde australak itxuratzen zituela, besoa luza eta bil ari zen, jogurtak bost, ardi gasna, ekaazu Onetik otoi, badakizu naka bakarraz euskalduntzen gaituen hartarik, mila

esker, bi pinta esne, AOC labela erdietsi duen Ezpeletako piper zakuño bat, garbi errautsa, tanpax pakete bat, ardoa, zenbat, zintzurra patar du Xek, hobe hiru botilaren hartzea, Sidi Brahimeko maxeletako mahastietarik bi eta Irulegikotik bat. Denboraz murritz eta zeozer ahanztearen fobia ariman iltzatua, burutazio nekeetan zebilen orduan adiskidea, salbatua hargatik.

–X ez da difizila –kalkulatzen zuen–, eskaintzen diodana janen du, bestela etxean gera dadila, erantsiz pagatzeko unera abiatzen zela.

Kontatu zidanez, bat-batean, ordaintokira huxtuka zihoala, Pattin eta Remi, euskal hiru koloreetan dekoratu erakuts mahaiaren gibelean, beren etxeko ardien ekoizpenak promozionatzen begimendu zituen. Ezin pasa bazterretik, arrotz eta ez ikusiarena eginez. Pattinek ez zuen adiskidea huts egin.

–Zer ari xira hor?

–Komixioneka –aitortu zion–, egin behar baitira noizbehinka, gosez ez hiltzeko. Zernahi saltzen duzue.

–Etxu ardikirik nahi araiz?

–Zomana uzie kiloa –eskatu zien interesa pizten balitzaio bezala.

–Berrogeita hamar libera. Hautua uxu gero. Berrogeita hemeretzitan uzten dautxut. Xu baitxira!

–A mertzi.

Prezioa eta Pattinek libera bateko apaltzea oparitzen ziola entzutean, kuskus pikorrak gargailan amultsuki urtaraziz afaltzen ari ginela adiskideak zintzurra korapilatu zitzaiola aitortu zidan gero. Ahoa ireki zuen ironia eta gaiztakeria bilduz.

–Pattin anitzetan behatu dut, edanaren kontura beharbada, dena oldar eta oilar, duela hogei urte nornahiri oihukatzen «Euskal Herria ez da salgai!» eta gaur egun Euskal Herria puskaz puska ahalkerik gabe saltzen duela mirets dezaket. Ironiaren zortea ala zortearen ironia? Pentsa, udako hilabeteetan aita eta ama ezinduak zaharretxean sakatzen ditu, hauen gelak turistei alokatzearren.

–Bizi behar du gizonak, ez? –artekatu nion, izpirituz zabal, oroituz aitarekin axuri merkatura ostiraletan joatean, prezio urriegiarengatik sal-

gai ez zitezkeen axuriak etxera ekartzen genituela, marrakari eta usaintsu–. Euskaldunak horrelakoak gara, neska –segitu nuen–, hastapenean oro txanpa eta garrasi, nehor so ez dagoela ustez zor zaiguna sakelaratzen dugula ondotik, boterea eta larderiaren jabe bukatzeko. Eta sekula ez aski.

–O?

Pattinen erakuts mahaiaren eta ordainlekuaren arteko eremu hertsian, fama eta ohorea salbatzeagatik, adiskideak ez zuen jada eskapatzerik. Tratuan hasi zen.

–Bi kilo emazkidatxu orduan!

–Baina eztixiu kiloka saltzen, xungo osoka baizik!

–Xungo osoka?

–Ba, konjelatzen ahal duxu, biziki ontsa egonen zautxu –azaldurik Pattinek xungoa paperean plegatu eta berrehun libera igurikatzen zituela iragarri zion.

Supermerkatu honetan bertan, urrunetik etorria izan arren, kalitate berdinekoa menturaz, ardikia anitzez merkeago kausitu zuela ez zien bi ezagunei zer gerta ere salatu. Baserrietako xun-

goa gotorra zen eta adiskideak, bazterren ez sutzeko, laborarienganako elkartasunez bortxaz bezala erosi zuen. Ezpainak daldaraka mugitzen zituen.

–Ze ase ederra eginen dudan!

–Ez zautxu dolutuko...

Pattin eta Remik arraiki, eskertu eta hurrengo klientera pasa aitzin, lau kiloko xungoa karriotean pausatu zioten. Adiskidea gaizki omen zen: zinez behar ez zuen haragi meta batekin ordaintzera abian, pentsatu baino gastu gehiago obratzen ene errezibitzeko, jakinez ez nuela ardikia maite eta lo eskasez etorriko nintzaiola ez hain gose. Pagatzeko unean, begiak zuloetarik punpaz, Kaietenia ostatuak eman moltsa berdean lehor aski ez izanez, Visa txartela atera zuen. Haserrez. Hargatik, auharia bukatzean, irri baketsuaz murmuratu zidan.

–Orain hozkailuan hogei urteren ardikia badinat.

–Badakin ardikia ez dudala patitzen ahal? Norbait atzeman beharko dun klikatzen laguntzeko.

–Ene adinean?

–Eta bai, helburu horrekin, zergatik ez? Arditik ardia...

Printzipioa ez da goiz edo berant etsia: une bat milaka urteren heinekoa izan daiteke. Ez hor, ez han, ez hemen, alta denetan gure begien aurrean.

Uda etorri zen eta ez nintzen ohartu. Bilkuretara joateko bidaiak egun argiz egiten nituen, ekia begietan eta ertzeko belar usain gatibatzaileak sudur mazeletan kilikari. Etxerakoan aldiz, bihotza erdiraturik egia erran, zeru sabaian dilindan bezala izar dirdiratsuak zenbatu eta autoaren aitzinean, gaueko gidari seguru, ilargia begizta nezakeen. Ilunpean noiztenka azkonar sotilek edo kahaka plazidoek abiadura hausten zidaten. Egun argitan, gauerdiko zamaren gerizatik higuin ezin, hainbat urtez «kargaturik» lehiatzen zen txirrindulari profesionalaren antzera nenbilen: sentsazio berriek iraupen fisikoaren ortzimugak urruntzeko partez, murrizten zizkidaten, murriztasun trinkoa gogoko nuela onartzeraino.

Barda arratsean, zohardi zela, herrialde mutuan barna ibiltzean, ez nuen beste pentsurik: astun eta patetikoki maitemindua nintzela doi-

doia konturatzen nintzen, ez argi zahagiaz, are gutxiago artizar pottoloaz, sekula ere behatuko ez ninduen izaki batez; bazautzia zuri? Megakataklismoa! Behin sumatu irri marra, ahotsaren ñabardura, bularren kulunka zainarta edo ipurdi borobilen balantza xarmangarria dena biribilketa nardagarrian kasko zokoan geratzen ahal ziren betirako inprimatuak. Halatan, memoriak SOS deiak bidaltzen zizkidan, begi-dasta bakoitza azken aukerakoa bailitzan. Eiki, bizia une orotan, hondar hautuan trenkatzen zen, hauta eremua gero eta hertsiago izanagatik.

Bilkura nahasi haren ondotik, enekin solasean egon zen kideari abantxu aitortu nion, sentitzen nuen amodio behialako oxka patetikoaren heinak gohainez itoa uzten ninduela, adiskideetan adiskideenarekin nitaz mintzatzeak disgustatzen ninduen arren. Alta, nonbait neronen urguilu propio erraldoia kolpatzen eta urratzen zidan maitasun aire gaiztoa aipatu beharko nion. Ez nuen dudarik gainera, kideak irekitasun osoz entzunen ninduela eta goiz zurpailetan hatsanka iratzartzen nintzenean, ezpata zilarraren pare kolkoa larranzten zidan Norbait Elekatzekoa Dut

Egun perpausaren funtsa beregana zezakeela. Alde batetik. Bestetik, pairatzen nuen esperantzarik gabeko desira honen ez agertzera deitzen ninduen Heziketak, maniako edo sordeis, frustratu sexual gisa kontsideratua izateko gutizia izpirik ez neukalako.

Biritxi astrologikoak ginen gau mineko solaskidearen aurpegiaz ontsa gogoratzen nintzen: argizeituak amultsutasuna oparitzen zion eta bihotza arintzearren, prest nintzen naski, bertan debalde bezain arriskurik gabeko, dena ere on, transfer sentimental baten bideratzeko. Ordea, energia sobera kostatuko zitzaidala berretsirik, autoan kokatu nintzen etxerantz. Eta, egiteko gelditzen zitzaizkidan laurogei kilometro luzeetan zehar, Eskualde Hizkuntzak diren moldean, neure amodiozko dolore ekonomikoki inutilarekin tematu nintzen. Ardura, biziak berak zer balio zuen kezkatzen nintzen, gaueko zauri anbulanteak suizidio etengabe baten urrats anitzak zirela gogoan eramanez.

Hiri isileko karriketan nenbilela, behin hegazkinez egin bidaia aspergarri batean gurutzatu anderearen soaren sakonak burua panpalahara-

tu zidan. Nehor ez zen agertzen, garapenaren ispilutzat jotzen zuten hirian eta hortik gauez pasatzen nintzen aldi oroz, iruditzen zitzaidan laugarren dimentsioan hazi izakiak jaukiko zitzaizkidala: klona multizefaloak, arrain transgeniko oihukariak, genetikoki aldatu artaburu txapeldunak. Haatik, agerinde apokaliptikoen partez, emazte ezezagunaren begirada kasik ahantziaren barnetasunak inguruaren lo sapa amnesiakoa kilikatu zuen. Ninika pare harekiko hurbiltasuna atzokoa balitz bezalakoa zela baimendu nuen: nondik jesarri zitzaizkidan bi begi ezti haiek? Zertara zetozkidan bulkatzen ninduen antsiaren harrotzera? Jainkoaren so biblikoa zena, non-nahi eta beti gure ekintzen jujatzeko eta gaztigatzeko zabaldua? Gorputzeko punpa bere kaiolan banbaka nabaritzen nuen, eta gaua eskertzen halaber, ahalkea eta egarria sor zitzakeen lotariko atseginaren uhinak gordetzen zizkidalako.

Orduan, lainoen gaineko aldean, ilargia baino askoz gorago, elkarren saihetsean ibili ginen. *Long Island Blues* irakurtzen ari nintzela lotsa imilitzik gabe, besoa hunki zidan.

–So egizu, argizeitua daukagu azpian.

–Baia? Ez nintzen ohartua –salatu nion, aurkezpenez zuhur norbait enekin horrela deblauki mintzatzeaz harritua.

Errauts okre zein berdailezko izarbela eriz erakusten zidan berme, bakarretan begietara behatzen ninduela, etsaigo aierurik ez zeukan irri batez. Liburua abandonatu nuen beraz, emazteak erakusten zidanaz arraposki jabetzeko. Hastapenean politeziaz, eta giroaren samurtasunak erabat bildurik gero.

Bilkuratik etxera heldu nintzen gau hartan, akidura ziztarik ez nuen sentitzen; alderantziz, sekula ez bezala gose nengoen. Gasna bila hozkailua miazkatu nuen, eta ardi esnez ekoitzi hiruki lainoa han zegoen noski, ene aiduru. Alexandro Handiaren ekialdeko armadaren erdia bederen aseko zituzkeen xerrak moztu nituen. Mahai izkinan jarri nintzen, Xiberoko Botzako iluneko egitarau musikala entzuten, Alaitz eta Maiderren azken diskoa buklean eta osoan eskaintzen zuten, berrogeita hamargarren kapituluan ireki Axularren predikuen bilduma aurrean, paradisuko bidea infernukoa baino errazagoa zela irakas-

ten zigun orrialdeetan justuki, hegazkineko emaztearen aspaldiko oroitzak buruko alorrak bustitzen zizkidala.

Hegazkinetik jaistear ginela, andereak leihotik metropoliko bide nagusiak autoz hanpatuak susmatzen zituela erran zidan, eta agian neke zenbait edukiko zuela ahalik goizen etxeratzeko, partikulazki taxiz. Nik ere taxia hartzekoa nuen, Auhen Guztien Iturburu fama emana nion geltokira garaiz iristeko.

–Ez nuke trena huts egin behar!

–Ez zaizu horrelakorik gertatuko, lasai.

–Agur beraz –xuxurlatuz eskua eman zidan, eta uste dut une hartan, musu banaren trukatzea egokiago izanen zela.

Zakuak hartzen, *Nouvel Obs* besapean plegatzen eta biloak orraztatzen segitu nuen, emozioaren aztaparrek lardaskatua.

Aireportuan ondotik, gure soak, gure irriak, gure kopeta keinuak bizpahirutan nahasi ziren. Taxien beha lerroetan nengoela, zeruari dei egin nion: ilargia orain gainean geneukan, erregina eta ilunpearen jabe. Hotel merkeetako seinaleak fluor koloretan pitz eta hilka ari ziren. Jendearen

isiltasun urrunak marmara elkorra osatzen zuen eta taxien tutek zein bezeroen manuek dorpea zulatzen zuten.

–Du Bellay plazara, otoi!

–Italiako atean utz nazazu.

–Bagnoleteko metrora!

–Nazioarteko geltokirantz –erran nuen ene aldian, txinatarra zen taxiaren gidariari.

Taxien arteko irrati juntetan asiar hizkuntzak hautematen nituen, periferikoan abiadura bizian zebiltzan autoen argiek betazal apalduak zurpail bilakarazten zizkidatela. Txoferrak, ahalik lasterren heltzeko zegizkien indarrak miresten nituen: eskuin, ezker, zuzen, berriz eskuin, zuzen... Joko bideo batean nengoela iruditzen zitzaidan: Lara Croft gaixoa baino lekuko egoera hobean bistan dena.

Geltokian aurkitu nintzenean, emaztearen soan berriz landatu nituen pentsamenduak: ez nintzen ezer, euskalduna are gutxiago, nortasun ezpalak ezabatzen ziren bat-batean eta huts handi horretan aldi berean dena nintzen, iragana eta geroa, azala eta mamia, haragia eta hezurrak, gasna eta azken egoitzako har malatsak.

Zergatik behar nuen derrigorrez, besteetarik bortxaz eta indarrez bereizten ninduen identitate finko partikularista bat, hizkuntza ezpainetan neukan ber? Aditzak ez zuen mugarik: begirada hain samurra zeukan emazte hari adibidez nolaz exigituko nion pasaportea ? Nor nintzen, neure izatearen izenean, ene gutizietara munduaren plegatzea eskatzeko? Geltoki honetan, etxeko sukaldean gasna naka-nakatzen edo gaueko ibilaldietan masai gudarien alaba galduen antzekoa nintzen. Bakardade basamortu bat.

Handik laster ene haurkeria minberatsuak deitoratzen nituen.

Laguntza.

Gauzen ahanztura osoan, handiena txikienaren parekoa da, txikiena handienaren antzekoa, begiak mugarik ikusten ez duenean.

Iluntzen zihoan bitartean, norbaitekin mintzatu behar nuela errepikatzen niolarik, hil edo bizikoa zela erantsiz, biltzarrera eraman ninduen kideak irriz ihardesten zidan. Ulertu nitzakeen arren, ez nituen haren algarak jasaten ahal, sentitzen zuen pozaren eta neure dolore desesperatuaren artean, distantzia hedatzen zuelako. Lagunaren behako malgua gurutzatzen nuen baina ez zidan sosegurik ekartzen: ez nuen gehiago jostatzeko gogorik, are gutxiago besteak neurekin jostatzera uzteko kemenik. Azken boladan, ate frankotan joka ibili nintzen, eta nehork ez ninduen, zinez eta zintzoki bere sukaldean sartzera gonbidatu. Erabat galdua nintzela iruditzen zitzaidan.

Biharamunean, lanean, kafearen orduan, lankideak, bezperako atentatu odoltsuaren argazkia zekarren *Sud Ouest* egunkariaren orrialdea, euskaldun soil izanez atentatuaren errudun ba-

nintz bezala agerian atxikitzen zuela eta ene buruaren zuritzeko astirik zilegitzen ez zidala, urte anitz zuela berak egarri zain beheraldia aipatu zidan, jori beltza hurrupatuz eta hitzak astiro hautatuz.

–Temesta irensten nuen.

–A bon? Zuk?

–Bai. Parisen nengoela behin eta gero berriz dibortziatzean gontzetarik jauki nintzen.

–Gogorra zen beraz –ondorioztatu nion etsirik, zorionez ez bata ez bestea ezagutzen ez nituela gogoan eroanez.

Eskualdeko Egunkari Errepublikar Handienaren hostoetan, horoskopoa bilatzen nuela, lankidea bere kalbarioaren azaltzen entzuten nuen, oilo koloka baten gisa, ezpainak txukunki plegatuz.

–Eskerrak hiru hilabeteren buruan handik itzultzea lortu nuela. Ezkondua nintzen jadanik. Senarra edateari eman zen anartean. Haurrarekin bakarrik gelditzen nintzen apartamentuan, ene aita eta amen esku ukaldia ukan ez banu ez dakit non nintzakeen gaur egun. Hala ere, noizbehinka, temesta pastilla bat zintzurreratzen dut

oraino zainen lasaitzeko, senargaiaren aiduru nagoela adibidez.

Ez nion komentario zehatzik egin. Egunkariaren lehen palman hedatzen zen oihal zuriz estali gorpuaren itxurari hondar so mutua botaz mahaitik altxatu zen. Emazte prestuaren antzera kafe kikarak garbitu zituen. Mirailaren aitzinean, mateletan errauts pixka bat pausatu zuen, urguilu-ontzi eta satisfos.

–Lanetik landa –iragartzen zidan–, goiza lisatzen pasatuko dut, teilatupean.

–Ez dut sinesten emazte baten betekizun bakarra lisatzea eta jateko prestatzea denik –marmaratu nuen enekiko, lankidea elkor geratuko zelako esperantzan.

Hauteman ninduen zorigaitzez eta larderiaz bete ahotsaz erran:

–Amatasunaren bidearen ongi konplitzea da ene biziko helburu nagusia! Besterik ez! Zuk nahi duzuna egiten duzu! Eiki, goizetan daramazkizun atorra zimurtuak ikusiz, ez duzu lisaburdina anitz higatzen!

Emaztea gaiztotu zitzaidan. Aztalak zoladuran klaskaraziz, atea berdin, nihaur utzi ninduen,

irri ahalkor zozoa ezpainetan dilindan eta *Sud Ouest* ahurrean. Behialako oilategiaren ordezko isiltasun pisua barreiatu zen gure kafe-gelan. Inarrosia geratu nintzen, ene buruari galdezka ea berriro ere isiltasunaren ildoaren hautatzea ez nuenez hobe izanez. Madarikatzen nintzen (!): laneko gatazka arin horrek, salatzen eta jasaten nuen bazterketaren hobenduna neroni nintzela argiki frogatzen zidan. Ustekeria hori askotan gogoaren irazkitik iragaten nuen, baina gogo hazkatzeak ez zidan sendatzerik bideratzen. Larru arraseko ihardukiak nola ekidin asmatzen hasi nintzen: erabat atipikoa eta apatikoa, beti sinpatikoa egonez noski, sozietatean agertzearren zergatik ez nuen nik ere temesta hartuko? Balizko aterabidea baneukan. Hondarrean, dopatuak zebiltzan guztiak konprenitzen nituen. Gauza on bat bederen!

Porruen antzera herrokan, denak hausten, pastilla urdin-zuri-gorriz edo konbikzioen arabera, berde-zuri-gorriz, gangarra kilikatzeraino asetzen, begitartetik hantzen eta beren depresioaz etengabe mintzatzen jarraitzen nituen, zenbait herioaren tentaziotik nahikoa hurbil mur-

giltzen zirela anartean. Etxeko, bikoteko, haurrekiko eta laneko arazoak zirela medio plomuak jauzten zitzaizkien. Batez ere emazteei. Alabaina gehienetan, ez errateko beti, emazteek zuten Gizartearen zama larruzalea patitzen, pairatzen eta haragian txertatua eramaten. Apalaldien erroak ziotenez, aita, senarra eta semearekiko lotura nahasiak ziren: senarrek demagun, beren emazteak neska lirainagoentzat abandonatzen zituzten, edo amodioaren xantaia egiten zieten higaduraren mugetaraino, desira sekula egiaztatu gabe, edo oraino desira zen bere herio naturalaz hiltzen. Harremanetan zalantza bortitzaren landerrak bazterrak estaltzen zituenean, agerpenez zeken ez ziren emazte haien nortasuna zein integritate psikologikoa kolpatua suertatzen zen, funtsean. Halaz, zintzurreraino temestaz emokaturik, emazteek orduak lisatzen eta bazkari apailatzen nahiz bastatzen, azpiltzen, josten, mahai oihal brodatzen edo trikotatzen pasatzen zituzten.

Nonbait irakurri nuen, konpetizio konpetenteek, kitzika moralek eta erdeinuzko apaleste zerrendek kudeatu mundu honetan, egunerokota-

sun dorpetik ihes egiteko molderik egokiena eta seguruena depresioa zela. Depresioa haustura bat zen, bere latzean bake une eskergarria, agian maitatuak sentitzen ginen momentu bakarra. Alabaina, nork zaitu behatzen auhenez zinpurtzen ez zarenean? Non dira adiskideak orduan? Medikuak bost minutuz artatzen zaitu eta negar zorian, dolorezko automataren antzera karrikan aurkitzen zara, aspirinak erostea agintzen dizun ordenantza bati zatxezkiola. Halako ingurumen latzean, lexomil, prozac, paxil, lysanxia eta temesta bezalako erremedioak baliagarri suertatzen ziren. Modan zegoen hitza erabiltzearren: ekidinezin. Ekai kimiko horiek fortuna txarraren aurrean, bihotz onezia eskaintzera bideratzen gintuzten eta hobe denentzat azkenean, ez? Imajina ezazu istant batez, bezperan bilkuran izanik, biharamunean lanera joatean, sintesimolekula soilen botereaz kolegek irri zabala dutela ezpainetan, ez dizutela ohiko arduragabekeriarik leporatzen, gozoki mintzo zaizkizula, halaber behialako biltzarkideek, umore gaitza zurkaitz, larderia, erasia eta gutxiestea ahanzten dutela, behialako ekai merkeak neuronak oparo

balakatzen eta kilikatzen dizkielako. Besteak bezain «kargatua» zabiltzalako zu ere berdin heltzen zara lanera, karkailaka bistan da. Inhibizio mota ugarien aurkako borroka hasia da eta naski ez da bertan bururatuko.

Jende anitzek eskas genituen adrenalina, endomorfina eta serotonina pastillak farmazietan saltzen zirelakoa ona zen. Herenegungo gure arbasoek Trinitate Saindua belauniko bezala, guk hitz eman paradisu berrien jainkoak adora genitzakeen, zorion artifizialen hagun zilarrak begietarik isurtzen zaizkion aingeru aurpegia agertuz, Zein Ongi Naizen mantra lanzinanteak ahots monotonoz errepikatu bitartean. Thomas Morek marraztu utopia hedatzen ari zitzaigun lurrean, gaurko mendeko pornografia alor bakar gisa har genezakeen besteen eta guhauren pentsamendu bakunak ateak oro giltzatuz, biluztasuna, ukamena, isiltasuna eta bortxa poliziala denetan barreiatuz. Emeki-emeki jendearen izaera aldatuko zen, eta robotnik bizidunak bihurtzeko gai izanen ginen. Ez zena bada hori gero ederra?

Farmazietan, akidura erraldoiaren eta demagun amodiozko penen jabaltzeko patxak salduko

balira, falangaz klikatuagatik gasna jadanik ez zaidalako aski erosleetan lehena nintzatekeela aitortuko dizut irakurle. Haurrik ez ukateko bezala, pilula bat balitz pentsatzen denaren idaztearen edo ahoskatzearen trabatzeko, diot bertan, ekarri! Edozein arrisku materialen moduan, Bizitzeko arriskua ezeztatzekoa dela sinesten dut engoitik: goazen bada guztiak beterik eta isilik. Hargatik, gehitu behar dut, gurutzatzen ditudan lagun batzuek ez dutela ene ikusmoldea, aurrerakoia ala desesperatua, onartzen, jendearen oreka bio-psikologikoa ez dela kimika bidez nehola ere kanbiatu behar hitza oihuz mozten didatela. Ez naiz haiekin arras ados: ez dakit zein den zaintzekoa den oreka famatu hura. Ageri da bestalde lagun horiek ez dutela bihotzeko daldara minberarik sekula sufritzen!

Kirolarien pare, kabalak guretzat ereduak izan daitezke; nago zenbaitetan, abereak ez direnez gure adineko zaharrak baino medikalizatuagoak. Baso bat etxeko ardo eta aspirina batez artatzen garenean, ardiak agalaxia, ikara, scrapiea, harrak buruan edo errapeetako mina dutenean, bospasei txerto ezti, bitaminak eta poma-

dak erdiesten dituzte, bat ere potretik eta marrakarik gabe. Gure Herriko Ardien ongi izate maila berdinera heltzea dut nik lehia. Behiak eta arto zangoak ez ditut aipatzen, gaiz kanpo dauzkadalako. Badakit ordea, goizetan bilkuratik etxerakoan, gasna xerra finetan irensten dudanean, esnean urtuak dabiltzan molekula kimiko aztarna haiek bizibidea nolabait errazten didatela. Ondorioz, jakin badakit berriz aditza ardiek haina gozatzen bagenu, ez genukeela menturaz zartagailu beharrik!

Agian horretan datza gorago aipatu amets espiritualaren oinarria, eta ez astekari zenbaitetan azaltzen den fede kristauaren birsustatze fenomeno faltsuan. Epe ahalik laburrenean antigaiaren gerizatzeko zulo beltz sakona jazarri beharrik gabe kolpeak hartzen dituen izate uherra, oinazea saihestuz, mina baztertuz, prokreatzea eta produkzioa segurtatzeko tresna kontzientea bihurtzea liteke xedea, arrangura eta kezka existentzialak ezabatuz. Antihidrogeno multzoak bilduz geroztik, uneon Burbankeko ikerlariak bilakaera sail horren aztertzen ari dira. Partikula mononuklear berezien lasterra ehun-biderkatzeko

sortuak izan diren hodien esperientzien ondorioak berantetsiak ditut nik behintzat.

Bizkitartean, lankide depresibo eta lisatzaileen auhenak entzunez, gasnaz asetzeko ahalmena geratzen zait, medikuak zain jabalgarri multikoloredunak proposatuko dizkidan arratsaldearen aiduru. Baina ez, ez natzaio lisatzearen terapiari makurtuko, nehoiz, ez horixe! Lisatzearena trauma bat da enetako: denbora eskasez amak ez zizkigun arropak plantxatzen, eta nik amaren plegua hartua, behin bere atorren lisatzea manatu zidan gizon bat ezagutu nuen arte. Metak eta metak amodioz amironatu nizkion. Elkar bizitzako zazpi hilabeteren buruan abandonatu ninduen, ez ninduela gehiago desiratzen argudiatuz. Beharbada pleguak ez ziren zuzenak! Ordutik erabaki nuen gai horretan terrorista bat bezain intrantsigentea nintzatekeela. Diraut.

Iraultzailea naiz.

Gasnaxnikova eskuan.

Izatea ezizatea da, ezizatea izatea. Hori ulertzen ez duzuno, egoera jasanezina geldituko zaizu.

Biga bostetan aldi hartan ere Gasna Bidea ebaki nuen. Arratsalde osoan, minbera eta zinkurinka ibilia nintzen, lagun apurrak eta lankideak aspertzen. Bizia neke zitzaidan; eguzkitsuak eta ardi marrakaz hornituak izanagatik bazterrak zurpail eta hits kausitzen nituen. Pentze nasaietarik altxatzen zen usainak gatibatzen ninduen, ez errateko paralisiatzen. Bukolikotasuna zebilkidan bete-betean eta ez nekien zein errabiak erretzen zizkidan muinak. Bilkura-denboran airean egon nintzen, leihotik begira eta ez nuen han aipatuez ezer gogoratzen.

Autobidean sartzean, bitxiki, behin erakustetxe batean kuriositatez hazkaokatu mugarri elektronikoetako dokumentu laburrak jin zitzaizkidan buru zokoaren kilikatzera: ardi saldo galantaren sintesi-potretak ikusten ziren han, malkarretan gora elurraren auzuneko alhagietara igotzen, mantso-mantso, artzainak atzetik malin,

zakur labrita ondoan punpaka, zeruan hegalak zabalik zirurika urrian zebiltzan ilhainen kidegoan. Egun iheslarien itzalak haztatzean, negarra jaitsi zitzaidan matelan behera. Gero, gasna nola ontzen zen irakatsiz, beltzez beztitu emazte zahar gotorrak hitz egin zuen. Esne jadanik bilduan eskuak deblauki sartuz, amoroski eta xeheki, andere ezezagunak azalpenak eskaintzen zizkidan: segur nintzen orduan gure tribukoa zela eta sintesi-marrazkiak pantailan lasterregi lerratzen zirelako ez nuen haren soaren ebastea lortu.

Hurrengo filmean Hartza segitu nuen, sasiz sasi, nihauren pare, udako ezti bila: alde orotara barranda zebilen, astun eta aldi berean zalu, harrigarri mehatxatu bezain indartsua. Zulo baten aitzinean gelditu zen eta piztiaren urrina sentitu orduko gau enarak furu-furuka hegaldatu ziren. Hunkitua nintzen, otsoa dantzan gurutzatzean bezainbat. Abereak artaldeetan nolako sarraskiak bideratzen zituen agertzen zuen ahots anonimo batek, Esloveniatik ekarrarazi hartzekiko artzainen eta laborarien egiazko kexua azpimarratuz. Botzak gehitzen zuen Ortzaiz ibarreko

biztanle ausart zenbait ibili zirela New Yorken hartza lepotik estekan erakutsiz eta argazki beilegiko hartz haren begi tristeek jo ninduten tanpez, ezin mugatuzko antsia nigan hedatuz. Tximista bakarrean, Historiako liburuetan zabaltzen zen dagerrotipoaz oroitu nintzen: hartzaren antzera, burdinez lotuak eta itsasoa zeharkatzean franko gosez hiltzen zirela, ehun bat kanak Parisera garraiatu zituzten, iragan mende bukaerako Erakusketa Unibertsalaren karietara. Karembeuren birraitonak bidaia egin zuen. Baina bego.

Hartzaren so zilarrak labana ukaldi odoltsuaz urratu eta aste gutxi zuela, lagun batekin eduki nuen solasaren oihartzunak oparitu zizkidan: ohizkoan bezala pleini nintzen, zintzurra korapilo eta betazalak trinko, supermerkatuko kaxako langileak ordainketak zirauen denbora osoan ez zidala so egiten, jende ez banintza; noranahi biribilkatzen zituen ninikak, karta luzatzen nionean halaber aitzineko zein gibeleko bezeroekin mintzo zen barra-barra. Lagun hari betazalen gerizatik isuri ukamenak kordokatzen ninduela aitortu nion.

–Ez dut ulertzen!

–Beharbada ez zatzaizkio interesatzen.

–Ez diot hainbeste ere eskatzen, badakizu –segitu nuen, duda berriaz zarpailtzen nindoala.

Tu kiratsa irentsiz, aho sabaia bat-batean lehor antzeman nezakeen. Aspaldidanik sentitzen nuen interes izpirik ez neukala, ez nuen bilatzen ere: dirurik ez, osperik ez, edertasunik ez, etxerik ez, larderiarik ez, herri honetan balioski susta nezakeen ahaidegorik ez, ezer ez. Kaxako andreak soa ezeztatzen zidan oroz, ikustea bera debalde zen ingurumen hutsa nintzen.

Eskolan nintzeneko garaiak kolkoaren mintzera jin zitzaizkidan; irakasleak, ekimen berezi bati hasiera ematen nion uneetan, errepikatzen zidan gaiztoki:

–Eta zuk beti zure interesantearena egin behar duzu! Eskola lehia-kideak gero nitaz burlatzen ziren arraiki eta isiltzen nintzen, mutur, uzkur eta herabe. Orduan hasi nintzen auzoko saihesbideetan bakarrik edo ardien atzetik, irratia esku batean eta mizpirazko akuilua bestean, terrentaz, ibiltzen. Mututasuna, bakartasun irudipen horrekin ezkontzen joan zitzaidan. Eta zorigaitzez jendetik jenderako premiazko distan-

tziaren neurtzeko baliabideak galdu nituen. Orain, bizidun batekiko harremanen ehuntzea zein zaila zaidan ohartzen naiz. Distantzia humanoa debalde dela ikasia dutenekin soilik gurutzatzen naiz, hitzez eta ekintzez, gontzetarik jaukitzen direnekin, min hartuekin, dolar munduak pobrezia arruntenaren estatistiketan harrapatzen dituen doloretsuekin hain zuzen.

Solaskideak bere aitzinean emeki-emeki urtzen antzeman ninduen, hamar mila libera baino gehiago pagatua zuen kanapean zehar, Ganimedes planetako zelula polinuklear malgu bilakatzen. Gauez gaueko ilunpe etengabean hariz zeharrez iruten nuen Euskal Herri honetan, izan baizik ez nuen desiratzen, karrikan uros eta aferatuak, irria ezpainetan, pasatzen miresten nituenen pare, eta frankotan azpi-jende edo ahalkez ekiditekoa zitekeen mamifero hutsala nintzelako itxura neukan. Gure gizartea preseski, ez zen ezberdina: merkatuaren legea nagusi zen, pentsamendu hormatua, eta honen osagai ziren hornigailu teknologiko bekaitzak, erregimenak, familia jarduera eta esperma joriak.

Gasna laster birtuala zatekeen.

Gure auhenaren antzera.

Gauza bat aldi berean gauza guztiak da,
gauza guztiak gauza bakar diren bitartean.
Hori konprenitzen ez baldin baduzu, ez du balio
Jakintza Betearen bila tormentatzeak.

Kexu aire ibili nintzen ilunpe hartan. Barnez aldatuko ninduen otsoaren ez atzemateak ez zizkidan kasko muineko neuronak jabaldu. Bideak bideari pozik elekatuko nuen halaber Norma Jeanen irudiko estralurtar panpox bat, adiskide gisa zetorren ber; egia erran edozein konpromisoetarako prest nintzen, gauaren bakardadea arintzearren. Uste dut bidaian zehar orduan, polizia edo jendarme kontrol batean suertatu banintz, gogo onez eta arraiki behingoz aurkeztuko nizkiela, batere logikarik ez zuten ene gidatzeko eta nortasun agiriak. Lur honetan arrotz jarduteko baimen karta ere bai. Gainera, indar errepresiboko kideei «mila esker» oihukatuz aterako nintzen borobiletik. Eguna nekez jasaten baldin banuen, irakurle, gauaz disgustatzen ari nintzelako aitorra zor dizut.

Ene haserrearen erroak bilkura aitzineko arratsaldean barna landatuak ziren; alabaina, denek Joanes deitzen genuen Mandrun abertzale buruarekin istripuz hitz egin nuen eta emazteok, politika libidoarekin bideratzen genuela errepikatu zidalarik, gaitzeko errabiak hartu ninduen. Amaren erranez gogoratzeaz beste erremediorik ez neukan.

–Entzun nahi ez dunanik ez entzuteko, hago isilik!

–Bai, baina ene pentsamoldea?

–Ohartuko haiz, denborarekin, ez duela halako garrantzirik.

–Okei –ahula marmaratuz bukatzen nuen amarekiko solasa.

Joanesekin egon nintzen une osoan elkarrizketa zaharraren oihartzunak kolkoa udalatu zidan.

Kaferako hautatu zuen ostatuan egon zen lau orenetan, aspaldiko ezagunak ez ginena, Joanes populuaz eta militanteez mintzatu zitzaidan, deblauki. Parean neukanaren hitzetan, Bazko goizetan su-mihi gorrixka moldean euskalduntasunaren errebelazioa erdiesten eta onartzen zuten

militanteen eta jateaz nahiz mozkortzeaz edo elkar jokatzeaz beste axolarik ez zuen populazio kopulatiboko partaideen artean leize erraldoia zegoen. Prediku huts eta askatasunaren zeruari egokitu konformismoaren ildoan, militanteek urritzen zihoazen herriko apezak ederki ordezkatu zituztela nioen enetako. Denak seminario ezberdinen tupina berdinetako saltsetarik zetozkigula gehitu behar zena? Halatan, abertzale sutsua bihurtu zen urteetan Joanes, herri xeheetako plazetan bildu betizu eta ardi zainen aurrean, predikari lanetan suhar higatzen anitzetan miretsi nuen.

–Anaiak gara –zioen–. Konfiantza ematen baldin badiguzue, salbatuko zaituztegu eta futxo, harri berdinarekin kolpeka aldi berean euskara ere salbatuko dizuegu. Euskal nazio bat duinki eraikitzea lortuko dugunean klase borrokaz axolatuko gara; bizkitartean goazen eskuz esku langileak, laborariak, nagusiak eta gure herriak kudeatzen dituzten euskaldun zintzoak. Marsianoen marxismoa eta Lenin lenifikantea beude hemendik urrun! Gora gu eta gutarrak! Gora askatasuna!

–Bakea emak puttil! Noiz jinen haiz gure etxera mutil? –oihukatzen zuen baten batek, ahantzi gabe hauteskunde kanpaina betean hitz emak oro ez zirela derrigorrez eman hitzak.

Baina Joanes ez zen durduzatzen.

–Anaiak! Lasai! Laborantzako kooperatiba herrikoia muntatuko dugu hemen zuen zerbitzuko. Gasna ontzen eta ausarki saltzen ahalko duzue. Ba al dakizue zer den egiazko askatasuna?

–Asuna? –ebaki zuen elkor erdiak–. Ba asuna aski badugu gure etxalde inguruetan eta dailua erabili nahi duen jende gutxi! Haugi mutikoa eta ikusiko duk nola den.

–Noizko duk zintzur bustitzea? –galdegin zion bizkarrez konkor bezain zardai zenak, zigarroa ezpainetan dilindan.

Eta gelan tinki sartu jendalde ilun guztia irriz karkailaka lehertzen zen, Joanesek ostalerari edari botilen apailatzeko manua helarazten ziola, besoak eihera herdoilduaren pare inguratuz. Garai urrun haietan, hautagai baten balio eta sinesgarritasun politikoa, mintzaldiaren ondotik eskaintzen zuen aperitifaren oparotasuna-

ren arabera trenkatzen zen. Oraindik, ahapez nerrake, egarri berak eroaten gaitu: ezein politikariren eskuzabaltasuna bere moltsaren irekitzeko dohainaz neurtzen dugu, Joanesek arratsalde hartan aipatzen zidan emazteen libidoaren ildoaren izaritik baino.

Hogei urteko istorioez ari natzaizu irakurle. Hain zuzen halako hauteskunde kanpainako biltzar publiko baten ondotik behin, Joanes harrapatu nuen, bere bi adiskiderekin etsia eta haserre.

–Ce peuple soumis, putain! J'en ai marre. Que peut-on en faire?

–Joanes, cool, tous on est comme ça...

–Je suis basque –erraten zidan eztiki–, et je comprends ta réaction: t'es pas aussi borroka que moi...

–Certes oui... et non –ihardesten nion non gorde ez nekiela.

Ahalkez kikiltzen nindoan, peuple soumis horretako kide oso sentitzen nintzelako. Ez nuen besterik egiten ahal: gaur bezalako ilunpez ilunpeetan euskara amaren bularrean eta aitaren selauruan jaso nuen; Joanes nitaz jeloskor zen

euskara esnearekin batera naturalki irentsi eta izugarriko xantza nuelako, baina xantzak ez zidan biziki iraun. Ezabatzearen eta izpiritu argitasun unibertsalaren eredu pedagogikoa neuretzearren Herriko Eskolan hastean galdu nuen hizkuntzarekiko hurbiltasuna, gaztiguak, baztertzeak eta haur hotzean dudarik gabe merezi nituen zaflako finak bilduz. Garaiz barneratu helduen bortizkeriaren aurrean mututu nintzen, eta indio edo aborigenen maneran geroztik halaxe segitzen dut. Arrazoi zuen Joanesek: mintzatzeko gaitasuna ehortzi zidatelako, ez nintzen benetako militantea izaten ahal.

Hargatik, Joanesek abertzaleen izenean, bozka emaitza politak erdiesten zituen eta ondorioek % 10aren heina ez sekula pasatuagatik ez zen beldurtzen. Azkenean hauteskunde kanpainetan lehen agurren emateko ikasi zuen euskaraz irratian emaitza kopuruak baikorki balioztatzen entzuten nuen beti. Populazioa bere irri eta arraileria zozoei uztartua utziz, Joanesek ez zituen gutxienez militanteak desesperatu nahi eta derrigorrez baikor agertzen zen. Noski, bozetan, Joanesek enea kausi zezakeen. Bizkitartean Joa-

nesen bana-besteko garaipenetan parte hartzeak harrotasunez hanpatzen ninduen. Euskal Herria ez baitzen Korsika, norbait behar zen paper egokien bozka-kaxetan sakatzeko, ez?

Joanes borroka politiko guztietako gizkei plazaratu zen, manifestaldietan banderolaren ekarle, lelo bizien errepikarazle, megafonia sorbaldan eta banatzeko agiriak ahurrean. Lau egunez halaber polizia judizialaren egoitzetan gatibu egon zen, bere aitaren etxean arma gordagi bat atzeman ziotelako. Ikerketek gero frogatu zuten fusila eta dinamita puska busti haiek bigarren karlistadaren denborakoak baino ez zirela. Askatu zuten goizean, han nengoen ni, komisaldegiaren aitzineko ostatuan haren aiduru. Militante bilduen artera atera zenean, hitzik ez sorik ez zuen neureganako.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdean, hiltzeraino kexatu ginen, borroka armatuaren gai pilpiratsua zela kausa. Joanesek, militanteentzat sakrifizio pertsonalaren goren maila jotzen zuen borroka mota horrek Euskal Herriari, eta batez ere Iparraldeari ekarriko lizkiokeen abantailak oro zerrendatu zizkidan behin: eztandaz inarrosi

kontzientziaren iratzartzea, elkartasunaren kontzeptuaren bermatzea, politika mailako oharketa lasterra, ekintza eremuen finkatze praktikoa, egitura instituzional baten premiaren azalpena, hizkuntza politika dinamitaren plantan jartzea eta horrelako mila eginbide beharrezko. Inbentarioa bururatu zuenean, garagardoa hurrupatu eta esku gibelaz ezpainetarik zerion hagun zurpaila idortuz, Joanesek ene begitarte harritua haztatu zuen. Alkoholez usaindu hatsez kutsatzen ninduela oihukatu zidan.

–Zer? Ez duzu sinesten ala?

–Ez da hori baina...

–Baina zer?

–Sobera masokista naiz bortizkeriaren onartzeko –eta aitorpenaren latza mendratzeko arraileriaz segitu nuen–: Zerbait egitekotan, zergatik ez genuke elkarrekin jokatuko?

–Nik biharko Euskadi haren alde baino ez dut jokatzen –mailukatu zidan, infernuko zazpigarren zirkuluko piztia izugarria bailitzan.

Isilik geratzea hobeko nuen naski. Gizona gontzetarik atera zen, dena oihar eta karranka. Zintzurra lehor neukan. Bihotza punpaka. Es-

kuak daldaraka. Turik gabe ahoa. Jakin beharko nuen engoitik, gai horietan ez nuela sartzerik, are gutxiago pilixkarik ere balio ez zuten ene gogapenen berri ematerik. Joanesen hira jasan nuen.

–Epeletarik zara. Minablea. Eta hola egonen zara hil arteraino.

–Badakit. Barkatu Joanes... –eta bat-batean oroitu nintzen, irakasleak nola hormetan edo eskola gelaren minean zegoen berogailuaren inguruan, gehiengoaren irri egingarri, hitz bat edo beste trebes ahoskatzen zutelako, auzoko lagunak dekalkatzen zituen. Alta guztiak, galaraztea helburu zuten mintza eremu hartako edozein etxetako premu edo andregai hitz emanak ginen: etxeko jaun handien, apezen eta notableen bortitza haragian txertatua izan zitzaien azken ondareko zutabeak ziren gure etxekoak, mututasun alegera eta umil baten ekinaz ihardukі zutenen haurrak aldiz gu. Intzidente horretarik landa hamar urtez ez nuen Joanes ene bideetan errekontratu. Handik laster gertatu zen behialako Bigarren Karlistadetako arma gordagiaren afera larria.

Bilkura abiatu aurreko arratsalde hartan ordea, tipus-tapasean Joanes harrapatu nuen karrikan. Espaloiz aldatzeko tentazioa menperatu eta agurtzera joan nintzaion. Hastapenean eleak karroin agertu baldin baziren ere ahanztura hedatu zitzaigunean gerora giroa berotu zitzaigula aitortzekoa dut. Mende bukaera nahasiaren bezperan Euskal Herria kolpatzen zuten gaiak mahairatu genituen, deus ez bailitzan: euskararen biziraupena, ikastolen estatutua, Joanes bera pribatuaren aldekoa zen hala izateak ikastolen irakaskuntza eredua hobekien segurta zezakeelako, preso politikoen hurbilketa, amnistia, mundializazioaren aurkako nekazaritzako ekimenak eta euskal departamendua. Nik Joanes betiko ikasle berantiar ezagutu eta onartzekoa nuen alabaina, modestia faltsurik gabe azaltzen zidanaren arabera, ez zela gaizki heldu Euskal Herrian. Alderantziz ederki erreusitu zuen sozietatean: Herrikoaren eta botere publikoen aldetik enpresa sortzeko dirulaguntzak erdietsiz, informatika etxe txiki eta polita hazi zuen. Liberala zen arras. Ezkondua zen eta hiruretarik bat bederen alaba zela, hiru semeren aita. Egoitza han-

dia bazeukan kostaldean eta aitatxi artzainaren borda antolatua zuen asteburuak familian, han berdean zioen bezala, iragateko gisan.

Uztaritzeko Garat anaien abar zuzenekoa bailitzan, Euskal Herri departamenduaren alde mintzatu zitzaidan, sutan. Aldion ez nuen Joanesekin kexatzeko gutiziarik eta herrokatzen zizkidan balizko egitura instituzional berriaren abantaila guztiak buruaz baieztatzen nizkion: euskal kontzientziaren iratzartzea, elkartasunaren bermatzea, lurraldetasunaren premia, ekonomiaren eta garapenaren lehentasuna, nazio eraikuntza, instituzio propioak, hizkuntzaren ofizialtasuna... Hogei urte aitzineko esperientziaz Joanesek katalogoa hertsi arte isilik geratu nintzen: ez nuen argi ikusten klase politikoaren eta enpresarien zerbitzu bekaitzean zegokeen departamendu baten beharrik. Baina ez nuen jujatzeko kapazitaterik, Joanes bezala, politikari edo enpresari ez nintzelako. Eta azkenean, ardi gasna ekoizleentzat on zena, enetako ere kaltegarria ez zela sinestera heldua nintzen. Baiezko ugariegien uholdean, Joanesek bat-batean pazientzia galdu zuen.

–Zer diozu zuk? Ez da zure arazoa ala?

–Gai horrekiko iritzi berezirik ez dut. Egoera zinez aldatzekotan nahiago nuke Iparraldea Amerikaren 52. estatu bilakatzea eskatzen bagenu!

–Zozokeria! Betikoa! Emazteek politika libidoarekin egiten duzue!

Har ezan no.

Lehen aldikoz, nioen, baina egiaz egunerokoa zen, gizartearekiko herra piztu zitzaidan eta errabiaz hanturik heldu nintzen bilkurara. Joanesen trakako jendeak gure sentimendu euskaldunez baliatzen zirela erran nuen neurekiko bidean zehar, haize farfailen antzera erabiltzen gintuzten, batean borroka armatua eta bestean, argumentu berez justifikatua, Euskal Herri departamenduaren itsuki sostengatzea eskatuz. Metropolian pasatu nuen denboran kontrolatzen ez nituen gauza franko gertatu bide ziren. Eta ni gauez baino ez nenbilen jagoitik.

Gasnaren (k)arratsa.

Eskaintza oparoa ahantz ezazu.
Gauza bakoitzean urrako bat agertzen da:
argia hortik sortzen zaizu.

Gau hartako joan jin bakartian, labana bezain zorrotz, Jean Jacques Goldmanen kanta bat neukan buruan: quoique je fasse, où que je sois, rien ne t'éfface, je pense à toi... Bilkura denboran hitzok biribilketa eroan kasko zokoan ibili zitzaizkidan. Bitxiki. Baiki, euskaldun identitatearen oinarrian zitekeen edozein errepika hobeko nuela ezpainetaratzea erranen duzu irakurle, arrazoiekin, baina horrela zen orduan: irratian goizeko seietan entzuna egun osorako daramazu gogoan ixkilimatua, saihets eta ekidin ezin. Merezi ditugun erreferentziak dauzkagu, ez gutxiago, ez gehiago. Aitortu beharra daukat gainera, Jean Jacques Goldmanen ahotsaren gatibu melodikoaren haraindian, batzarretik etxerakoan, gasna ez nuela nihaurk ahoratu, Mairosen konpainian baino.

Ezkiz inguratu Herriko Plazara heldu nintzenean, argi zurpailek mugatzen zuten ilunpean,

lanpara baten pean, itzal luzea begimen neukan. Hainbat desiratu estralurtarraren gurutzatzeko esperantzak tanpez gelditzera bortxatu ninduen, eta izaki arraroarekin hitz egiteko erabiliko nuen mintzaira zein zatekeen izan nire orduko kezka; hondarrean nekien ingeles apurra gauaren bizkarrera ekartzea deliberatu nuen: how are you? What's your name-number? How old are you? From where do you come? Are you just married? Do you hear the last song of JJ Goldman? Perpaus egokiak apailatuak nituela irudikatu bezain laster, beribila plazan kokatu eta motorra eho nuen.

Urrunetik, estralurtarra zitekeenari jende forma antzeman nion, eta larru samurra merke saltzen zukeen Roxanne ospetsua zela pentsatu nuen: you don't have to put on the red light... abestuz eta beldurra gordetzen saiatuz hurbildu nintzaion. Negarrez hipaka higatzen zen emazte bat zela konturatu nintzen. Herriko plaza karroinez zuri eta ikaragarriko hotza nabaritzen nuen hezurretan etxeratzen nintzen tenore horretan. Emazteak zakur zanpatu soaz begiratu ninduen. Zetazko ohe jantzi arinekin beztitua zen eta orduan zimiko latzak bihotza irauli zidan. Izotz hai-

zeak erraztatu plazan hitz egiteko premia ankerra piztu zitzaidan.

–Ez dira gau guztiak berdinak.

–Bakea eman, otoi, eta habil hoa antzara ferratzera! –ihardetsi zidan gaiztoki emazteak.

Begiak kleenex purtzilikatuaz torratuz besoak papoan juntatu zituen. Erdi biluzia zebilen anderearen sokorritzeko eta gerizatzeko gutizia nigan bermatzen sentitu eta bat-batean behialako beldurra inarrosiz, herriko plazan kateme bustiak goseti bilatzen zituen serial killer baten balizko presentzia imajinatu nuen. Bazterretara beha, segidan, James Ellroyren nobela sobera irakurtzen nuela ondorioztatu nuen; alabaina zahar kankail konkortu libindintsu eta gerlari ohiez aparte, Garapenak abandonatu herrialde hau El Monte lanjerosa ez zela onartzekoa nuen. Emaztea altxatu zen eta oihu batez mintzatu zitzaidan.

–Deabru astana! Mairos naun! Ez naun ezagutzen ala?

–Mairos? Zer ari haiz ordu hauetan herriko plazan bakarrik?

–Eta hi?

–Ni? Bilkuratik heldu naun. Non dun senarra?

Negar hipako zarratada bat jasan beharrean aurkitu nintzen, hats hartze soilaz ene estraterrestra, Roxanne edo Dalhia beltz fantasmak ezabatu beharrean aurkitzen nintzela. Senarra non zeukan galdea errepikatuz ondoratu nintzaion. Malkotan itsaso eta eleei ausikika ari zen.

–Etxetik kanpoa eman zatan Joanesek –erantzun zidan–. Badin orain bulta bat ostikoka eta zaflakoka erabiltzen nauela. Ihiztorak naski ni baino eztikiago tratatzen dizkin... Afarirako ardi kostaletak erreegiak zirela eta hara... karrika gorrian naun. Nora noake?

–Zer gertatzen zautzue? Jotzen hau eta ez datan sekula deus erran?

–Amodioa zela uste ninan. Zer eginen huen hik? Hire ilusio makina martxan jarriko eta Joanes zitzikatuko?

–Berdin. Bitartean haugi ene apartamentura.

Bosgarren solairuan zegoen neure bizitoki eskaseraino igotzen lagundu nuen Mairos eta argipean, neskaren begitarteko ubelak zenbatzen ahal nituen, ubelak eta odol idorra zerien urrakoak. Soa ezpainetan iltzatu nion.

–Azken aldian, matelan huen sarraskiaz eskatu naunalarik, eskaileretan eroriko malestruka bat egin huela erran hatan. Gezurra zunan?

–Bai.

–Eta hondartzan izan ginenean, azpian haraman ospel ustela?

–Ukabilkadak eta ostikoak. Ez huen ulertuko. Hain haiz inoxenta!

–Eiki –ahoskatuz irentsi nuen zintzurrean behera nekez lerratzen zitzaidan tua.

Emazteari irri zozoa eskapatu zitzaion eta ene inguruan dantzan hasi zen.

–Inoxenta! Inoxenta errea!

Hitza agortu zitzaigun. Bezperan erosi Onetik puska gotorraren ateratzeko hozkailua ireki nuen. Gasna puska finetan moztearren zaintsuki nabala erraldoia eskuetan hartu nuen. Nabala ahurrean ikusi ninduela, izuaren izuaz bezala, Mairosek urrats bat atzera egin zuen. Neure harridura herabeaz jabetzean jabaldu zen neska. Gasna partekatu nuen. Mairosek bere zatia daldaraka bildu zuen. Laser irakurgailuan Jean Jacques Goldmanen KDa jarri nuen, apal-apalik, auzoak ez iratzarrarazteko gisan. Segurtasun une

berriaz baliatuz eta janaria gozatuz, Mairosek aho plegua marraztu zuen.

–Non dun gure gazte denborako Guk taldearen disko hura?

–Nahi duna aldatzea? Bizkitartean gustatzen zaidan grâver l'écorce jusqu'à saigner, clouer les portes, s'emprisonner, vivre des songes à trop veiller, prier les ombres et tant marcher borobil etengabean entzutea, horditzeraino. Ene istorioa kontatzen din gizon horrek. Hirea ere bai nolabait.

–Isil hadi! Eta *Gurea Da Geroa*? Gomendatu naunan funtsez euskaldun egoteko eta frantses bilakatzen ari haiz! Bakea eta zigarro bat eman iezazkidan. Arropa zenbait ere bezti nadin. Hummm gasna hau ez dun batere txarra!

Ahatara bakoitzean euskalduntzen ninduen, ene onanismo gastronomikoaren bizio ahalkegarria azaltzen nion neskari, armairuetan ikastolako atorrak eta Nafarroa Oinez 95eko kirol galtza pareak bilatzen nizkiola. Egia erran, Euskal Herriak eskaintzen zizkidan jantziez salbu, apaindura gutxi neukan lau haizeetara barreiatzeko. Mairosek ezpainak doi-doia mugituz, neure opa-

riak onartu zituen, besterik ezean. Arraposki beztitu zen. Lo zakua harrapatu eta estralurtar ipuinez hanpatu liburu metak saihestuz, pausatzeko toki txikia mugatu nion.

–Hire ezteiez ontsa oroitzen naun –artekatu nuen zolari beha–, izugarri ederra hintzen! Zer besta egin genuen! Gogoan dinat halaber bitxiki, Joanes hire ordez deblauki mintzatzera uzten huela: ez hindudan nehoiz horrela ezagutzen eta pentsatu ninan, bai hori da egiazko amodioa, ahots bakarrez hitz egitea, ideiak gorputzekin batera ezkonduz, uztartzea. Gaur atzematen haut plazaren erdian, odol buruz josia eta kanpoko hotzean pikarrai. Ezin sinetsia zatan.

–Duela urtea zunan. Gure bi egunetako formakuntza sail ero eta erotikoez asea nindunan. Ez ninan zazpi orenez, seiehun eta hogeita zortzi zakil eta erdi aluratu zituen Houston anderearen bidean lerratzeko gutiziarik! Hark munduko marka hautsi zinan bere bular eta izter silikonatuekin! Gizon bat behar ninan. Gizon azkar eta sendo bat. Enea. Enetako. Joanes hor neukanan aiduru.

–Lelo berdina eramaten huen orduan –segitu nuen kasik desesperatua–, emazte bat ez zela gizonik gabe bizitzen ahal, lege biologikoa zela hori eta denak hortik iraganen ginela goiz edo berant. Uste ninan zoriontsu zinetela!

Kexatu zitzaidan Mairos. Ene makurrak eta bakardadeak baizik ez nituela begiztatzen azpimarratu zuen; gizon bat emazte baten eskutik paseatzen agertzen zen ber zoriontasuna irudikatzen zelako ilusioa neukala beti. Errealitatea ez zela horrela oroitarazten zidan, bikoteak ez ziolako zorionari edo aldizkari arrosetan hedatzen zen amodioari bermerik eskaintzen. Predikua ez zuen debaldetan bururatu.

–Ezkondu eta lehen hiru hilabeteak zoragarriak izan genizkinan bistan dena. Ondoko bederatziak aldiz infernu kolorekoak enetako! Xoxokeria batengatik, supermerkatuan erosi usain on botila bat demagun, Joanes haserretzen zitzaidanan eta «heziko haut» orroaz oihukatzen ere, auzoek entzuteko maneran. Nahi zinan guztiek jakin zezaten gizon errespetatua zela ohetik eta etxeko sukaldetik haste. Joanesen amarentzat trapu zakar bat nindunan, ez denat erraten! Es-

pero zuten etxeko segidarako semea ez nienan ematen haiek nahi zuten bezain laster. Bazekin zer den ohorea?

–Ohorea? Ez.

–Ohorearen estakuruz maite ditugunak oro suntsituak suertatzen ditun: amodioa, elkartasuna, umiltasuna, jendeen arteko harremanak, denak izenik ez duen gerla batean xitxifrikatuak. Ohorea eta urguiluari esker irauten diten borroka anitzek, eskuak negoziatzen zikindu beldurrez, buruzagiek heroi handi atera gogo dutelarik. Ohorea itxuraren mundua dun. Ohorearen zaintzeko kolpeak bildu dizkinat emazte frankoren antzera eta halaber gezurra erran zienat lankideei, medikuei, auzoei, amari eta hiri, nola ez, hain haiz inoxenta!

Jendearen jasan ahalmena hausteraino eramaten zuen amodioaren ideia gohaingarri zitzaidan bat-batean. Mairosek laguntza behar zuen. Ene esku ukaldi gautarra ez zitzaiokeen aski: egiazko arta sail baten premia zeukan. Ene ohizko zekenkeria zikoitz eta bekaitzaren mugak urtaraziz gasna zati gehiago moztu nuen. Mairosek

argia pasatzera uzten zuten xerrak agudo irensten zituen, aspaldian jan ez bailuan.

–Lanerako haiz ez sarri?

–Hago lasai... Lorik gabeko goizak maite dizkinat. Akitua naun baina akiduraren mugarri horren haraindian «gizartearen» bortxa aldiro sumatzen dudanean, bazekinat bizitzea zaila dela.

–Ene eztei afarian zehar hitaz burlatu nindunan Joanesekin –gehitu zuen–, binakako gonbita ukan arren, bakarrik etorri hintzelakoan. Joanesek algara gordinaz alhatzaileetarik hintzela xuxurlatzen zatanan belarrira! Eta ni karkailaka lerratzen nindunan hire aurpegi ahalketua mirestean. Jakin banu...

–Hemen haiz orain. Tira ezan Onetik horretarik.

Jean Jacques Goldmanen KDa aspaldian isildua zen. Karrikatik auto eta urruneko iturri herots elkorrak jaukitzen zitzaizkigun. Mairosen azken hitzak hautematearekin, zintzurrean buztinezko birlak hazten nabaritu nituen: non zeuden salbatuko ninduten estralurtar haiek?

Oheratu nintzen.

Jendearen oinarrizko ilusioa,
zu hor eta ni hemen gaudela
bereiz itxuratzea da eta ez da hala.

Aparkaleku hitsean, goizeko bietan autoan sartu nintzenean, sudur ahotsez kantatzen zuen Dolly Partonen zintaren bizkarrarekin garbitu nuen karroinez gogortu bitrailaren eremua. Pena neukan Dollyrentzat, baina une hartan zinez balios agertzen zitzaidan; herrialde ilun eta mutuak zeharkatzen nituen orduetan agian ez zuen gehiago enetako bakarrik abestuko. Tanpis. Parton ospetsuaren K7a andeatzeak ematen zidan goibelduraz gain, bilkura ostean zainak mehar eta zartatzear nabaritzen nituen. Tasmaniako otsoaren pareko sentitzen nintzen: legezko geriza helduko zitzaidanerako aspaldian hila eta desagertua nintzatekeen. Bizkitartean, Dawson bezain galdua nenbilen, gauez gau, gorrotoaren helburu finko eta zuzen, karrika hotzetan barna lanera automata moldean abian eta begiak ingurua zilartzen zuten elurrez estali mendietan josiak.

Etxerako bidean, betiko bihurgunean zela konturatu nintzen, macadam hormatuaren gainean ausartzen zen sagarroiaren ez lehertzeko autoaren lasterra mendratu nuen: Atxagaren olerkiaren arabera honek hogeita zazpi hitz trakets baino ez zitzakeen ahora. Ele apur horiekin hargatik mundua ezagutu desiraz hanpatua zebilen. Nolabait Axularren sagarroiaren eredua zen halaber, ene potreta kapetut, aditz hain pobre eta eskasak ezpainetan anitzetan landerrean nengoela. Autoaren argien menean aberearen nekeak aztertzean, izpiritua minberaki alhan zerabilkidala «Lukatxukai!» erran nuen. Aski izan zitzaidan lasaitzeko. Hastapenean ez nekien hiri edo herri izena zitekeena nondik zetorkidan. Sagarroia ipularrera hupatzen lagundu nuen eskuz, disgustua gaindituz. Ilunpea uhulu sufritu batek inarrosi zuen eta oroitu nintzen: Momadayren nobela bateko navajo sendagune baten deitura zen Lukatxukai, desertuaren erdian txertatua, harri sakratuaren azpian sugeak sigi-sagaka entzuten zirela ekiak erre lurraldea; Setek bezala, berrogei urte nituen eta Lukatxukaien urtzekoa zen Garai Ahantzietako Haurra

nintzen ni ere. Tasmaniako azken otso emearen urgentziazko aterpea zena Lukatxukai?

Argi zirrintako suzko pindarrak iragartzen zituen ilunpe zohardian, orkatz haragi xingola idorrak martzilikatuz, Perfekto Atolek peyotl ura edan zuela gogoratu nintzen. Momadayren liburuko perpausak buru zokoan dailu erabiltzeak eta mantra lanzinanteen gisa errepikatzeak on egin zidan. Autoaren ondoan lur-hasean jarririk, ardi marraka ahula hautematen nuen: auhena bidearen ertzeko baserriko arditegietarik zetorren. Orduan, antsiaren minetik, mundu bihurtu nintzen, basamortu eta gabetasun orokor. Segidan gasna puska erraldoian hortzak landatzeko errabia piztu zitzaidan. Alta etxetik urrun nintzen oraino. Mentalki are urrunago naski: alabaina, Lukatxukai ikur, behialako mundu menperatu, kutsatu, gosaiotu eta baztertua irudikatzen nuen, oihar neuzkan marraka xumeetan berme. Gau hartan, gaztiguaren zein ahanzturaren usaina zukeen guhauren Lurraldetasun kontzeptua birindika aurtiki nuen: ukamenean finkatu herririk ez zen eraikitzen ahal.

Hiria nahi nuen berriz, megalopolis erraldoia, gaueko kale huts eta argiztatuak, etorkin bakartiz bete Oasiz erako ostatuak, hondar metroak, pitbullak estekan eramaten zituzten gizon oskien burdinazko aztalen klaska-klaska metalikoen herots beldurgarriak, barrandako polizi-kotxeen sirena oihuak, hezurtu eskaleen dei ugariak, igande goizetako kai hegietako predikari apokaliptikoen iragarpenak, dogon leinuko alaben ibilera goratiak, Kabiliako kantari itsuen ahots kraskatuak, irak handik irak hemendik orroaz eztabaidatzen zuten arabiar zaharren kemen etsiak, ipar haizeek orraztatu abenida zabalen leihorrak, Yangtze Jiang eta Mekong ibaietan bainatu lehiaz magazinetarik isurtzen ziren asiar fruituen mardotasunak; hiriak dakarren funtsezko eta derrigorrezko ezizatearen izateko elementuak premiazkoak zitzaizkidan ondorioz oroitzeko eta barkatua sentitzeko. Ardiz eta artzainez emokatu kultura goresten zuen basamortuan bizi nintzen eta hiria nahi nuen.

Geldotasunaren zama Lukatxukaien meneko abandonatuz autoan sartu eta Eguberriko apaindura elektrikoak dilindan zeuzkan herria zehar-

katu nuen, astiro. Laborantzako tresnak eta onkailuak saltzen zituen denda baten paretan axuriaren samurtasuna goraipatzen zuen iragarki bat irakurri nuen: pastoralisme, transhumance, véritable qualité, agneau de lait, élevé sous la mère... Axurien destino berdina geneukala konturatu nintzen kasik horma: Patagonia muturretik, Australiako bush hartan barna, Tizi Ouzouko eremu gorriak trebeskatuz, Mongoliako estepetaraino, ahantzi gabe Bardeak eta Saharako Peulen bideak, guztiak ama ezeztatuen haurrak ginen, arrotz izatearen bildots eraldatuak. Akiduraz hil artzain haien ume marrakariak ginena denak? Axurien pare, amaren titiak edoskituz baino behialako hogeita zazpi ele madarikatu haiek ez zituzten gure bilakatzera uzten. Indigena biologikoak ginen. Arrazoiaren mailara nehoiz helduko ez ginenak. Begiak hertsiz, guztien artean tiratzen zen haizezko hari ikusezina mirets nezakeen: ekaitza, hegoa, ziertzoa, enbata, soperna jeneralaren hatsa eta mortu erreak.

Gauak hain zuzen Sigmundek aipatzen zuen «amodioa eta lanaren» xendak irekitzen zizkidan, Lukatxukairaino, biharamunean lankideek

preseski disgustuz begiratzen baldin bazidaten ere, ene bizitza entoila ikaragarria zela ezpainak handikoiki plegatuz gaineratzean. Ohar horiek mintzen ninduten baiki, baina berak arraiez edo lili arrosez hornitu pijamak leporaino tinkaturik, gizonaren edo emaztearen ondoan etzaten ziren tenoreetan, Ushuaiako lautada hotzetan ibil nintzatekeen, Lukatxukaiko zeruan zirurikan zebilen arranoa begiz jaten, nahiz oraino zure bular beltzen laztantzen, ene ohizko hiztegi urriaren kolpatzeko mintzaira berri asmatzen. Egia, garenaz beste izan gintezkeen, garrantzitsuena zela hala ere, haurreko ametsen ildotik ahalik fidelkien bideratzea.

Etxekoek Pentze Patarrera ardi zain igortzen ninduten opor arratsaldeetan, zenbaitetan paira dezakedan bakartasun larrutu hau itxuratzen nuela uste dut, egunerokotasun eskardatua, lo ezinezko ordu txikiak, ahari buruz zoratuen antzera kaskoa etengabe alhan, galdezka eta dudaz beterik. Duda, ihardukitzeko eta irauteko arriskuaren onartzeko medio gisa ulertzen nuen, pazientziaz eta izpirituz zorrotz beti. Halaber egun, ene izatea justifikatu behar dut, anitzetan

naski, oraindik zartatua ez den Mac Do batean lanetik kanpoko kideren batekin coca-cola edatean adibidez. Laguna fermuki mintzo zait.

–Distantzia atxiki ezazu!

–Angustiak narama –marmaratzen diot, negar hegian, kideak irudiz sobera zeukan segurtasun hura gutiziatuz–. Ordez, mugaz muga nabil, erdira hurbiltzeko beldurrez bezala arraposki, lehen nola hesiz hesi ardiak pasa zitezkeen balizko sasi zuloak begiztatzean, gaur hala salbamendua menturatik etorriko bailitzaidan. Eta gerla bukaezina da noski, ekin-molde bakarrean jadanik irabaztea edo galtzea jokoz kanpo daukadanean. Errauts mineralen ilunpe izartsuen sabaiaren maldan borrokarik ez gehiago bilatzea enetako primitibo izaeraren zurkaizteko manera bat da.

Lukatxukaiko odol kolore eta usaineko lur mokorren imajinatzeak agian, egiazta ez nitzakeen diskurtsoen baztertzen laguntzen ninduen. Coca-cola hormatua hurrupatzen genuen hartan, kideak bi musu iheslariz despeditu ninduen.

–Baduzu ikasteko! Erranen dizut!

–Zure barne bakearen puska bat banu? –oihukatu nion karrikaren minetik, elkarrengandik urruntzen ari ginela.

Autorantz nindoala, bikote arrunta gurutzatu nuen, goraki eleka, intimitaterik zaindu gabe.

–Naf-Nafen aterki hobeak ikusi ditut –zioen emazteak.

–Zergatik jarri dute xapito hori hor, elizaren ondoan? –gizonak deblauki mozten zuen emaztearen elasturia. Beretik segitzen zuen.

–Baditut bi beroki armairuan, baina beste erosoago bat atzeman nahi nuke nonbait!

–Nago zeren ospatzeko xedea duten?

Gizonak ez zion emazteari kasurik egiten. Orokorki elkor hizketa zen nagusi. Etxera heltzean gauak sosegatzen ninduela errepikatzen nuen, Tasmaniako otsoa bezain desesperatua: Lukatxukai desirak behintzat ez ninduen Pinkiera eramaten. Gasna xerra galanta irentsi nuen, bizia amets gaiztoa zelako eta viceversa.

Gasna mentsa.

Maisuek ateak irekitzen dizkizute, baina zuri dagokizu sartzea edo atarian geratzea.

Jendea hala egina da, non behin bozkariatzen den zozokeria batengatik, gero etsipenean behera lerratzeko, enul, inutil eta mundua den eraikuntza ikaragarrian ezbeharrezko sentitzeraino. Halaber naiz ni, estraterrestren edo Peñaflor gazteluaren maldan bideak gurutzatu zaizkigun 007 agentearen ttattit bezain mutu beha nagoenean. Maniako-depresibo bihurtzeko unean, zainak korapilatzen nabaritzen ditut eta gauaren erdian, bilkuratik etxerakoan «Ama!» deitzen dut desesperatuki. Debaldetan, egia osoaren errateko. Deitzea eta erantzun hurbilik ez erdiestea, salbu agian bi eztul idorren oihartzun ahula, arras latza zait: orduan galaxia arteko bakartasun iragarriaren irudipenak urratzen nau.

Apuñatik badakit, hegi lurrekiko gure kontaktu bakunak amerikarrek zeruan barna igorri zirta automatikoak direla, eta ditugula. Zirta horietan lur honen jakintza borobiltzen duten seinaleak

aurkitzen omen dira: liofilizatutako hamburgerra, Beach Boysen *Surfin' USA* abestiaren partizioa, oraindik klonatu gabeko ADN xingola multikolorearen plastikozko moldea, dinosauro zerna gaitz hartan atzeman piztia baten zango-hezurra, bospasei mikrofilmetan kokatu literatura unibertsalaren erakusketa sakona, Odisea, Biblia eta Goetheren amodio itsuko olerkien bilduma, familia tipiko baten zorionezko potreta zutik –gizona, emaztea, mutikoa, neska, zuriak, kristauak, ile horiak, klase ertainekoak– eta edonork erabil dezakeen WAP sistema. Sonda astunak noizbait eki egituratik kanpoko eremu bat joko balu, eta gertatuko dela sinesten dut, etereozko izakiak hamburgerra ausikiko duenean ez duela menturaz gure salbatzera etortzeko gogorik edukiko asma daiteke. Etzidamuz ere, bakarrik egongo gara muga bako espazio zelestiarren musika motza eta hotza lagun.

007 agentea huxtukatuko dugu bizkitartean, eskaintzen diegun bake likitsa –hilerrietakoaz aparte ba al dakigu zer den bakea?– eki egituratik haraindiko galaxiek onartzen ez baldin badute, ehotzeko dauzkagun tresna amestu guztien

pozoiak gogoz kontra xurga ditzaten. Urre begik zepotik atera gaitzake? Gutarik berrogeita lau argi urteetan kausitzen den Epsilon, Andromeda edo Centaurus galaxiako izarbelak bederazka, etxetik beretik, eraso ditzakete satelite bidez kudeatu misilek. Bego horretan nagusi 007 eta bitartean apaila dezagun ahalaz oneski, hirugarren munduen arteko borroka etengabea. Eta goazen anartean, eki haizeak zazpi mila kilometro orenean buhatzen duela, jendearen bakardade sentimenduaren ustiatzera gauez, gauez, gauez. Ezintasun giro horretan murgiltzen hasten naizenean, anitzetan ene ilunpeetako urratsak hilerrira bideratzen ditut, jendetasun soilaren aurkako Intifada izugarrian, harrika.

Etxeko bat desagertzen zaigunean, tanpez, beste planeta batean aurkitzen gara, dolorearen gainera, bortxaz heldu bihurtzearen zamak lehertzen gaituela. Aita edo ama galtzeraino, betiko haur geratzen gara: kaos iragarriaren eta guhauren artean, bitartekari ezti bat dago. Amultsuki entzuten gaituen belarri eta ahots lasaiak lanaren, amodioaren nahiz exilioaren izkinak leuntzen ditu, kafea edaten eta sua atitxa-

tzen da, gasnak biltzen neguko arrastiri karroindatuetan, tribuaren katea ez dela nolanahi hausten sumatuz, atzo, egun, bihar, ongi olioztatu metronomoak kolpatzen duela; betikotasunaren segida urriaren itxurak ume mantentzen gaitu hondarrean. Eskolako lagun ankerrek Zazpietan txikienari, zizare lekedatsua lepo ondoan pausatu zioteneko aberearen lerrakoaz eta sukalde zolapean dilingotu soka eratxikorrean harrapatu ulu tristearen azken burrunbaz oroitzen gara bereziki.

Denborak ahitu zitzaizkidan; disko zaharraren ildoak errautsez betetzen ziren eran, lekuaren gainean emokatzen nintzela iruditzen zitzaidanean, ilun beltzak gatibatu eskualdeetan zehar, begiak hersten nituen eta ziuntaz ur handiaren ezpondetara itzultzen nintzen mentalki: ez genuen orduan, estralurtar edo 007 agentearen beharrik jarduteko, balizko suge zilarrak kantuz izuaraziz erreka hegiko belar erraldoietan jauzika ibiltzeko, auzoko landetako toaxatze zein ahantzeen biluzteko, ardien gibeletik hatsak birikak odoleztatzeraino mendi malkar gaitzetan gora igotzeko, ihaurgairako iratze biltzera larraz-

kenean idien aitzinean abiatzeko, munduaren aitzinean bezala, hots emaile.

Begiak ixten ditut eta bihotzean min dut; eskola garaietan, eguerdi aldera, harri zorrotz ukaldika erdizkatzen genituen kuskandelen zauri mutuak jagoitik uler ditzaket, bide nagusia abandonatuz, herriko hilerrira solaskide eske zuzentzen naizenean. Munduaren endelegatze uneak segundo apurra baino ez dit irauten, baina aldi oroz xehakatzen nau. Dagoeneko marmaratzen baizik ez dakidan otoitz zatiak errepikatzen saiatzen naizelarik, benedikatua zara emazte guztien artean, diot, haurtasun ukatuaren ebaki zornatsua bihurtzen naiz. Izarrak eta argizeitua ortzian erregina daudela, hilerri isila erraztatzen duen haizearen dei labanatsua eta neronen urratsak mugiarazten dituen lurreko garraila pikorren oreka galtzearen hots mineralak hautematen ditut.

Bi eztul lehor. Azantza datorren tokirantz inguratzen naiz: gaua alde batetik eta bestetik hilobi zurpailak. Pauso herrestaria susma dezaket gero. Zintzur karrakatze bat eta izpiritua zulatzen didan ahotsa.

–Jin baldin bahaiz, ez haiz ontsa.

–Dudarik gabe ama. Norbaitekin mintzatu behar nuen –aitortzen diot, hatsa har ezinik, hormazko sesitze itzel; deblauki ari natzaio, sekula eta nehorekin ez bezala–. Ez naiz deusetara heltzen! Tribuaren urrezko behaztuna mila puskatan hautsiz geroztik galdua nabil. Ez dut bizia kudeatzen ahal: ura eri artean bailitzan eskapatzen zait. Eraman nazazu zauden leku horretara!

–Hago! Ez. Badun bide egiteko oraino.

–Prefosta...

Eztulak berriz behatzen nituen orduan, aire zirimolari arinaren axolagabetasuna, bake handia nigan hondarrean, leporatzen zidaten seriotasun, umiltasun eta errealismo eskasa, sekula eta nehori ez aitortuak, behingoz goraki ahoskatzea lortzen nuelako. Autoan sar nintekeen, hilik ere ama saihetsean neukalako ustea kalipu, hargatik ausentzia biluziaz negar zorian noiztenka bilkuretarik etxerakoan. Gau berezi horietan ilunpeetarik jalgi nahi ez zuten Platonen harpeko kide sentitzen nintzen: gaurko mendeko heldu, haur eta haurtua izateko partez, ama zentzean ihes joan zitzaidan zinezko haurtasuna lehiatzen

nuen, zainen jabalgarri: oilo salda usaina, baba eta ilar bihikatze soinua, haui hau hau hau eta meno no no no ozenak arrats apaletan, errekak jadanik eraman zuen uda mineko uharte itzalduna eta poallarekiko pupuru alegerak.

Amets egin dezakedala seguru nago: 007 agentea edo estralurtarrak ez dira inoiz hain bakartia, intimoa eta larrutua daukadan bihotz antzeko galaxia mehatxatu honen salbatzera etorriko. Esperoak ere ez du balio noski.

Noiz da bihar?

Noizbait argituko ote du?

Fedezko izpiritua ez da binakakoa,
binakakoa dena ez da fedezko izpiritua.
Hemen isiltzen dira Hitzaren Bideak, ez baita jagoitik,
ez iraganik, ez orainik, ez eta gerorik.

Mende honetako pentsamenduaren zurrunbilotik ideia soil bat atxikitzekoa balitz, hauxe har nezakeela nioen behin bilkuratik etxerakoan, haizeak, euri bortitz zeharrak eta hotzak bazterrak kateztatzen zituela: Carl Saganen *Ez Gaude Bakarrik Unibertsoan* exobiologiako irakaspena tentsioz hantua gostaria gosta frogatu nuelako, kideetan kideena ardura etsairik zinezkoena zela marmaratzen nuen bitartean. Gau hartan, kanpoan galerna orroaz ari zela, itzuli aurretik, goseak hamikatua, adiskidearen etxean geldialdi bat egin nuen, haren aitak Iratiko oletan ondu gasna deliziosetik naka-naka tiratzeko lehiaz: aterpearen beroak, xerra uhargietan mozten nuen jaki preziatuaren gustu biziak eta adiskidearen elekari molde eztiak tenpesta ahantzarazi zidaten. Egonaldi laburra emendatuz joan zitzaidan, gauerditik harako orduak maite nituela

errepikatuz eta hondarrean adiskidearen gomendioak jarraituz egiazki jarri nintzen.

–Gasna ez da zutik jaten! Planta zaitez gurekin mahaian alajinkoa!

–Presatua naiz, oren bata da jadanik eta bide luzea daukat egiteko oraino.

–Mintza gaitezen.

Adiskidearen senarrak hurbildu zidan aulkian pausatu nintzen, ekaitzaren menetik gerizatua bezala, animaleko labana zorrotza esku batean eta gasna laurdena bestean, Nafarroako azken erregina exiliatua bainintzen! Munduaren berrantolatzeko giroaren sustatzeko alabaina, ipar haize buhako burrunbatsua eta hegatsak gogorki kolpatzen zituen uhar gaztigagaitza aski zen. Gaueko solasak Pentsamendua Mugatua Da eta Ez Gaude Bakarrik Unibertsoan perpausen ardatzetan kurrinka inguratzen hasi ginen. Gutxi horrekin moldatzekoak ginen gehienak, gure ohar isilak noiztenka burbuila zaratatsuan txertatzen genituela, hobera ustez, anitzetan geronen kalterako. Pentsamenduaren uniformitateari unibertsaltasuna deitzen zitzaion eta unibertsaltasun mota bat eraikitzen genuen gure herrietan

bertan, elkarrizketa apalesten genbiltzala, indarraren eta ekintza bortitzen alde. Bitartean «ofizialki» ahulezia hazten bide zuen aniztasuna aipatzen zutenak baztertuak ziren, mututuak eta gordean ehortziak, biziaren bizitzeko astiaz erabat desjabeturik. Muga guztiak haustekoak zirela ahoskatu nuenean, adiskidea urtzen zihoan bere gasna puskari itsuki beha kausitu nuen! Azalak mahaiaren erdian metatzen zeuden.

–Abantxu dena irentsi dugu.

–Ase ederra egin genezake, azalak ere klikatzen ahal bagenitu!

–Ene gasna... –erranez altxatu zen adiskidea, sukaldeko ordulariak goizeko hirurak markatzen zituela, etxerako norabidea neure esku zegoela seinalatuz eta gelditzen zen gasna xerra bakarra papo ondoratuz.

–Jabetasuna Ebasketa Da! –oihukatu nion irriz, kanpoko hotzera nindoala.

–Besteena aise partekatzen duzu zuk ere!

–Jendeki soziala naiz ororen gainetik –erantsiz atera nintzen.

Autoan sartzean, haize zaflako galanta bildu eta tenpestak tenpestari etxeraino irauteko,

danba-danbaka irakurgailuan tekno musika ezarri nuen. Bidea haatik ez zen gozoa: ertzetako zuhaitzetarik erori abar hautsiak lehertzen nituen, arbola suntsituak inguratzen, ihaurgai heze bilakatu hosto sailak kotxez pilatzen eta hiriak zeharkatzean, karriken bizkarrera lerratu bonbila lerroak eta teilak ekiditen. Orduko ene bidaiak apokalipsia itxura zeukanez, eskerrak sabela ongi beterik atera nintzela adiskidearen sukaldetik. Auto izpirik gurutzatzen ez nuela, bihurgunez bihurgune arraposki aitzinatzen nintzen, aldi berdinean urguilu kementsuz hanpatua eta naturako elemenien arras menpeko.

Mendi mazela baten puntan, urrunetik lau argi gorri zenbatu nituen. Etxeratzean frankotan atzematen nuen esneketariaren kamioia zitekeen: ohizko lanean ziharduen, baserriz baserri tanke erraldoietan hotzean lagatzen ziren behi zein ardi esneak hurrupa metalikoan kargatzen, euriaren eta haizearen erruz gaur lohiz, istilez eta zipoz beteak ziren xendetarik iragan beharrez. Esneketaria, urteen boterez, ene bidelaguna bihurtua zen, basurdeak, hontzak, zaldi galduak, ardi marrakak, Rachel Rosen, Norma Jean

edo azeri itzalen pare. Ikuskizunaren normaltasunak ez ninduen behar haina kezkatu eta pentsamendua adiskidearekiko solasetan haziz, pentokan gora igotzeari ninderraion.

Lau argien saihetsera heldu nintzenean, batbatean, gauzak esneketariaren tresna motordunarekin deus loturarik ez zuela ohartu nintzen: garraio makinari alde guztietarik kea bazerion eta xuru-xuru eztiak hautematen zitzaizkion. Harritua nintzen. Haluzinazio bat ote zen? Gasna sobera jatearen osteko Jainkoaren gaztigua? Urdetegi industrialaren zartarazteko xedea zeukan gaueko komando batekin bekoz beko nintzena? Soldadu herrikoiak, sasi artetik punpean aterako zitzaizkidan ahuntzen sotiltasunez eta agian merezi nuelako, hor bertan kalituko eta erreko ninduten. Horma egina nintzen eta autoa lur bustian itsatsia geratu zitzaidan, hil eta hasperen mekanikoz. Garraiotegitik berde fluor koloreko tximistak jaukitzen zitzaizkidan eta su bakoitzak paralisiatzen ninduen. Aspaldiko partez «Gure Aita Zeruetan Zirena» marmaratzen hasi nintzen, azken orena hurbil neukala kasik segur.

Txinka frenetiko eta metalikoak entzuten nituen, makina borobil elipsoidalaren zurubi hidraulikoa jaisten ikusi nuen eta zola kixkailduan pausatzen: gizaki orlegi arin bat emeki-emeki jaitsi zen.

–Estralurtarrak! Ez gaude bakarrik unibertsoan! –erran nuen horma, aurrean neukan gizakiaren itxurak Roswellen agertu zenaren antza handia zeukala gogoan atxikiz: buru angelua, amanda begiak, sudurrik ez, kokotsa eskas eta ahoa hertsia. Besoak eta zangoak izugarri luze eta malguak zituen. Ez nekien arra ala emea zen, ezin asma bistan dena, espazio estragalaktikoen trebeskatzeko erabiltzen zuen apainduraren azpian. Har zuri armada osoa zeraman laguntzaile gisa. Ezpain zurpailak mugitu zituen.

–Ngo’ tsokoi bong?

–Mantxut?

–Diotat ngo’ tsokoi bongi? –errepikatu zuen izakiak.

Eta nik artekatu nuen ene behialako hitzaz gain, «Bai» ahoskatzea deliberatu nuen zer gerta ere. Lasaitu nintzen gure eskualdeetako euskalki ezagun bat ezpainetan ez zeramatela

ohartzean. Agian zehazten eta nik jadanik erabiltzen nuen Marteko euskara zela baimentzera ausartuko nintzatekeen. Autotik kontrola ez nezakeen bultzadak atera ninduen. Izakiak ezker eskuin mugitu zuen buru arraroa eta zirudienez neure erantzun hutsala ez zezakeen onar.

Aurreko astean, lanean, ohorea garbi salbatzearren familiak emaztegaia 'bereganatu' zion gizona ahurrak belarrian trinko, deiadarka gelan sartu zitzaigun.

–Hor dira, gaur haien kontra borrokatu naiz Nafarroa Karrikan, gero Gaztelu Bidean, ihes joan dira baina bihar berriz etorriko dira!

–Nor? –eskatzera ausartu nintzaion, irratian ez nuelako amerikar edo errusiarren edo bien Zuberoaren aurkako eraso iragarpenik aditu.

Jarraitu zuen hatsanka.

–Estralurtarrak! Uhinak Ori menditik datozkit! Sendi ditzaket!

–Ikusi dituzu? Nolakoak dira?

–Dragoien parekoak –ahoskatzen zuen begiak izuaz borobilduak–. Sua dariela, so beltz eta arma sofistikatuak daramatzate gerrian. Itzuliko dira. Sarri Peko Arrüa suntsituko dute. Behar diot

Karanba Suare Kulibali sorginari derrigorrez deitu. Non dago telefonoa?

–Hortxe! Nahi duzu ene mugikorra? –proposatu nion eta lasaitu zen, lankideak harekiko «gaixoa»ka zinpurtzen ziren.

Batek kontatzen zuen bezpera gauean, hedexuriak etorri artean, norbait egon zela bere biziaren arriskuan Nafarroa karrikaren erdian etzanik. Mokofin baten irria ebaki nuen bortitz orduan.

–Gu gara eroak! Horrek badaki ez garela bakarrik unibertsoan!

Lankidea bere egitekoetara plegatu zen, ni ere mentsetarik nintzela erabakirik. Ildo horretarik nolabait gurutzaketa ez nuela hain urrun nabaritzen nuen eta lehen xixtako harridura ezabatu ondoan, ilunpearen minean, argi gorriz seinalatu garraio tresna eta izaki bitxiaren aitzinean nengoen, hein bat jabal. Roswellgo estraterrestraren ondorengoak urrats bat egin zuen nigana, galdera berdina meleloki errepikatuz.

–Ngo’ tsokoi bong?

–Eroan nazazu Mars izarbelera!

–Ariko tsarkai maigh’ –txispatsua aditu nuen, izaki berde argia inguratzen zuten har zuri mala-

tsen dantza urguilutsua, beribil bereziaren leihatila batetik zetorren laser ezpata mihiak troxatzen ninduela.

Harrak irudiz gasnaz hazten zirenetarikoak ziren, handiagoak bistan dena, Mars planetako airearen indar eskasak gorputzen garapena biderka zezakeelako.

Prest sentitzen nintzen ondorioz marsekiaren noranahi segitzeko, ala Stockholm-eko sindromearen pikoak irekitzen zihoazkidan? Lurrean bizitzeaz nazkatua nintzen, adiskiderik ez funtsean, gauak hobira eramaten ninduen eta biharamunean ekia ikusiko nuenez ez nekien. Bakeagatik Ganimedesko edozein izakiren urratsetan sar nitzakeen eneak, haiek errana eta manatua, fidelki obratuz, hainbat urtetan, euskal mugimenduaren lemak, edukiz bakarretan jasanezinak niretzat, baina zer inporta militantea nintzen ez? neuretu nituen bezalaxe. Roswellen umeak eta haren har andana adoratzaileek eroan nintzatela beraz, mundu honetan paira nezakeen bakardade karroindutik ihes!

Maiteak berriro utzi ninduenez geroztik, egunak eta partikulazki gauak bideetan herrestan

eta terrentan higatzen nituen, triste pakete baten moldean. Etxeratzean jaten nuen gasna zioneak ez zidan amodio eta intimitate premia ordezkatzen, biak debekatuak bailitzaizkidan. Kalkulu erraza neukan ondorioz: izakiak bahitzen baldin baninduen ene gogoaren alde, planeta eta galaxia ezezagunak miretsiko nituen, haurtzaroko amets bat egiaztatuz, lur gorriak, kometa zartatuen buztanen errauts hodeiak, urek zizelkatu inguruak eta gasezko eremuak, izar hurbilak, quark hondogabeak, zulo kosmiko erraldoiak eta Saturnoren eraztunak. Lurretik behinbetiko partitzeko ideia ezti zitzaidan. «Zu ilargian zabiltza beti» perpaus mespretxagarria zenbatetan ez nuen entzun erraten eta hara hondarrean, egoera eta errealitatearen uztartzeko aukera neukala. Ez nuen huts egitekoa.

Izakia otoiztu nuen.

–Eraman nazazu hemendik at.

–Tsagun ngo’ lantz arakai?

–Likin nakai zakar: meemee manex ta? Lakona ta? –galdatu zion kontrol kabinatik itseskatzen zen hodiaren isurian ahots metalikoak.

Izakiak kasko gaineko lehen bilotik oin puntetako oskietan lohi mokor malguraino ikertu nin-duen eta burua Ez errateko maneran mugitu zuen. Istant batez izakia dena su, ke eta gar zurubietan gora igotzen eta tresnak aireratzeko seinaleak emititzen hasten zela konturatzean, negar hegian nengoen; deabru asto handia hitzak eskapatu zitzaizkidan amorru biziaz eta berriro desesperatua, autoan sartu nintzenean, zirta misteriotsua zeru sakonaren bihotz galernatsuan desagertu zen.

Lurrean bizitzera kondenatua nintzen.

Plan d’Epargne Logement bat ireki behar nuen.

Absolutuki.